

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Arabako Lurralde Historikoko udaletako gizarte-zerbitzuak antolatzeko agiriak behin betiko onartzea

Aipatutako espedienteari ez zaio alegaziorik aurkeztu, eta Udalbatzak 2025eko abuztuaren 27an egindako ohiko bilkuran onartu zuen. Hori dela eta, espedientea indarrean jartzeko argitaratu da.

1. Eskumenak Eskuordetzeko Esparru Hitzarmena eta udal-eskumeneko Gizarte Zerbitzuak Kudeatzeko Gomendia.
2. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzen duen udal-araudia.
3. Esku-hartze sozioedukatibo eta psikosozialerako zerbitzua arautzen duen udal-erregela-mendua.
4. Zaintzaileei Laguntzeko Zerbitzua arautzen duen araudia.
5. Eguneko Arretarako Landa Zentroaren Zerbitzua arautzen duen udal araudia.
6. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxebizitzaren zerbitzua arautzen duen araudia.
7. Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanletik beherako udalerrietan adinekoentzako ostatu-zerbitzuari, eguneko arretari eta zerbitzu osagarriei buruzko udal-araudia.
8. Udal ordenantza, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa arautzen duena.
9. Gizarte-zerbitzuen prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskala

Hori guztia orok jakin dezan ematen da argitara, eta jakinarazten da horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daitekeela zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, iragarki hau argitaratu eta bi hilabeteko epean.

Durana, 2025eko urriaren 30a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE

ESPARRU-HITZARMENA, ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALAREN ARTEKOA, UDAL ESKUMENENK GIZARTE ZERBITZUEN ESKUMENAK ESKUORDETZEKO ETA KUDEAKETA EGITEKO

Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legeak arautzen du botere publikoek duten betebeharrak eskubidearen titular guztiei bermatzeko prestazio eta gizarte zerbitzuetarako sarbidea eta eskuragarritasuna, lege horretan nahiz Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan finkatutako terminoetan. Hori guztia Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Maparen arabera, Arabako Foru Aldundiak eta Lurralde Historikoko udalek berretsi zutena 2016ko uztailaren 22an, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren baitan.

Hitzarmen honetan jasotzen diren zerbitzuak udalaren eskumenekoak dira, 12/2008 Legearen 22. artikulua arabera, eta hainbat eskumen ditu esleitura. Izan ere, Lurralde Historikoko udalerri gehienek, tamaina eta biztanleria txikia dutenez, ez daukate zerbitzu horiek eraginkortasunez emateko beharrezko azpiegiturarik.

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 31. artikulua adierazten duen bezala, aldundiek ziurtatu behar dute udal eskumeneko zerbitzuak lurralde osoan modu integral eta egokian ematen direla. Bada, testu beraren 36. artikulua arabera, aldundiek, besteak beste, udal zerbitzuei dagokienez juridikoki, ekonomikoki eta teknikoki lagundu eta kooperatzeko zeregina daukate. Horrenbestez, gomendagarria da Arabako Foru Aldundiak parte hartzea udal eskumeneko zerbitzu hori ematen.

Horregatik, lurralde osoan zerbitzuaren eraginkortasuna bermatzeko mekanismoak arbitratze aldera, komeni da Arabako Foru Aldundiaren eta hala erabakitzen duten udalen artean lankidetzaz-esparru bat prestatzea udal eskumeneko zenbait betebeharrak gauzatzeko.

Lankidetzaz hori legeak jasotzen duen administrazioen arteko kolaborazio, kooperazio eta laguntza printzipioetan; besteak beste, Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 140. artikulua eta hurrengoetan eta Gizarte Zerbitzuen Legearen 43. artikulua eta hurrengoetan. Hitzarmen honetan gauzatu dira horiek.

Gizarte zerbitzu hauekin lotutako udal zereginen izaera ezberdina izateak beharrezko bihurtzen du hitzarmen honek, lehen aipatutako 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengoetan jasotakoaren arabera formalizatu denak, barne hartzea prestazio sozialekin nahiz diru publikoaren bilketarekin eta zerbitzuak emateaosatzen duten beste eginkizun batzuen kudeaketa egitearekin.

Foru lankidetzaren oinarrietako bat, Arabako udalerri guztietan, zerbitzuaren kalitatea eta intentsitatea antzekoa izatea sustatzea denez, zerbitzuen eta horien prezio publikoak arautzen dituen araudia, era berean, homogeneoa izan behar da hitzarmena sinatzen duten udal guztientzat. Horrela, gainera, eskumenen eskuordetzea erraztuko da, horixe baita

zerbitzuak eta horien prezio publikoak arautzeko araudiak hitzarmenaren eranskin gisa txertatzearen arrazoia.

Lurralde Historikoan hitzarmen honi atxikitzen zaien udalerrietan aplikatuko da hitzarmen hau, honako klausula hauetan adierazitako terminoetan:

KLAUSULAK

Lehenengoa. Xedea

1.1. Hitzarmen honen xedea da Arratzua-Ubarrundiako Udalaren eskumenak Arabako Foru Aldundiari eskuordetzea eta Aldundiak honako zerbitzu/prestazio hauek osorik emateko kudeaketa egitea:

- a) Etxez etxeko laguntza-zerbitzua - ELZ (I. eranskina)
- b) Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua, haurtzaroan (II. eranskina).
- c) Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua (III. eranskina).
- d) Eguneko Arretarako Landa Zentroaren Zerbitzua-EALZ (IV. eranskina).
- e) Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxea (V. eranskina).
- f) Adinekoentzako ostatu- eta eguneko- arreta zerbitzua eta horien zerbitzu osagarriak (VI. eranskina).
- g) Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa-ZLPE

Era berean, barnean hartzen du Arratzua-Ubarrundiako Udalak Arabako Foru Aldundiari egindako kudeaketa gomendioa, aurretik aipatutako udal-zerbitzu/prestazio hauena:

- a) Etxez etxeko laguntza-zerbitzua - ELZ (I. eranskina)
- b) Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua, haurtzaroan (II. eranskina).
- c) Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua (III. eranskina).
- d) Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxea (V. eranskina).
- e) Garraio egokituko zerbitzua Eguneko Arretarako Landa Zentroan (EALZ). (IV. eranskina).
- f) Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa-ZLPE

Agindu gabeko zerbitzuen kudeaketa Udalak egingo du.

1.2. Hitzarmenetik kanpo geratzen dira Arratzua-Ubarrundiako zerbitzuei buruzko informazioari, balorazioari, diagnostikoari eta orientazioari lotutako udal-zeregin eta -eskumen guztiak; izan ere, horiek oinarritzko gizarte-zerbitzuei dagozkien, eta udalak berak eta/edo kuadrillek emango dituzte zuzenean.

- 1.3. Oinarrizko gizarte zerbitzu horietatik erreferentziazko profesional bat izendatuko da, kasuaren koordinazioa bere gain hartuko duena, Banakako Arreta Programa edo, kasuan kasu, Arreta Plan Pertsonalizatua egingo duena, pertsona edo familia erabiltzailearen partaidetzarekin. Esku-hartzearen jarraipena ere egingo du, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarekin batera, eta interesdunei orientazioa eta laguntza emango die, dagozkien espedienteak izapidetzeko eskaera eta beharrezko dokumentazioa formalizatzeko.

Bigarrena. Zerbitzuak arautzeko araudia eta hitzarmenaren eraginkortasuna

2.1 Arratzua-Ubarrundiako Udala eta Arabako Foru Aldundia ados daude hitzarmen honetan araututako zerbitzuak/prestazioak eta horien prezio publikoak arautzen dituzten araudien edukiarekin (hitzarmen honen eranskinetan jasota).

2.2 Arratzua-Ubarrundiako Udalak konpromisoa hartzen du bere organo eskudunek araudi hori onartzeko, hitzarmen hau sinatu eta hiru hilabeteko epean.

2.3 Araudi horren onespena eta indarraldia ezinbesteko baldintza da hitzarmen honen eraginkortasunerako eta indarraldirako.

Hirugarrena. Eskumenak eskuordetzearen irismena.

3.1 Arratzua-Ubarrundiako Udalak Arabako Foru Aldundiari eskuordetu dio lehenengo klausulan jasotako zerbitzuen/prestazioen eskumenak gauzatzea.

Zerbitzu bakoitzaren eskumenak eskuordetzan ematearen irismena honako hauetan zehazten da:

- a) Horretarako ezarrita dagoen Balorazio eta Orientazio Batzorde Teknikoaren bidez baloratzea oinarrizko gizarte zerbitzuek bideratutako espedienteak. Desadostasunik egotekotan, espedientea bideratu duen udalak/kuadrillak izendatutako pertsona bera sartu ahal izango da.
- b) Ebazpen-proposamenetik (udal gizarte zerbitzuek egina) abiatuta izapidetzea, erabat amaitu arte, zerbitzu hori ematearekin lotutako administrazio prozedurak. Horretarako beharrezko ebazpenak emango dira, eta, bereziki, prestazio horren eskubidea aitortu, eskuratu eten eta/edo iraungitzeak, zerbitzua eskuratzeko araudian ezarritako terminoetan.
- c) Zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoak diren jarraibideak eta aplikazio-irizpideak ematea, dagokion zerbitzua/prestazioa eskuratzeko araudian ezarritakoaren arabera.
- d) Zerbitzua emateagatiko prezio publikoen kudeaketa, likidazioa, ikuskapena eta diru-bilketa, Tokiko Ogasunak erregulatzeko araudian eta, horren ordezkotzat, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritakoarekin bat etorritik.
- e) Dagokion zerbitzuaren arloan, zehatzeko ahala erabiltzea eta legez bideragarri diren ikuskapenak eta egiaztapenak egitea.

- f) Eskuordetutako eskumenak egikaritzuz emandako egintzen aurka jarritako administrazio errekurtsioak ebaztea.

3.2 Aldundiari dagokio eskumen horiek gauzatzea, bat etorritz indarrean dagoen araudiarekin eta, bereziki, zerbitzua eta bere prezioa (bigarren klausulan aipatzen dena) arautzen duen araudiarekin.

Laugarrena. Kudeaketa-gomendioaren irismena.

Arratzua-Ubarrundiako Udalak Arabako Foru Aldundiaren esku uzten du lehenengo klausulan jasotako zerbitzuen/prestazioen kudeaketa.

Eskuordetutako zerbitzu bakoitzaren kudeaketa egitearen irismena honako hauetan zehazten da:

- Arabako Foru Aldundiak agindutako zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoak diren jarraibideak eta aplikazio-irizpideak eman ahal izango ditu.
- Kudeaketa egite hori eta, hala badagokio, beste prestazio osagarri batzuk, Arabako Foru Aldundiak zuzenean edo zeharka egin ahal izango ditu, lege ezarritako moduan kontratatuta, eta gehieneko iraupenak ez du hitzarmen honen indarraldia gaindituko.

Eskuordetutako prestazio ekonomikoa kudeatzeko gomendioaren irismena honako hau da:

- Eskubide subjektiboa arautzen duen araudia aplikatzeko ebazpenean aitortutako zenbatekoa ordaintzea onuradunari.
- Araudi erregulatzailean ezarritako baldintzak betetzen direla eta prestazioa aitortutako helburutara egokitzen dela, gainbegiratzea.

Bosgarrena. Gobernu eta Koordinazio Batzordea.

5.1 Hitzarmen honetan jasotako akordioak eta horien interpretazioa jarraitu, kontrolatu eta betetzea bultzatzeko Gobernu eta Koordinazio Batzordea sortu da. Honako kide hauek izango ditu:

Udaletako sei (6) ordezkari, Aiaraldeko, Ipar-ekialdeko Arabako eta Hegoaldeko Arabako eremu bakoitzeko bi.

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako Saileko hiru (3) ordezkari.

5.2 Batzorde hori gutxienez urtean behin bilduko da ohiko bilkuran, eta erabakiak gehiengo soilez hartuko ditu.

5.3 Gobernu eta Koordinazio Batzordeari dagokio antolaketa eta funtzionamenduari buruzko bere erregelamendu propioa egitea.

5.4 Hitzarmen honetan aurreikusten ez den guztian, Gobernu eta Koordinazio Batzordearen funtzionamendua arautuko dute kide anitzeko organoen funtzionamendu arauak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoak.

Seigarrena. Gobernu eta Koordinazio Batzordearen funtzioak

6.1. Gobernu eta Koordinazio Batzordearen funtzioak honako hauek dira:

- a. Hitzarmen honen planifikazioa, koordinazioa, jarraipena, kontrola, txostena eta interpretazioa.
- b. Hitzarmen honen edozein aldaketa edo berritzea jakinaraztea.
- c. Hitzarmen honetan berariaz jasota dauden eskumenak erabiltzea.

6.2. Gobernu eta Koordinazio Batzordeari honakoen berri emango zaio urtero:

- a. Hitzarmenaren egikaritze-egoera nahiz ekitaldi bakoitzean antzemandako gorabeherak.
- b. Foru-aldundiak sinatu beharreko kontratuak, 600.000 eurotik gorakoak direnean.
- c. Erakunde sinatzaileek egin dezaketen proposamenak, kexak edo iradokizunak.

6.3. Urtero, hitzarmen honetan jasotako zerbitzuen jarduera-memoria aurkeztuko zaio Arabako Gizarte Politiken Erakunde arteko Mahaiairi.

Zazpigarrena. Eskuordetutako eskumenak eta kudeaketa gauzatzea

7.1 Eskumenak eskuordetzeak ez du ekarriko titulartasuna lagatzea. Titulartasuna udalarena izango da une-oro, eta horren egikaritzea soilik eskuordetuko da.

7.2 Aldundiak Gobernu eta Koordinazio Batzorde Nagusiari eskuordetutako eskumenen erabileraren eta agindutako zerbitzuaren garapenaren berri emango dio, gutxienez urtean behin.

7.3 Arratzua-Ubarrundiako Udalak edozein unetan eskatu ahal izango du Aldundiari eskuordetutako eskumenen egikaritzeari eta zerbitzua emateari edo prestazio ekonomikoaren aitopenearen buruzko informazioa, Gobernu Batzordeko lehendakariari

zuzendutako idazki baten bidez. Eskaera Foru Aldundian sartu eta gehienez ere hogeiei egun balioduneko epean bidaliko du Aldundiak eskatutako informazioa.

7.4. Arratzua-Ubarrundiako Udalak hitzarmen honetan eskuordetutako edozein zerbitzu/prestazioren eskumena bere gain hartu ahal izango du, Arabako Foru Aldundiari idatziz jakinaraziz eta gainerako zerbitzuei dagokien erregulazioa indarrean mantenduz.

Zortzigarrena. Araudi ekonomiko-finantzarioa.

Eskuordetutako zerbitzu/prestazio ekonomiko bakoitzaren ekonomia- eta finantza-araubidea dagokion eranskinean jasoko da.

Bederatzigarrena. Araubide juridikoa

Hitzarmen honek administrazio-izaera izango du. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organoek berrikusiko dituzte bide judizialean, bai eta betearazpenean emandako egintza eta erabakiak edo horren ondoriozkoak ere.

Hamargarrena. Iraupena

10.1. Hitzarmen honek lau urteko indarraldia izango du, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta bigarren klausularen 2.3 apartatuan aurreikusten denetik aurrera izango ditu ondorioak. Epe hori amaitu ondoren, beste horrenbeste luzatu ahal izango da.

10.2. Hitzarmena beste lau urtez luzatu ahal izango da hasierako aldia amaitu ondoren, alderdiek hala adosten badute.

10.3. Udal batek, edozein arrazoi dela medio, hitzarmen hau ez luzatzea erabakitzen badu, ez du ekarriko bere arloko gainerako udalek hitzarmena suntsiaraztea. Hala ere, Gobernu eta Koordinazio Batzordearen organoa aldez aurretik deitu beharko da ondorioak aztertze eta egoera hori konpontzeko.

10.4. Arratzua-Ubarrundiako Udalak edozein unetan erabaki ahal izango du hitzarmena amaitzea, bere eskumenak bere gain hartuta, eta horrek ez die eragingo gainerako udal sinatzaileei. Hala ere, Gobernu eta Koordinazio Batzordearen organoa aldez aurretik deitu beharko da ondorioak aztertze eta egoera hori konpontzeko.

Hamaikagarrena. Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak.

11.1 Hitzarmena honakoen bitartez suntsiarazi daiteke:

- a. Alde bien arteko akordioa.
- b. Edozein alderdiren salaketa, ondorioak izan behar dituen eguna baino gutxienez sei hilabete lehenago formalizatua.

- c. Desadostasuna Gobernu eta Koordinazio Batzordearen organoan, hitzarmen honen funtsezko klausulen interpretazioari buruz.
- d. Funtsezko betebeharrak konbentzionalak ez betetzea. Suntsiarazteko arrazoi hori aplikatu ahal izateko, hitzarmena suntsiarazteko interesa duen erakundeak aurrez Gobernu eta Koordinazio Batzordeari jakinaraziko dio suntsiarazteko arrazoi hori badagoela eta suntsiarazteko asmoa duela. Mahaiburutzari jakinarazpen hori egin ostean, Batzordea deituko da, eta gehienez ere hamabost egun balioduneko epean bildu beharko da. Helburua izango da beste alderdia entzun ostean ebazpenaren jatorriari buruzko txostena egitea. Batzordearen txostena egindakoan, erakunde interesdunak dagokion ebazpena emango du.
- e. Ezin izango da bete, eta halakotzat hartuko da, besteak beste, Udalak Eranskinetako ez den Etxeko Laguntza Zerbitzuari buruzko araudia onartzea edo aldatzea.
- f. Indarraldiaren gehieneko epea eta luzapena igarotzea.

11.2 Hitzarmena ebatzi edo iraungi ondoren abiatuko da haren likidazioa. Likidazio hori, ukitutako udalari entzun ostean, Foru Aldundiak egingo du, eta Gobernu eta Koordinazio Batzordeak onartuko du.

11.3 Arratzua-Ubarrundiako Udalak Hitzarmena aldebakarrez suntsiarazten badu, Aldundiaren bete ez izanean oinarrituta, Aldundiak ez du eskubiderik izango inolako kalte-ordainik eskatzeko.

11.4 Hitzarmen hau suntsiaraziz gero, Arratzua-Ubarrundiako Udalak bere gain hartu beharko ditu Aldundiak zerbitzua zuzenean eta/edo zeharka emateko hartutako betebeharrak eta konpromisoak, edo, hala badagokio, kalte-galeren ordaina ordaindu beharko du.

Hamabigarrena. Datuen babesa.

12.1 Datuak Babesteari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorren (aurrerantzean, DBEO) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren (aurrerantzean, DPBDBLO) arabera, Arratzua-Ubarrundiako Udala da erabiltzaileen fitxategiaren eta erabiltzaileen datu pertsonalen tratamenduaren titularrak. Hori dela eta, bertan ezarritakoa betetzeko, Arabako Foru Aldundiari, tratamenduaren arduraduna den aldetik, erabiltzaileak identifikatzeko eta hitzarmen honetan aurreikusitako jarduerak egiteko ematen zaizkion datuak indarrean dauden bitartean soilik erabiliko ditu, bere gain hartutako betebeharrak betetzeko. Arabako Foru Aldundiak ez ditu aplikatuko edo erabiliko hitzarmenean jasota ez dagoen helbururako. Era berean, betebeharrak hau du: Eskura dituen datuen konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna ziurtatzeko behar diren segurtasun-neurri guztiak bete eta hartu beharko ditu, eta, hitzarmena iraungi ondoren, Arratzua-Ubarrundiako Udalari itzuli beharko dizkio jarduera egiteko eskuratu dituen datu pertsonalak dituzten euskarri guztiak.

Hamahirugarrena. Hitzarmenari atxikitzeko prozedura.

13.1 Esparru-hitzarmen honi atxikitzeko, dagokion osoko bilkuraren erabakia, atxikipen hori onartzen duena, beharko da, eta hitzarmeneko klausula eta eranskin guztiak berariaz onartu beharko dira.

Hamalauugarrena. Argitaratzea.

14.1 Esku hartzen duen administrazio bakoitzeko organo eskudunek onartu ondoren, hitzarmen hau eta bere eranskinak ALHAOn argitaratuko dira, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera jarriko da indarrean.

I. ERANSKINA
Etxez etxeko laguntza-zerbitzua - ELZ

1. Ekonomia- eta finantza-araubidea

Arabako Foru Aldundiak zerbitzuaren % 100 finantzatzen du.

2. Udal erregelamendu arautzailea-

Une bakoitzean indarrean dagoena izango da.

II. ERANSKINA

Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua.

1. Ekonomia- eta finantza-araubidea

Arabako Foru Aldundiak zerbitzuaren % 100 finantzatzen du.

2. Udal erregelamendu arautzailea-

Une bakoitzean indarrean dagoena izango da.

III. ERANSKINA

Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua

1. Ekonomia- eta finantza-araubidea

Arabako Foru Aldundiak zerbitzuaren % 100 finantzatzen du.

2. Udal erregelamendu arautzailea-

Une bakoitzean indarrean dagoena izango da.

IV. ERANSKINA

Eguneko Arretarako Landa Zentroaren Zerbitzua

1. Ekonomia- eta finantza-araubidea.

Arratzua-Ubarrundiako Udalaren konpromisoak

a) Arratzua-Ubarrundiako Udala arduratuko da Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzua dagoen eraikina behar bezala kontserbatzeaz eta mantentzeaz, eta bere gain hartuko ditu hornidura-gastuak.

b) Arratzua-Ubarrundiako Udalak konpromisoa hartuko du, eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua osorik emateagatik eragindako gastuetarako bere ekarpena, guztizko kostuaren % 20 izateko.

Arratzua-Ubarrundiako Udalaren konpromisoak

a) Arratzua-Ubarrundiako Udalak konpromisoa hartuko du, eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua osorik emateagatik eragindako gastuetarako bere ekarpena % 20 izateko, Arratzua-Ubarrundiako Udalak zerbitzu horretan beteko dituen plaza bakoitzeko.

Arabako Foru Aldundiaren konpromisoak

Arabako Foru Aldundiak konpromisoa hartuko du, eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua osorik emateagatik eragindako gastuetarako bere ekarpena, zentro horri diruz lagun dakioken aurrekontuaren % 80 izateko, eta garraio egokituaren prestazioagatiko gastuen % 100 izateko, aurrekontuko baliabideen arabera.

Urtero, aurreko puntuan hartutako konpromisoei dagokien likidazioa egingo da.

2. Udal erregelamendu arautzailea-

Une bakoitzean indarrean dagoena izango da.

V. ERANSKINA

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxea

1. Ekonomia- eta finantza-araubidea

Arabako Foru Aldundiak zerbitzuaren % 100 finantzatzen du, bai pisuen mantentze-lanekin lotutako gastu arrunta, bai erabiltzaileen laguntza pertsonala.

2. Udal erregelamendu arautzailea-

Une bakoitzean indarrean dagoena izango da.

VI. ERANSKINA**Adinekoentzako ostatua, eguneko arreta eta horien zerbitzu osagarrien zerbitzua****1. Ekonomia- eta finantza-araubidea**

Arratzua-Ubarrundiako Udalaren konpromisoak

- a) Arratzua-Ubarrundiako Udala arduratuko da erreferentziatzko zerbitzua dagoen eraikina behar bezala kontserbatzeaz eta mantentzeaz, eta bere gain hartuko ditu hornidura-gastuak.
- b) Arratzua-Ubarrundiako Udalak konpromisoa hartuko du, adinekoentzako ostatu-zerbitzua, eguneko arreta eta horien zerbitzu osagarrien zerbitzua osorik emateagatik eragindako gastuetarako bere ekarpena, guztizko kostuaren % 20 izateko.

Arratzua-Ubarrundiako Udalaren konpromisoak

Arratzua-Ubarrundiako Udalak konpromisoa hartuko du, adinekoentzako ostatu-zerbitzua, eguneko arreta eta horien zerbitzu osagarrien zerbitzua osorik emateagatik eragindako gastuetarako bere ekarpena % 20 izateko, Arratzua-Ubarrundiako Udalak zerbitzu horretan beteko dituen plaza bakoitzeko.

Arabako Foru Aldundiaren konpromisoak

Arabako Foru Aldundiak konpromisoa hartuko du, adinekoentzako ostatu-zerbitzua, eguneko arreta eta horien zerbitzu osagarrien zerbitzua osorik emateagatik eragindako gastuetarako bere ekarpena, ekitaldi bakoitzean ezartzen diren modulu ekonomikoen arabera egiteko, ehuneko hauetan: % 100 2025ean, % 90 2026an eta % 80 2027tik aurrera; hori guztia aurrekontuko baliabideen arabera.

Urtero, aurreko puntuan hartutako konpromisoei dagokien likidazioa egingo da.

2. Udal erregelamendu arautzailea-

Une bakoitzean indarrean dagoena izango da.

Durana, 2025ko urriaren 30a

Alkatea

M^a Blanca Antépara Uribe.

ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN UDAL ARAUDIA**LEHENENGO TITULUA****1. Artikulua.- Xedea**

Araudi honen helburua da Etxerako Laguntza Zerbitzua arautzea udalerrri honetan: Arratzua-Ubarrundiako Udala

2. Artikulua.- Ezarpen-eremua

Araudi honetan zehazten den zerbitzua Arratzua-Ubarrundiako udal mugarte honetan emango da

3. Artikulua.- Etxerako Laguntza Zerbitzuaren definizioa

Etxerako Laguntza Zerbitzua laguntza- eta prebentzio-izaerako zerbitzua da, erabiltzaileei beren etxean geratzen laguntzeko, bertan moldatzeko eta komunitate-inguruan integratzeko laguntza emanez, betiere isolamendu-egoerak saihestuta.

4. Artikulua.- Etxerako Laguntza Zerbitzuaren helburuak

Zerbitzu honen helburuak honako hauek izango dira:

- a) Norberaren autonomia mantentzea edo hobetzea, erabiltzaileen makaltzea prebenitzea eta haien autonomia-galera konpentsatzea, laguntza partziala edo osoa emanez, beren zaintza pertsonalerako premiazkoak diren eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak edota eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak egin ditzaten.
- b) Bideragarria denean, erabiltzaileei beren etxean ahalik eta denbora gehien geratzeko aukera ematea, bizi-kalitate onargarria izan dezan, ostatu-zerbitzu edo egoitza batean sartzea atzeratu edo saihesteko.
- c) Erabiltzaileen segurtasun-sentimendua indartzea.
- d) Erabiltzaileari laguntza emateko sare sozio-familiarra osatzen duten zaintzaileei laguntza ematea eta arreta emateko lana partzialki liberatzeko aukera ematea, beren garapen pertsonal, profesional zein sozialerako baldintza egokiak izan ditzaten.
- e) Erabiltzaileari normalean arreta ematen dion pertsona zaintzaile nagusia aldizka ordezkatzeko, hura aldi baterako izan ezean.
- f) Beste zerbitzu batzuk erabiltzeko premia eskatuko luketen beharrianak antzematea.

- g) Erabiltzaileak komunitate-ingurunean integratzen laguntzea, isolamendu- edota bazterketa-egoerak saihesteko.
- h) Adingabekoen zaintza osatzea, gurasoek edo tutoreek zaintza egokia ezin dietenean eman.
- i) Hainbat arrazoi psiko-fisiko-sozialen ondorioz krisialdi-egoeran dauden familien bizikidetzagiroa hobetzea, eta arrazoi horiek sortutako arriskuak prebenitzea.

BIGARREN TITULUA. ETXERAKO LAGUNTZA ZERBITZUA

I. KAPITULUA.- ZERBITZUAN SARTZEN DIREN ETA KANPOAN GERATZEN DIREN LAGUNTZAK ETA HORIEN EZAUGARRIAK

5. Artikulua.- Sartzen diren eta kanpoan geratzen diren laguntzak

5.1.- Honako laguntza hauek zerbitzu barruan eskainiko dira:

I.- Informazioa: erabiltzaileei beren eskubideen eta zerbitzuaren gaineko ezagutza egokia eta nahikoa izan dezaten behar bezala eta behar den momentuan informatzea.

II.- Jarraipenaren balorazioa: Arreta Pertsonalizatuko Planaren aldizkako ebaluazioak egitea, sakontasun handiago edo txikiagoarekin.

III. Etxeko Laguntza Zerbitzua: erabiltzaileek laguntza partziala edo osoa jasotzeko zerbitzua, eguneroko bizitzako jardura instrumentalak egin ditzaten, bereziki elikadurarekin, arroparekin zein bizi diren etxebizitzako instalazioen mantentze-lanen garbiketarekin lotutako lanak, haien antolaketa errazteko, eta dagokionean, lan horiek egiteko behar diren gaitasunetan trebatzeko.

a) *Elikadurarekin lotutakoak*:

- *Otorduak prestatzen laguntzea / Otorduak planifikatzen eta prestatzen laguntzea, erabilitako elementuak garbitzea eta jasotzea barne*
- *Elikagaiak erostea*
- *Erabilitako tresnak garbitzea eta lehortzea*

b) *Arroparekin lotutakoak*:

- *Etxean arropa garbitzen laguntzea / Arropa etxean garbitzea*
- *Arropa eskegitzea*
- *Arropa atontzea*
- *Arropa antolatzea eta gordetzea*
- *Arropa etxean lisatzea eta tolestea.*
- *Arropa erosten laguntzea / Arropa erostea*
- *Erabilitako elementu guztiak prestatzea eta gordetzea*

c) *Etxebizitzako instalazioen mantentze-lanekin lotuta*:

- *Etxea txukun jartzea*

- Azalerak produktu egokiekin garbitzea
- Erabilitako elementuak garbitzea eta jasotzea
- Hautsa kentzea
- Zoruak garbitzea eta aspiragailua pasatzea
- Gortinak eta leihoak irekitzea, aireztatzea
- Bainu-gela garbitzea
- Sukaldea garbitzea
- Leihoetako kristalak garbitzea
- Zaborra kontrolatzea eta jaistea.
- Ohea egin, oheko arropa aldatu eta zikina kentzea.
- Jabeen erkidegoko espazioak garbitzea.

IV.- Arreta pertsonala: erabiltzaileek laguntza partziala edo osoa jasotzeko zerbitzua, eguneroko bizitzan beharrezkoak diren oinarritzko jarduerak zein beren ingurunearekin lotuko dituzten jarduera instrumentalak egiteko; hori horrela, familia- eta komunitate-ingurunean sartzeko aukera emango zaie. Era berean, eta hala badagokio, horiek egin ahal izateko premiazko gaitasunetan trebatuko dituzte.

- Garbitasun eta higiene pertsonala, norbere eta oheko arropa aldatzea barne (baita laguntza teknikoak ere, horiek izanez gero, azazkalak zaintzea, bizarra moztea, ilea garbitzea, azala hidratatzea, ahoko higiena eta arropa aldatzea).
- Janzten eta eranzten laguntzea
- Eguneroko arropa prestatzea
- Jaten laguntza ematea
- Edaten laguntza ematea
- Janaria berotzea
- Norbere garbitasun eta higienarako erabilitako objektuak garbitzea eta jasotzea, bai eta jaten zein edaten laguntza ematekoak ere.

a) *Inguruan mugitu eta moldatzearekin lotutako jarduerak*:

- Jaikitze, oheratzeko eta eserlekutik altxatzeko laguntza baliabide teknikoak erabiliz, halakorik izanez gero.
- Etxe barruan noraezean dabilzanean laguntzea, baliabide teknikoak erabiliz halakorik izanez gero (bainugelara laguntzea, gela batetik bestera mugitzen laguntzea).

b) *Osasuna mantentzearekin lotutako jarduerak*:

- Medikuek agindutako aho bidezko medikazioa erosi, hartzen dela egiaztatu eta horren jarraipena egitea.

Orokorrean, aurreko jarduera guztiak, elementuak prestatzea, edota aurreko jardueren ondoriozko jarduera guztiak.

V.- Gizarte-laguntza: honen bidez, erabiltzaileak, profesional kualifikatu baten laguntzari esker, laguntza-harreman batean parte hartzen du, erabiltzailea modu autonomoan hobeto moldatze eta gizarteratze aldera.

- Izaera pertsonaleko kudeaketetan laguntzea, familiaren babes nahikoa ez dagoenean.

- *Medikuaren hitzorduak kontrolatzea eta horien jarraipena egitea, familiaren babes nahikoa ez dagoenean.*
- *Laguntza ematea etxetik lekualdatzean, baina betiere etxe inguruan (garraioa, eguneko zentroak, osasun-zentroak, komunitate-ekipamenduak, etab.).*

VI.- Beste hainbat jarduera osagarri edo ezohiko

Egoera berezietan, eta izaera mugatuarekin, beste hainbat jarduera eman ahalko dira, baldin eta zerbitzuaren helburuak lortzeko ezinbestekotzat hartzen badira:

- *Zaintzaileen atsedendia*
- *Paseoak*
- *Zerbitzu normalizatua ezarri aurretik higie-arazo larriak dituzten etxebizitzetan garbiketa orokorrak egitea.*
- *Egoera berezietan, beste hainbat jarduera eman ahalko dira, baldin eta zerbitzuaren helburuak lortzeko ezinbestekotzat jotzen badira.*

5.2.- Zerbitzu honetan honako jarduera hauek baztertzen dira:

- *Etxebizitzan bertan bizi diren eta zerbitzuaren onuradunak ez diren pertsonen arreta pertsonala ematea.*
- *Etxeko lanak egiteko laguntza ematea, baldin eta etxe horretan lan horiek egiteko gaitasuna duten pertsonak bizi badira.*
- *Osasun-izaerako jarduerak gauzatzea, baldin eta horiek egiteko langileek berariazko prestakuntza behar baldin badute (injekzioak jartzea, zundak erabiltzea, ultzeren eta eskaren tratamendua egitea nahiz medikazioa ematea, berariazko ezagutzak eta antzeko beste ezagutza batzuk eskatzen dituztenak).*
- *Etxean konponketa garrantzitsuak egitea (margotzea, papereztatzea...)*
- *Lehenengo atalean eta seigarrenean zehaztu gabeko garbiketak)*
- *Zerbitzu teknikoek egindako txostenean aurreikusi gabeko jarduera guztiak, ezta beste administrazio batzuen eskumenekoak direnak ere.*

6. Artikulua.- Etixerako Laguntza Zerbitzuaren ezaugarriak

Etixerako Laguntza Zerbitzu orokorra emango da onuraduna bizi den etxebizitzan, honako udal barruti honetan: Arratzua-Ubarrundia.

Onuraduna senideen artean txandakatuz gero, zerbitzua etxebizitza batean baino gehiagotan eman ahalko da, Araudi honen 8.1 artikuluan aurreikusitako baldintzekin bat.

1) Arreta-egunak

- Orokorrean, zerbitzua astelehenetik ostiralera arte emango da, medikuaren aginduaren arabera.
- Balorazio baten arabera, zerbitzua asteburuetan eta jaiegunetan eman ahalko da.

- Jaiegunak izango dira Eusko Jaurlaritzak ofizialki hala onartuak dituenak.

2) Zerbitzuaren intentsitatea

Zerbitzua emateko aldi baterako mugak erabiltzaileen premien bananako ebaluazioaren arabera ezarriko dira.

Asteko zerbitzua gutxienez 30 minutukoa izango da. Asteko zerbitzua gehienez hogeitau ordukoa izango da, eta 28 ordukoa ere izan daiteke, artikuluko horren bigarren paragrafoko 1) puntuan jasotako ezohiko kasuekin bat. Gehieneko ordu-kopuru hori malgutasun handiagoarekin banatu ahal izango da, baldin eta profesionalak beharrezkoa hartzen badu etxean dagoen erabiltzailearen zaintzak osatu edota ordezkatzeko.

3) Arreta-ordutegia

Zerbitzuaren ordutegi orokorra malgua da eta goizeko 07:30etik gaueko 21:30era emango da.

Batzuetan, zerbitzua emateko ordutegia zabalduko da ezarritako orduetatik kanpo, medikuaren balorazioarekin bat.

- Laguntza pertsonala ematean, ordutegia eskatzailearen ordutegi-ohiturak eta -premiak kontuan izanik ezarriko da.
- Etxe- eta gizarte-laguntza emateko zerbitzuei dagokienez, ordutegiak zerbitzua horiek eskaintzen dituzten langileen ordutegien arabera ezarriko dira.

II KAPITULUA.- ERABILTZAILEAK

7. Artikulua.- Erabiltzaileak zehaztea:

Zerbitzu honen erabiltzaileak autonomia-galera dutenak edo baztertzeko arrisku-egoeran daudenak, orokorrean, beren profilak bat egin beharko du eguneroko bizitzan oinarritako jarduerak egiteko aldi baterako edo etengabeko Laguntza Zerbitzua behar duten pertsonekin, beren ohiko etxebizitzan bizitzen jarraitu dezaten.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baitan, Etxerako Laguntza Zerbitzua eskubide subjektibo gisa aintzat hartzen da mendekotasun-egoeran dauden eta mendekotasuna izateko arriskua duten pertsonentzat Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015ko Dekretuak ezartzen duenaren arabera (MBB Mendekotasunaren Balorazio Baremoko puntuazioa 23 eta 24 puntu artekoa).

Etxerako Laguntza Zerbitzuaren hartzaileak honako pertsonak edota familia-taldeak izan daitezke:

- Autonomia pertsonalean zailtasunak dituzten pertsonak, eguneroko bizitzako jardura oinarrituak edota instrumentalak egiteko laguntza behar dutenak.

- Autonomia pertsonalean zailtasunak dituzten 65 urte baino gehiagoko pertsonak, eguneroko bizitzako jarduera oinarrizkoak edota instrumentalak egiteko laguntza behar dutenak.
- Familiarengandik behar duten zaintza eta arreta jasotzen ez dituzten adingabeak.
- Zama gehiegi, harreman-gatazka, gizarte-egoera ezegonkorak edota gaixotasun fisikoaren edota psikikoaren ondoriozko arazoak dituzten familia-taldeak edo pertsonak, eguneroko bizitzako edozer jarduera egiteko babesa nahiz zaintza eta laguntza partziala edo osoa behar dutenak.
- Gaixotasun terminal bat duten pertsonak, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko beste pertsona baten laguntza nahitaez behar dutenak.
- Zerbitzu honen laguntza jaso dezaketen pertsona edota egoera guztiak, medikuaren balorazioaren arabera.

8. Artikulua. Zerbitzua erabiltzeko baldintzak

Aurrerago adierazitako egoeraren bat izateaz gain, eskatzaileak zerbitzua erabiltzeko honako baldintzak bete beharko ditu:

8.1 Administrazio-baldintzak:

Eskaera egiten den datan, Arratzua-Ubarrundiako udal-barruti honetan erroldatuta egotea, eta bertan erroldatuta jarraitzea.

Baldintza horretatik salbuetsita geratuko da familia-txandakatzean dagoena.

8.2 Premiaren baldintzak:

- a. Laguntza eguneroko bizitzako jarduera oinarrizkoak edota instrumentalak egiteko eskatzea.
- b. Helbidean bizitzea, helbide hori norberarena izan edo zaintzaile nagusia den senide batena izan.
- c. Erabiltzailea bertan egotea eragozten edo larri zailtzen ez duen helbidea izatea, bai erabiltzailearentzat, bai etxeko laguntzaileentzat arriskurik ez dakarrena.
- d. Beharrezkoa izanez gero, Zerbitzuko langilerekin batera, laguntza nahikoa izatea, etxebizitzan baldintza egokietan egoteko.
- e. Erakunde sanitarioetan edo soziosanitarioetan etengabeko laguntza eskatzen duen osasun-egoera ez izatea.
- f. Dagokion tratamenduari uko ez egitea, gaixotasun infekziosoa eta kutsakorra edo gaixotasun mentala edukiz gero.
- g. Jarrera-nahasmendurik ez izatea edo Zerbitzuko langileari arriskua ekarri dakiekeen jokabiderik ez izatea.

9. Artikulua.- Erabiltzaileen eskubideak

Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikulua ezartzen duenaz gain, Etxerako Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileek honako eskubide hauek izango dituzte:

- Banakako Arreta Programan ezarritakoaren edukira eta intentsitatera egokitutako zerbitzua jasotzeko eskubidea, menpekotasun aitortua duten pertsonen kasuan; eta Arreta Plan Pertsonalizatuan ezarritako zerbitzua jasotzeko eskubidea, menpekotasun aitortua ez duten pertsonen kasuan.
- Jardueren programazioan parte hartzea.
- Jarduera-orriaren kopia bat izatea, zerbitzua osatzen duten jarduerak eta ordutegi-antolaketa zehaztuta (zerbitzuaren maiztasuna eta esku-hartze bakoitzean erabilitako denbora).
- Zerbitzuan aldaketa bat sortu dezaketen egoeren berri ematea, bai eta zerbitzu bera bertan behera utzi edo amaitu dezaketenak.
- Zerbitzua EAEko edozer hizkuntza ofizialetan jasotzea.

10. Artikulua.- Erabiltzaileen betebeharrak

Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 10. artikuluan ezarritakoaz gain, Etxerako Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileek honako betebeharrak izango dituzte:

- Zerbitzurako langilearen duintasun-eskubidea erabat errespetatzea.
- Oinarrizko gizarte-zerbitzuen erreferentziazko gizarte-langileari jakinaraztea, gutxienez 24 orduko epearen barruan, egiaztatutako arazo larrietan salbu, zerbitzuaren prestazioa aldi batean bertan behera uzteko gertakarien edo egoeren arrazoiak.
- Zerbitzua ematen duen entitateari eta oinarrizko gizarte-zerbitzuen erreferentziazko gizarte-langileari jakinaraztea zerbitzua ematean hautematen diren balizko arazoen berri.
- Zerbitzuaren prezio osoa edo hobariduna abonatzea, gaitasun ekonomikoa dela eta prezio publikoa ordaintzean salbuespenen bat ezarri daitekeen kasuetan salbu, etxerako laguntza zerbitzuan ezarri daitezkeen prezio publikoen udal araudian aurreikusitakoaren arabera.
- Zerbitzua ematen dieten profesionalen lana erraztea, laguntzea eta behar bezala nahiz begirunez tratatzea.

- Zerbitzua ematean eritasun infekzio-kutsakorrak gertatuz gero oinarritzko gizarte-zerbitzuen erreferentziazko langileei jakinaraztea, etxeko Laguntza Zerbitzuaren langileek beharrezko babes-neurriak har ditzaten.
- Etxean geratzea Etxerako Laguntza Zerbitzuaren langilea zerbitzua ematen ari den denbora, berariazko baimena eta preskripzio tekniko eman ezik.
- Etxerako Laguntza Zerbitzuko langilea etxean eta maila pertsonalean dagozkien zereginak egiteko behar dituzten tresnak eta materialak eskuratzea.
- a) Gizarte-zerbitzuei behar besteko denborarekin informatzea beren egoera sozioekonomikoan edozer aldaketa garrantzitsu gertatuz gero, dagokion ordenantza fiskalean ezarritako baldintzen arabera.
- Medikazioa zaindu beharreko zerbitzuetan: une oro aipatu zerbitzua ematen duen profesionalari zaindu behar den medikazioaren adierazpen argiak eta eguneratuak ematea.

Erabiltzaileak komunikazioak, informazioak eta gainerako eskakizunak berariaz zuzendu beharko ditu, dagokion oinarritzko gizarte-zerbitzuaren oinarritzko profesionalak artikulu honetan ezarritako obligazioak bete ditzaten.

Betebehar horietakoren bat betetzen ez badu, zerbitzua eten edo iraungi egingo da, araubide honetan araututako prozedurarekin bat etorritik.

III. KAPITULUA. ZERBITZUA JASOTZEKO PROZEDURA

1. ATALA. ESKATZAILEEN ZERRENDAN SARTZEA

11. artikulua.- Eskatzaileen zerrenda

Zerbitzua esleitzeko lehentasuna zerbitzuaren eskatzaile-zerrenda bitartez antolatuko da, eta sartzeko baremoa aplikatetik lortutako puntuazioari jarraituko zaio (l. eranskina)

Aurreko paragrafoan aurreikusitako eskatzaile-zerrendan sartzen diren pertsonen espedienteak berrikustea eska dezakete, behar bezala egiaztatzen badute euren egoeran izandako gorabeherak eginga zaien balorazioa alda dezaketela.

12. artikulua.- Zerbitzu eskatzaileen zerrendan sartzeko eskabidea

Araudi honetan araututako Etxerako Laguntza Zerbitzuaren eskatzaile-zerrendan sartzeko, interesdunak inprimaki normalizatu baten bidez eskatu behar dio eskumena duen organoari. Inprimakiak eskatzailearen sinadura eramango du eta Udalak xede horretarako prestatutik dituen edozein erregistroan aurkeztuko da, edo erregistroetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako eran.

Interesdunak eskaerari uko egin diezaioke prozesuaren edozein unetan, idatziz hala eskatuta. Horren ondorioz, espedientea artxibatu egingo da.

Halaber, gizarte-langileak txostena egin dezake espedientea artxibatzeko xedez, eskatzaileak edo haren ordezkariak berariaz uko egiten diola adierazten duen idazkirik bada.

13. artikulua. Eskabidearekin aurkeztu beharreko agiriak.

Eskatutako zerbitzuak etxeko lanetan laguntzea baldin badakar edo adingabeak beren kargura dituzten familien arretara zuzentzen bada, eskatzailearen ezkontidearen edo izatezko bikotearen nahiz etxean bizi diren gainerakoen dokumentazioa ere aurkeztu behar da:

Eskabideekin batera honako dokumentazio hau aurkeztuko da:

- NANaren fotokopia, edo edozein identifikazio-agiri baliokidea.
- Familia-liburua, elkarbizitza-unitatean 18 urtez azpikorik bada.
- Mendekotasunaren eta/edo gutxiagotasunaren balorazioa, hala badagokio, balorazioa beste autonomia-erkidego batean egin izan bada.
- Mediku-txostena, osasun-arazoak izanik mendekotasuna eta/edo desgaitasunaren balorazioa eskatzea ez dagokien pertsonen kasuan.
- Artatu beharrekoa pertsona adingabea bada edo legez edo izatez ezindua bada, ordezkaritzaaren egiaztagiria (adingabeak: familia-liburua, guraso eta seme-alaben arteko neurriak jasotzen dituen agiria; ezinduak: haren tutore izendatzen duen epaia edo izatezko zaintzaile-agiria, ereduaren arabera).
- Egoera ekonomikoari buruzko datuak:
 - Eskaera egin aurreko lau urteetako ondasun higigarrien eta higiezinaren zinpeko aitorpena.
 - Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergako azken aitorpenaren fotokopia edo, halakorik ezean, aitorpena egitera beharturik ez egotearen Ogasuneko ziurtagiria (azken hori ez da beharko aitorpena egindako azken ekitaldian Araba izan bada zergadun).
 - Edozein kontzeptutan egun dituen diru-sarreraren egiaztagiria: pentsioak eta gizarte aurreikuspeneko prestazioak (izan publikoak, pribatuak nahiz atzerrikoak), nominak, enpresa-jardueren etekinak, etab.
 - Kapital higiezinaren etekinengatik izandako diru-sarreraren egiaztagiria, halakorik izanez gero.
 - Banketxetako kontu-egoera eguneratu guztien egiaztagiria, eta kapital higigarrien etekinak.

- Arabako lurraldez kanpo jabetzan diren ondasunen katastro-balioaren eta titulartasunaren egiaztagiria.
- Ezarritako prezioaren hileko ekarpena ordaintzeko banku-erakundea eta kontu korrante zenbakia.
- Gizarte-zerbitzuek interesgarritzat jotzen duten beste edozein agiri.

Eskatzaileak ez badu nahi bere egoera baloratzerik edo ez badu modu frogagarrian egiaztatzen, ulertuko da uko egiten diola bere egoera ekonomikoa aintzat har dezaten, eta beraz, zerbitzua ordaintzeko ezarritako gehieneko tarifa ordaindu beharko du.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 8.3 artikuluari jarraituz, herritarrek ez dute aurreko agiri horietakorik aurkeztu beharrik izango lehendik ere administrazioak bere esku baditu. Horretarako, ordea, interesdunek eurek adierazi behar dute noiz eta zer organori aurkeztu zioten dena delako dokumentua. Udal edo foru gizarte-zerbitzuek ezin balituzte eskuratu dokumentu horiek, interesdunari berriz ekartzeko eska diezaioke.

Eskaerarekin batera aurkeztu den dokumentazioa osatugabea bada edo gaizki badago, eskatzaileari eskatuko zaio atzemandako okerrak zuzentzeko edo osatzeko beharrezko dokumentazioa aurkez dezan, 10 eguneko epean. Hala egiten ez badu, eskaerari uko egin diola ulertuko da.

Eskatzaileak eta, hala badagokio, elkarbizitza-unitateko gainerako kideek, baimena emango dio Udalari eta Arabako Foru Aldundiari datuak egiaztatzeko nahiz biltzeko beharrezko kudeaketak egin ditzaten. Datu horiek, eskatzaileak araudi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituen ala ez egiaztatzeko, eta, hala badagokio, zerbitzua finantzatzeko betekizunak eta baliabide ekonomikoak egiaztatzeko baino ezingo dira erabili.

Datu faltsuak emateak eta datuak ezkutatzeak eskatzailea kanpo geratzea ekarriko du. Horrez gain, beste ardura batzuen erantzule egitea ere ekar dezake.

14. artikulua.- Izapidetzea

Erabiltzaileen beharren ebaluazioa eta gizarte-txostena nahiz proposamena Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean ezarritako zehaztapenei jarraituz egingo dira.

a) PREMIEN EBALUAZIOA

- Eskatzailearen etxebizitzari (etxebizitza ibiltariari, hala badagokio) dagozkion udal gizarte-zerbitzuetako gizarte laneko teknikariek izapidetu, baloratu eta ebaluatuko dituzte eskatzailearen premiak.
- Udal gizarte-zerbitzuetako teknikariek aurkeztu izan den dokumentazioa aztertu eta honako alderdi hauek baloratzeko behar diren gestio eta jarduerak burutuko dituzte:

- Eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko laguntza behar izatea. Oinarrizko jarduera horien artean daude bere burua zaintzea, jaiki eta oheratzea, janzea, ibiltzea, elikatzea, garbitzea eta esfinterrak kontrolatzea.
- Eguneroko bizitzan tresnak erabiliz egiten diren jarduerak egiteko laguntza behar izatea. Esate baterako, elikagaiak eskuratzea eta prestatzea, etxebizitza eta sukaldeko tresnak garbitzea, arropa garbitzea, erosketak egitea, dirua erabiltzea, botikak kontrolatzea, eta etxeko nahiz etxetik kanpoko joan-etorriak egitea.
- Familia eta gizarte mailako egoera. Eskatzaileak, bizi den pertsonekin nahiz gizarteko ingurunearekin duen harremana baloratzea, eta baita familiako nahiz gizarte-sareak eskatzailearen beharrei erantzuteko duen gaitasuna eta prestutasuna ere.
- Etxebizitzak zer higie, ekipamendu, bizigarritasun eta irisgarritasun baldintza dituen, eta ingurunean non kokatuta dagoen. Hori guztia kontuan izanda, laguntza teknikoen beharrik dagoen.
- Egoera ekonomikoa.

b) GIZARTE TXOSTENA-PROPOSAMENA

Udal gizarte-zerbitzuetako gizarte laneko teknikariek Arretarako Banan-banako Programa prestatuko dute edo, hala badagokio, Laguntza Pertsonalizatua emateko Programa. Horietan, honako hau zehaztuko da:

- Eskatzaileak zerbitzua erabiltzeko baldintzak eta eskaera aurkezteko baldintzak betetzen dituen.
- Hala badagokio, baldintzetan salbuespen-egoera onar dezaten arrazoitutako proposamena.
- Eskatzailearen egoera pertsonala eta familiako nahiz gizarteko egoera. Hala badagokio, elkarbizitza-unitatearen egoera.
- Esku-hartzearen onuradunak zein diren, zer zerbitzu mota jasoko duten, zerbitzua astean zenbat orduz eta egunez jasoko duten, eta proposatutako lanen eta zerbitzuaren iraupena zein izango den.
- Hala badagokio, baldintzetan salbuespenezko zerbitzuak egotea onar dezaten arrazoitutako proposamena.
- Hala badagokio, zerbitzua zergatik ezeztatu den arrazoitzen duen proposamena.

15. artikulua. Ebazpena

Eskabidea aztertua eta baloratua izan eta gizarte-txostena egina denean, dagokion proposamen tekniko prestatuko da, dagokion organoari aurkezteko. Organo horrek, arrazoitutako ebazpenaz, onartu edo ezetsi egingo du zerbitzua erabiltzeko eskaera.

Ebazpena udal erregistroetakoren batean eskaera jasotzen denetik gehienez ere bi hilabeteko epean eman beharko da. Epe hori eten egingo da eskaerak osatzea eskatzen denean, horren jakinarazpenaren eta betetzearen arteko denboran, edo, bestela, emandako epean zehar, edota eskaera egiten duenaren autonomiaren balorazioari buruz Arabako Foru Aldundiaren derrigorrezko txostena eskatu behar denean eta, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluan aurreikusten diren gainerako kasuetan.

Aurreko atalean aurreikusitako epea berariazko ebazpenik eman gabe eta ebazteko betebeharraren kalterik gabe igarota, eskaera ezetsitatzat jo ahal izango da, interesatuari aukerako berraztertze-errekurtsoa edota administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzea ahalbidetzearen.

Eskaera onartzen duen ebazpenak honako hauek ere jaso beharko ditu:

- Hala badagokio, eskaera zerbitzuaren eskatzaile-zerrendan sartzea.
- Prestazioa ematea, honako hauek zehaztuta: iraupena, mota, intentsitatea eta zerbitzuaren kostua. Era berean, onuradunari dagokion ekarpen ekonomikoa.
- Ebazpen-proposamenak hau ere jasoko du: zerbitzu edo diru-prestazio baterako eskubidea aitortzeak eskatzailea eta, hala dagokionean, bere legeko ordezkaria edo izatezko zaintzailea behartu egiten duela eskudun organoari jakinaraztera eskubide horri eragin diezaiokeen bere egoerako edozein aldaketa, aldaketa gertatzen denetik 15 egun naturaleko epean.

Ebazpenean eskaerari uko egiten bazaio, horren arrazoiak adierazi beharko dira. Eskaera honako egoeraren bat gertatzen denean ezeztatuko da:

- 8. artikuluan jasotako sarbide-baldintzak ez betetzea.
- Eskaeran adierazitako beharrak eskatzaileak berak eta/edo familiako kideen laguntzaz eta/edo beste baliabide pertsonal batzuez bete ahal izatea.
- Laguntzaren ezaugarriak edo eskatzailearen bizitokia dela-eta, zerbitzu hori ematea beste administrazio publiko baten eskumena izatea.
- Zerbitzuak erabiltzailearentzat nahiz zerbitzua ematen duen langilearentzat arrisku fisiko eta/edo psikikoak sor ditzakeela baloratzea.
- Behar bezala arrazoitutako beste zio batzuk.

Ebazpena legeak agintzen duen epean jakinaraziko da, dagozkion baldintzetan. Horren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakioko dagokion organoari. Zuzenean ere egin daiteke administrazioarekiko auzien ordena jurisdikzionalen, lege ezarritako epean eta baldintzetan.

Onespeneko ebazpena zerbitzua ematen duen erakundeari ere jakinarazi beharko zaio. Erakunde horrek zerbitzua sinatutako kontratuan jasotzen den epean eman beharko du.

16. artikulua.- Premiazko egoerak

Salbuespen gisa, eta beharra muturrekoa eta larria denean, udal gizarte-zerbitzuek prestazioa berehala ematen hastea proposa dezakete, eta larrialdiko prozeduraz izapidetuko da.

Gizarte-zerbitzuek, hala badagokio, zerbitzua ematen duen erakundeari jakinaraziko diote zerbitzuaren larritasuna, eta erakundeak gehienez 48 orduko epean eman beharko du.

Gero, egutegiko 15 eguneko epean, eskabidea ohiko prozedurari jarraituz izapidetuko da.

2. ATALA. ZERBITZUAN ONARTU ETA ERABILTZEA.**17. artikulua.- Zerbitzuan onartzea**

Zerbitzua jasotzeko zerrendako ordenaren arabera erabakiko da. Horretarako, Araudiaren I. eranskinean ezarritako irizpideen arabera egindako eskaeren balorazioaren ondoren lortutako puntuazio globala hartuko da kontuan.

Puntuazio bera duten eskaeretan, lehentasuna mendekotasuna duten eta horren arriskuan diren pertsonen eskabideek izango dute (MDD 23 eta 24).

IV. KAPITULUA ZERBITZUA EGOKITZEA ETA ZERBITZUAREN JARRAIPENA**18. artikulua. Jarraipena eta ebaluazioa.**

Oinarrizko gizarte-zerbitzuek etengabeko jarraipena egingo dute, zerbitzua onuradunen beharrezari egokitzen zaien ikusteko. Hala, dagozkien aldagetak proposatuko dituzte eta, onuradunekin batera, proposatutako helburuak lortu diren ebaluatuko dituzte onuradunekin batera. Era berean, etxera bertara joateko aukera ere izango dute, hara joan beharra ikusiz gero, eta baita aldian behin Etxerako Laguntza ematen duten laguntzaileekin egoteko ere.

Ebaluazioak egin ahal izango dira aldian-aldian, dela onuradunak dela zerbitzua ematen duen erakundeak hala eskatuta. Zerbitzua ematen duen erakundeak eskaturik edo protokolo eta kontratuetan zehaztutako eran ere egin daitezke.

19. artikulua. Egokitzapen-aldia

Zerbitzuan sartu eta lehen hiru hilabeteetan, ulertuko da erabiltzaileak zerbitzuaren funtzionamendura eta ezaugarrietara egokitzeko aldian daudela. Gizarte-zerbitzuetako teknikariek edota zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresetako profesionalek une oro aipatuko dituzte sortzen diren arazoak, eta egokitzapen aproposa lortzeko beharrezko irtenbideak bilatuko dituzte.

Erabiltzailearekin batera irtenbideren bat aurkitzen saiatu arren zaila bada erabiltzailea zerbitzura edo zerbitzua erabiltzaileari egokitzea, edo ondorioztatzen bada zerbitzuak ez dituela pertsonaren beharrak asetzen, baloratu egingo da egoera eta proposamen bat egingo da, aldez aurretik oinarritzko gizarte-zerbitzuek txostena burututa.

Egindako proposamena erabiltzaileari helaraziko zaio, eta hark 15 egun izango ditu alegazioak egiteko.

Alegazioak aztertu eta gero, behin betiko proposamena aurkeztuko zaio organo eskudunari, zeinak ebazpen arrazoituaz ebatziko baitu. Pertsona zerbitzutik ateratzea erabakiz gero, beste aukera bat proposatuko da, halakorik badago.

V. KAPITULUA ZERBITZUA ETETEA ETA IRAUNGITZEA

20. artikulua. Zerbitzua etetea eta iraungitzea

20.1. Zerbitzua aldi batez etetea

Dagokion espedientea bideraturik, zerbitzua aldi batez etengo da eskumena duen organoak emandako ebazpenaz, aldez aurretik interesdunari entzun eta gero. Ebazpen hori erabiltzaileari eta, hala badagokio, zerbitzua eskaintzen duen erakundeari jakinaraziko zaie. Etxerako Laguntza Zerbitzua honako arrazoi hauengatik etengo da:

- Erabiltzailea aldi baterako ospitaleratzten bada.
- Erabiltzailea aldi batean etxebizitzan ez badago, baliabide sozial eta soziosanitarioez baliatu beharrez.
- Azken zerbitzuaz geroztik, laurogeita hamar (90) egun baino epe motzagoetan etxetik kanpo bada. Aldi hori egoera berezietan luza daiteke. Erabiltzailea familiako kideen etxeetan txandakatuta bizi bada, aldi hori txanden epeen arabera luzatuko da.
- Erabiltzaileak 10. artikuluan jasotako betebeharren bat betetzen ez badu, ez-betetze hori zerbitzua eteteko arrazoi ez denean.
- 8. artikuluan ezarritako betekizunetakoren bat aldi batez galtzen badu.

Etxean aldi batez ez egoteagatik zerbitzua eteten denean, erabiltzaileek idatziz egoera horren berri eman behar dute gutxienez 7 egun lehenagotik, behar bezala arrazoitutako egoeretan izan ezik, halakoetan larrialdiagatik ezinezkoa denean aurrez abisatzeko epe hori betetzea.

Etxerako laguntza zerbitzuaren erabiltzaileek zerbitzua aldi batean erabiltzeari uzten badiote, ez da preziorik kobratuko etete hori jarraiko 7 egun natural baino gehiagokoa bada. Horretarako, erabiltzaileek egoera horren berri eman behar dute, idatziz eta gutxienez 7 egun aurretik, behar bezala arrazoitutako egoeretan izan ezik, halakoetan larrialdiagatik ezinezkoa denean aurrez abisatzeko epe hori betetzea. Zerbitzua erabili

gabe jarraiko 7 egun natural baino gutxiago egon izan bada, orduan ordaindu egin beharko dute esleitutako prezio publikoa.

20.2. Zerbitzua iraungitzea.

Dagokion espedientea bideratu eta gero, eskumena duen organoak ebazpena emango du eta zerbitzuko bajak ezarriko dira, aldez aurretik interesatuari entzun eta gero. Ebazpen hori erabiltzaileari eta zerbitzua eskaintzen duen erakundeari jakinaraziko zaie.

Etixerako laguntza zerbitzua arrazoi hauengatik iraungiko da:

- Erabiltzaileak edo legezko haren ordezkariak idatziz uko egitea.
- Zerbitzua emateko ebazpenean aurreikusitako prestazio-epea amaitzea.
- Erabiltzailearen heriotza
- Erabiltzailea beste udalerrri batera lekualdatzeagatik, familiako kideen arteko txandakatzea kontuan hartu gabe.
- Onuraduna Etixerako Laguntza Zerbitzuarekin bateragarria ez den beste baliabide edo programa batean sartzea.
- Zerbitzua ematea sortu zuen beharra desagertzea.
- Zerbitzua emateko kontuan hartu diren datuak ezkutatzea edo datu faltsuak ematea.
- Zerbitzuan sartzeko betekizunetako bat behin betiko galtzea.
- Zerbitzua ematen segitzeko eskatutako dokumentazioa ez aurkeztea.
- 30 eguneko epean gizarte- eta ekonomia-egoera aldatu izanaren berri ez ematea.
- Aldi baterako zerbitzuaren etenaldia amaitu eta gero, etxera ez itzultzea.
- Zerbitzua ematen duten langileei fisikoki edo psikologikoki eraso egitea.
- Araudi honetan erabiltzaileentzat zehazten diren betebeharrak behin eta berriz ez betetzea (erreziboak epez kanpo ordaintzea, behin eta berriz ordaindu gabe izatea...).
- Erabiltzailearentzat nahiz zerbitzua ematen duenarentzat arrisku fisikoak eta/edo psikikoak egotea. Horretarako, udal zerbitzu teknikoek aldez aurreko balorazioa egin behar dute.
- Behar bezala arrazoitutako bestelako batzuk.

Zerbitzua iraungitzeko ebazpena eman eta gero, erabiltzaileak berriz ere zerbitzuan sartu nahi duela adierazten badu, beste eskaera bat egin beharko du, eta eskaera hori Araudi honetan zehaztutakoari jarraituz izapidetuko da.

Iraungitakoan erabiltzaileak zerbitzuaren ordainketa batzuk egin gabe baldin baditu, ordaintzeko eskatuko zaio zerbitzua berriz eman aurretik.

VI. KAPITULUA ZERBITZUAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

21. artikulua. Etxerako Laguntza Zerbitzuaren prezio publikoa

Etxerako Laguntza Zerbitzuagatik erabiltzaileak ordaindu beharreko prezioa zerbitzu hori ematen duenak unean-unean ezarritako prezio publikoetan zehazten dena izango da.

Ez zerbitzua ematen duen langileak ez zerbitzua esleituta duen enpresak, ez dute aurreko paragrafoan adierazitako diruaz gainerako ezer ere onartuko, ez dohaintzarik ez ordainketa gehigarririk. Zerbitzua esleitua zaion enpresak zaindu behar du baldintza hori betetzea.

22. artikulua. Finantzazioa

Zerbitzuak honako hauen kargura finantzatuko dira:

- Onuradunak zerbitzuaren finantzaketan parte hartu beharko du, eta dituen baliabide ekonomikoak kontuan harturik eskumena duen organoaren ebazpenean ezartzen den kopurua emateko sinatutako konpromisoa onartzen du, zerbitzua ematen hasteko nahitaezko baldintza gisa, eta dagokion ordenantza fiskalak horren gainean jasotzen duenari jarraituz.
- Orduko ordaindu beharreko prezioari onuradunak, dagokion ordenantza fiskalean jasotzen den arabera kalkulatuta, orduko ordaindu beharreko ekarpenari kenduko zaion zenbatekoa Administrazio Publikoaren kargura izango da.

23. artikulua. Zerbitzuaren erabiltzailearen ekarpena

Araudi honetan araututako zerbitzuen erabiltzaileak zerbitzuaren prezio publikoa ordainduko du. Prezio hori bere gaitasun ekonomikoa kontuan hartuta kalkulatu da, dagokion ordenantza fiskalean ezarritako baldintzetan.

Erabiltzailearen ekarpena dagokion ordenantza fiskalean jasotzen diren elementuen arabera ezarriko da.

Gaitasun ekonomikoari buruzko datuak faltsutu edota ezkutatzeak zerbitzuaren eskaeraren artxibatzea ekarriko du, edo iraungitzea, jada emana baldin bazegoen, egintza horietatik etor litezkeen erantzukizunen kalterik gabe. Eskumena duen administrazioak erabiltzaileari prezioa ordaintzean laguntza edo hobariren bat eman badio, hori itzularazteko prozedura hasiko da.

Norberaren ekarpenaren baldintzetan edo egoeretan aldaketaren bat dagoenean, ekarpen hori berrikusi egingo da, ofizioz edo erabiltzaileak edo bere ordezkariak hala eskatuta, dagokion ordenantza fiskalak ezarritako baldintzetan.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Ettxerako Laguntza Zerbitzuaren bitartez abian jarri ahal izango dira erabiltzailea bere etxebizitzan eta ingurunean jarraitzea laguntzen duten esperientzia/jarduera/prestazio berritzaile eta ez-ohikoak.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudiaren laburpen bat prestatuko da erabiltzaileei emateko.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Gaian eskumena duen udal organoak irizpideak jasotzen dituen eskuliburu bat prestatuko du. Eskuliburua erabiltzaileen eskura egongo da, eta bertan jasoko da erabiltzaile bakoitzari zerbitzua zenbat denboraz emango zaion, betiere 6. artikulua 2. atalean ezartzen diren mugen barruan, eta hori aplikatuko dute Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko langileek.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Araudi honetako arauekin kontraesaneari dauten maila bereko nahiz txikiagoko arau guztiak indargabetuta geratu dira.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau 2026ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

I ERANSKINA
ZERBITZUA JASOTZEKO BAREMOA

Zerbitzuan jasotzeko baremoak eskatzaileen zerrendarako ordenamendu irizpideak ezartzen ditu eta zerbitzuan sartzeko lehentasuna, gizarte diagnostikoaren arabera.

Sartzeko baremoa zehazteari dagokionez, eskatutako zerbitzuak pertsona bati baino gehiagori eragiten badio, laguntza behar handiena duen pertsonaren egoera bakarrik baloratuko da, egoera ekonomikoaren dimentsioa zehaztean

BAREMOAREN EGITURA:

DIMENTSIOAK	PUNTUAZIO TARTEAK
Eguneroko jarduerak egiteko laguntzaren beharra (Oinarrizkoak)	<u>0-30</u>
Eguneroko jarduerak egiteko laguntzaren beharra (Instrumentalak)	<u>0-10</u>
Elkarbizitza eta gizarte sostenguko egoera	<u>0-30</u>
Etxebizitza edo bizitokiaren egoera	<u>0-10</u>
Egoera ekonomikoa	<u>0-20</u>
Guztira	<u>0-100</u>

I.- EGUNEROKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZAREN BEHARRA
(OINARRIZKOAK)

Pertsonak behar duten laguntza maila baloratzeko datza, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko garaian (jan, jantzi, norberaren garbiketa, besteak beste), Horrela, pertsona horiek duten autonomia maila mantentzea eta sustatzea da helburua, eta bizi kalitate onarekin bizitzea beren ingurunean.

Balorazio hori egiteko, Mendekotasuna Baloratzeko Baremoan (MBB) lortutako emaitza oinarri izango da, honakoari dagokionez:

Laguntzaren beharra zehazteko BAREMOA	Puntuak	
Baloratu ezinak	0	☐
MBB 0-22 puntu	5	☐
MBB 23-49 puntu	10	☐
MBB 50-74 puntu	20	☐
MBB 75-100 puntu	30	☐
EGUNEROKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA BEHARRARI DAGOKION PUNTUAZIOA (OINARRIZKOAK) (Gehienez 30 puntu)		☐

II.- EGUNEROKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZAREN BEHARRA (INSTRUMENTALAK)

Pertsonak behar duten laguntza maila baloratzean datza, jarduera instrumentalak egiterako garaian (etxetresna elektrikoak, erosketak, eta abar). Horrela, pertsona horiek duten autonomia maila mantentzea eta sustatzea da helburua, eta bizi kalitate onarekin bizitzea beren ingurunean.

Balorazio hori egiteko, hurrengo baremoa erabiliko da:

Jarduera instrumentaletarako Baremoa	Puntuak	
Etxeko tresnak (garbigailua, mikrouhina, sukalde, berogailua...) eta komunikabideak erabiltzea (irratia, telefonoa, telebista)	BAI: 0	☐
	EZ: 1	☐
Etxeko lanak (hautsa kendu, erratza pasatu, harrikoa egin, ohea atondu, izarak aldatu, aspiragailua, plantxa,...)	BAI: 0	☐
	EZ: 1	☐
Erosketak (elikagaiak, medikazioa, arropa, etxeko tresnak eta abar erosi)	BAI: 0	☐
	EZ: 1	☐
Elikagaiak prestatzea (otorduak prestatu, aldeztu aurretik prestatuta dauden jakiak berotu)	BAI: 0	☐
	EZ: 1	☐
Ingurunean arazorik gabe ibiltzea (garraio publikoa erabili, udalerri barruan egunez zein gauez galdu gabe ibili)	BAI: 0	☐
	EZ: 3	☐
Kudeaketa ekonomiko-administratiboak eta medikoak (dirua atera, ordainagiriekin moldatu, medikuarenera joan...)	BAI: 0	☐
	EZ: 3	☐
EGUNEROKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZAREN BEHARRARI DAGOKION PUNTUAZIOA (INSTRUMENTALAK) (Gehienez 10 puntu)		☐

III.- EIKARBIZITZA ETA GIZARTE SOSTENGUKO EGOERA:

Beharrak betetzeko pertsonak duen laguntza maila ezagutzea da helburua, honako aldagai hauek irizpidetzat hartuta:

- ☐ Elkarbizitza egoera: Bakarrik ala norbaitekin bizi den. Beste adindunekin bizi den (senitartekoak edo lagunak), edo beste senitarteko edo lagunekin.
- ☐ Sare informalki duen ala ez, eta, baldin badago, sare horrek laguntza emateko eta hurbiltzeko dituen aukerak (senitarteko eta / edo lagunak), eta zer laguntza mota ematen duen.

Balorazio hori egiteko, hurrengo baremoa erabiliko da:

Baremo Sozio-Familiarra	Puntuak	
1.- Bakarrik edo lagunduta bizi den pertsona, edo baztertuta dauden adingabeak: tratu txar fisiko edo psikikoak jasotzen dituztenak, abusu ekonomikoa jasaten dutenak, oinarritzko arreta falta edo bazterketa-egoeran daudenak.	30	☐
2.- Bakarrik edo lagunduta bizi den pertsona, familiaren edota gizartearen babesik gabe: seniderik ez duelako, edo ohiko zaintzaileak ezin diolako eman beharreko arreta arrazoi objektibo batengatik, edo familian arazoak edota senideekin hauste larria izateagatik. / Familiak arriskupean dauden adingabeekin.	25	☐
3.- Bakarrik bizi den pertsona, familiaren edota gizartearen gutxieneko babesa duena baina bere beharrak asetzeko nahikoak ez direnak. / Gehiegizko zamak edo egoera sozial ezegonkorak dituzten familiak.	15	☐
4.- Bakarrik bizi den pertsona (edo mendekotasun/desgaitasunen bat duen pertsona batek lagunduta), familia edo gizartearen babesa dauka zenbait laguntza ematen diotelako, baina behar duen arretarako ez da nahikoa.	10	☐
5.- Bakarrik bizi den pertsona (mendekotasunen bat ez duen pertsona batek lagunduta), familia edo gizartearen babesa dauka, baina behar duen arretarako ez da nahikoa.	5	☐
6.- Bakarrik edo lagunduta bizi den pertsona eta familia edota gizartearen babesa dauka, erraz eskuragarria.	0	☐
EGOERA SOZIO-FAMILIARRARI DAGOKION PUNTUAZIOA (Gehienez 30 puntu)		☐

IV.- ETXEBIZITZA EDO BIZITOKIAREN EGOERA

Etxebizitzaren edo bizitokiaren ezaugarriak balioztatzean datza; izan ere, hauei eragin diezaioke: Era autonomoan moldatzeari, ingurunearen kontrolari, aukeratzeko ahalmenari, baita laguntza eta/edo sostengua jasotzeko aukera ere.

Aintzat hartzeko aldagaiak dira iristen erraza izatea, bizitzeko egokia izatea eta ekipamendua, honako baremoaren arabera:

Etxebizitza edo bizitokiaren egoerarako BAREMOA			
IRISGARRITASUNA		Puntuak	
<i>Eraikinaren kanpoaldea</i>	➤ Ez dago arazorik eraikinean sartu ahal izateko	0	☐
	➤ Etxebizitzara heltzeko eskailerak igo eta jaitsi behar dira edo hesi arkitektonikoren bat zeharkatu behar da Herri-erdigunetik aldentuta dago eta oinarritzko baliabideak eskuratzeko zailtasunak daude	1	☐
<i>Eraikinaren barrualdea</i>	➤ Ez dago arazorik eraikinean sartu ahal izateko	0	☐
	➤ Igogailu edo etxebizitzara heltzeko atarian eskailerak daude, ezin direnak saihestu. // Eraikinak ez dauka igogailurik	1	☐
<i>Etxebizitzaren barrualdea</i>	➤ Ez dago inolako hesi arkitektonikorik	0	☐
	➤ Badaude hesi arkitektonikoak etxean arazorik gabe ibili eta mugitzea eragozten dutenak, ez dauka segurtasun- edota egokitze-neuririk	2	☐
IRISGARRITASUNA GUZTIRA (A+ B+ C)			☐
BIZIGARRITASUNA		Puntuak	
➤ Ez dauka arazorik etxebizitzan bizitzeko		0	☐
➤ Mantentze egokia behar du		1	☐
➤ Egitura arloko arazoak ditu (hezetasuna, ez dago komunik, sukalderik; ez dago espazio nahikorik; itoginak; ur- eta elektrizitate-instalazio eskasak)		3	☐
BIZIGARRITASUNA GUZTIRA			☐
EKIPAMENDUA			Puntuak
	BADAGO	BADABIL	
Sukaldea	☐	☐	
Berogailua/termoa/galdara	☐	☐	
Berokuntza-sistema	☐	☐	
Garbigailua	☐	☐	
Hozkailua	☐	☐	
Telefonia	☐	☐	
➤ Etxebizitza baten ekipamendurako oinarritzkoak diren elementu guztiak ditu eta ibiltzeko egoera onean daude		0	☐
➤ Gutxienez 4 elementu ditu, edo elementu guztiak ditu eta baten bat ez dabil, baina konpondu daiteke		1	☐
➤ Ekipamendurako oinarritzkoak diren 4 elementu baino gutxiago ditu edota baten bat ez dabil eta ezin da konpondu edo erabiltzeak berak ezin du beste batekin ordeztu		3	☐
EKIPAMENDUA GUZTIRA			☐
ETXEBIZITZAREN EGOERARI DAGOKION PUNTUAZIOA (Gehienez 10 puntu)			☐

V.- EGOERA EKONOMIKOA

Egoera ekonomikoa baloratzeko, Ordenantza Fiskalean ezartzen diren baldintzekin bat, familiak hilean jasotzen duten aurreikusitako diru-kopurua kontuan hartuko da. Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren (LGS) % 181,70tik behera (1.500.-€), 11 tarte zehaztuko dira arian-arian puntuatuko direnak:

Familiaren hileko egoera ekonomikorako BAREMOA	Puntuak	
LGSren % 60,57raino	20	☐
LGSren % 60,58–72,68	19	☐
LGSren % 72,69 –84,79	18	☐
LGSren % 84,80–96,91	16	☐
LGSren % 96,92%–109,02	14	☐
LGSren % 109,03–121,13	12	☐
LGSren % 121,14–132,25	10	☐
LGSren % 132,26–145,36	8	☐
LGSren % 145,37–157,47	6	☐
LGSren % 157,48–169,59	4	☐
LGSren % 169,60–181,69	2	☐
LGSren % =/>181,70	0	☐
EGOERA EKONOMIKOARI DAGOKION PUNTUAZIOA (Gehienez 20 puntu)		☐

Durana, 2025ko urriaren 30a

Alkatea

M^a Blanca Antépara Uribe.

**GIZARTE-ETA HEZKUNTZA-ARLOAN ETA ARLO PSIKOSOSIALEAN ESKU
HARTZEKO ZERBITZUAREN UDAL ARAUDIA****I. TITULUA****1. artikulua - Xedea eta aplikazio-eremua**

Araudi honen xedea da Arratzua-Ubarrundiako udalerrian gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua, haurtzaroan, arautzea.

2. artikulua - Ezaugarriak

Zerbitzu honek gizarteratzea sustatu eta pertsona batzuen babesgabetasun-egoeraren aurka borrokatu nahi du, eta, horretarako, gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean harreman-prestazioen multzo bat eskaintzen ditu, banaka, familiak edota taldeka.

3. artikulua - Helburuak

Zerbitzu horren helburu orokorrak honako hauek dira:

- a) Erabiltzaileek norberaren, familiaren edo taldearen gaitasunak bereganatzea eta garatzea (jarrerak, gaitasunak, ezagutzak, irizpideak, jarraibideak, trebetasunak), haien garapen autonomoa, haien gizarteratzea eta familia- eta komunitate-ingurunean bizikidetzaren egokia ahalbidetzeko.
- b) Erabiltzaileek ohitura, jokabide, pertzepzio, sentimendu eta jarrera desegokiak ordez, beste egokiago batzuk erabiltzea.

II. TITULUA

I. KAPITULUA - ZERBITZUAREN PRESTAZIOAK

4. artikulua - Prestazioak

1.- Aipatutako helburuak betetzeko, gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuak prestazio hauek eman ahal izango ditu Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparruan:

- a) Informazioa.
- b) Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzea.
- c) Jarraipenaren balorazioa.
- d) Gizarte-laguntza (akonpainamendua).
- e) Bitartekaritza.

2.- Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuak honako programa hauek barne hartu ahal izango ditu:

- a) Prebentzio komunitarioaren eta bazterkeriaren prebentzioaren esparruko programak:
 - Gizarteratzeko ibilbidean laguntzea.
 - Gizarteratzeko espazioak.
 - Kale Hezkuntzako Programa.
- b) Umeak babesteko programak:
 - Haurren eta familien eguneko zentroa.
 - Familian esku hartzeko programa espezializatua.
 - Ikerketa edota balorazio psikosozialeko txostenak egiteko programa.
 - Laguntza psikologikoa eta psikopedagogikoa.

II. KAPITULUA - ERABILTZAILEAK

5. artikulua - Erabiltzaileak zehaztea

1.- Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuaren lehentasunezko arreta hurrengo hauek izango dute:

- 1.1 Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak.
- 1.2 Mendekotasun-arriskuan dauden pertsonak.
- 1.3 Babesgabetasuneko arrisku arineko edo ertaineko egoeran dauden adingabeak. Babesgabetasun larriko arrisku-egoeran dauden pertsonak, adingabeak zein helduak izan, kanpoan geratuko dira, eta haien arreta Familiekiko

gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuei dagokie.

Eta, gainera, gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean laguntza behar dutenak, honako hauetarako:

- a) Familia-bizikidetzaren hobetzea.
- b) Pertsonak eta familiako kideak zaintzeko eta artatzeko trebetasunak hobetzea.
- c) Komunikazio- eta harreman-trebetasunak hobetzea.
- d) Eskubide eta zerbitzuei buruzko informazioarako sarbidea erraztea eta sustatzea.
- e) Garapen autonomoa erraztea edo ahalbidetzea.
- f) Sustatzea eta gizarteratzea erraztea.

2.- Honako egoera hauek aitortuta duten gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuetik kanpo geratzen dira:

2.1 Babesgabatasun larria helduengan, haurrengan eta nerabeengan.

2.2 Gizarte-bazterketa.

3.- Era berean, honako hauek ere gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuetik kanpo geratzen dira:

3.1 Gizarteratze-beharrizanei erantzuteko dauden eguneko zerbitzu edo zentroen erabiltzaileak.

3.2 Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako egoitzen erabiltzaileak.

6. artikulua -Bete beharreko baldintzak

Araudi honen 5. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean egoteaz gain, eskatzaileak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

1) Administrazio-betekizunak:

- a) Eskabidea egiten den egunean Arabako Lurralde Historikoko udalerriren batean errolatuta egotea, Gasteizen izan ezik, eta bertan errolatuta egotea zerbitzuak irauten duen bitartean.
- b) Agindu teknikoak adieraztea gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua baliabide egokia dela bere beharrizanei/egoerari erantzuteko.
- c) Eskaintako zerbitzuari berariazko baimena ematea. Halakorik ezean, tutoretza legez gauzatzen duenak adierazi ahal izango du baimen hori.

- d) Gizarteratzeko ibilbideetan eta guneetan laguntzeko programetarako, gizarte-bazterkeriako arrisku-egoera aitortua izatea.

2) Beharrian-baldintzak:

Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialeko laguntza honako honetarako behar du:

- a) Familia-bizikidetzaren hobetzeko;
- b) Kideen arreta- eta zaintza-trebetasunak hobetzeko;
- c) Komunikazio- eta harreman-trebetasunak hobetzeko.
- d) Garapen autonomoa hobetzeko.

7. artikulua –Erabiltzaileen eskubideak

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikuluan ezarritakoaz gain, gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuko erabiltzaileek honako eskubide hauek izango dituzte:

— Duintasuna: pertsona guztiei errespetu, zuzentasun eta ulermen osoz erantzun beharko zaie, modu pertsonalizatuan eta indibidualizatuan, haien lehentasunak, erlijio-edo kultura-faktoreak eta baldintza fisiko edo psikikoak kontuan hartuta. Hori guztia segurtasun- eta higiene-baldintza onenetan eta arrazoizko denbora-epeetan.

— Pribatasuna eta konfidentziasuna: haiei dagokien informazio pertsonal guztiari eragiten dio, bai intimitateari, bai pertsonari, bai espedientean edo pertsonalki eragiten dien edozein dokumentutan dauden datuen tratamenduari.

— Beharrianen ebaluazioa izatea: profesionalek beharrianen ebaluazio pertsonalizatua egin beharko dute, erabiltzailearen deskribapena, laguntza-sare naturalaren datuak eta beste zerbitzu batzuetan izan daitezkeen aurretiazko informazioak kontuan hartuta. Ebaluazio horren emaitzak pertsona bakoitzari jakinaraziko zaizkio, eta prestazioen eskaera onartzen ez bada, erreklamazio-bideen berri emango zaio.

— Banakako Arreta Pertsonalizatuko Plana: ebaluaziotik abiatuta, pertsona bakoitzak bere beharretara egokitutako arreta-plan indibiduala izan beharko du. Erraz ulertzeko lengoaia duen idatzia, erabiltzaileei eta haien hurbilekoei eman eta azalduko zaie. Bertan adieraziko dira prestazioak, horiek egiten dituzten pertsonak, koordinazioaz arduratzen den profesionala eta larrialdietarako harremanetarako telefonoa. Ebaluazioaren berrikuspena zein egunetan egiten den ere adieraziko da.

— Autonomia: pertsona guztiek dute modu independentean jarduteko eta pentsatzeko eskubidea, baita kalkulaturako arrisku-maila jakin batzuk beren gain hartuta ere. Beren bizimodua eta zein jarduera eta zerbitzutan parte hartu nahi duten aukera ditzakete, nahi dituzten erabakiak hartuz. Horretarako, informazio egokia eta ulergarria izan beharko dute.

— Informazioa jasotzeko eskubidea: erabiltzaileek eskubidea dute gizarte-zerbitzuetara jotzeko beharrezkoa den informazio guztia izateko. Informazio hori argi, zehatz eta ulergarri emango da.

— Zerbitzua EAEko hizkuntza ofizialetako edozeinetan jasotzeko eskubidea.

8. artikulua - Erabiltzaileen betebeharrak

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 10. artikuluan ezarritakoaz gain, gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuaren erabiltzaileek honako betebeharrak izango dituzte:

- Informazioa transmititzea: euren beharren ebaluazioa egin ahal izateko beharrezkoa, egiazkoa eta zehatza den informazioa emango dute, eta, Banakako Arreta Planean edo Arreta Pertsonalizatuko Plana egiteko beharrezkoa dena.
- Barne-araubidea betetzea: erabiltzaile diren zerbitzuaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko barne-arauak ezagutu eta beteko dituzte.
- Zerbitzua ematean esku hartzen duten profesionalen lana erraztea, laguntzea eta zuzen eta errespetuz tratatzea.
- Hitzorduek errespetatzea: zerbitzua emateko ezarritako datak eta orduak errespetatuko dira. Arrazoren batengatik ezinezkoa bada, behar besteko aurrerapenaz jakinarazi beharko dute.
- Organo eskudunari edozein aldaketa jakinaraztea, zerbitzua eskuratzeko eskubidea onartzeari eragin diezaiokeena, aldaketa gertatzen denetik 15 egun naturaleko epean.
- Udaleko teknikariei zerbitzua ematen den bitartean sortzen diren gaixotasun infekzioso-kutsakorren berri ematea, beharrezko babes-neurriak har ditzaten.
- Gaixotasun infekzio-kutsakorren edota gaixotasun mentalen kasuan dagokion tratamendua ez baztertea.

- Udaleko gizarte-zerbitzuek eskatzen dizkioten hitzorduetara joatea.

Betebehar horietakoren bat betetzen ez bada, zerbitzua eteteko edo azkentzeko prozedura hasiko da, araudi honetan araututako prozeduraren arabera.

III. KAPITULUA- ZERBITZUA ESKURATZEKO ETA JARRAIPENA EGITEKO PROZEDURA

1. ATALA- ZERBITZURAKO SARBIDEA

9. artikulua – Zerbitzua eskuratzeko eskaera

Araudi honetan araututako gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuan sartzea, interesdunak edo laguntza-neurriak hartzen dituenak eskatu ondoren egingo da, organo eskudunari zuzendutako inprimaki normalizatuan, eskatzaileak sinatuta eta Udalak horretarako gaituta duen edozein erregistroan aurkeztuta, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako beste erregistroetan edo moduan.

Zerbitzua eskuratzea borondatezkoa izango da, eta eskatzaileak bertan aktiboki parte hartzeko konpromisoa adierazi beharko du.

Prozesuaren edozein unetan, interesdunak bere eskaeran atzera egin dezake; kasu horretan, idatziz egin beharko du. Horrek espedientea artxibatzea ekarriko du, dagokion administrazio-ebazpena eman ondoren.

10. artikulua - Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak

Eskabideekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- 1) NANaren fotokopia edo indarrean dagoen beste edozein identifikazio-agiri baliokide.
- 2) Familia-liburua, familia-unitatean 18 urtetik beherakoak badaude.
- 3) Gizarte-zerbitzuen iritziz beharrezkoa eta egokia den beste edozein agiri.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikulua aplikatuz, herritarrek ez dute aurreko dokumentuetako edozein aurkeztu beharrik izango, dokumentu horietako edozein administrazioaren esku dagoenean. Udal- edo foru-mailako gizarte-zerbitzuek ezin badituzte agiri horiek bildu, berriz ere eskatu ahal izango diote interesdunari agiri horiek aurkezteko.

Eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioa osatu gabea edo akastuna bada, eskatzaileari eskatuko zaio 10 eguneko epean beharrezko dokumentazioa aurkezteko edo antzemandako akatsak zuzentzeko, eta jakinaraziko zaio, hala egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela.

Udalak eskatzailearen eta, hala badagokio, gainerako onuradunen datuak egiaztatuko edo bilduko ditu. Datu horiek araudi honetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea mugatu beharko dira.

Eskatzaileak edo, hala badagokio, gainerako onuradunek ez badute baimenik ematen aurreko apartatuan aurreikusitako datuak egiaztatzeko edo biltzeko behar diren kudeaketak egiteko, idatziz adierazi beharko dute. Egiaztatzerik ez badago, eskaerari uko egin zaiola ulertuko da, baldintzak ez egiaztatzeagatik.

Datuak faltsutu eta ezkutatzuz gero, zerbitzuaren eskatzaile-izaera galduko da, izan daitezkeen erantzukizunei kalterik egin gabe.

11. artikulua - Tramitazioa

Erabiltzaileen beharrianen ebaluazioa eta proposamen-txosten soziala egiteko, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean jasotako zehaztapenak hartuko dira kontuan.

A) BEHARRIZANEN BILAKAERA

Eskatzailearen beharrianen tramitazio, balorazio eta ebaluazioa eskatzailearen egoitzari dagokion Udaleko Gizarte Zerbitzuek egingo dute.

B) TXOSTEN SOZIALA-PROPOSAMENA

Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Gizarte Langintzako zerbitzu teknikoek Arreta Pertsonalizatuko Plana egingo dute. Horretan honako hauek zehaztuko dira:

- Zerbitzuan sartzeko eta eskabidea aurkezteko baldintzak betetzea.
- Eskatzailearen eta, hala badagokio, haren familia-unitatearen inguruabar pertsonalak, familiakoak eta sozialak.
- Gizarte Diagnostikoa eta laguntza-planaren proposamena.
- Hala badagokio, zerbitzua emateko proposamen arrazoitua.
- Hala badagokio, zerbitzua ukatzeko proposamen arrazoitua.

Udaleko Gizarte Zerbitzuak gehienez hilabeteko epea izango du espedientea izapidetzeko, eskaera sartzen denetik zenbatzen hasita.

12. artikulua. Espedientearen azterketa teknikoa eta proposamenaren balorazioa

Espedienteaz izapidetu ondoren, organo kudeatzaile eskudunari igorriko zaio, eta hark espedientearen azterketa teknikoa egingo du. Azterketa horretan oinarrituta, honako hauek zehaztuko dira:

- Arreta Plan Pertsonalizatuan aurreikusitako zerbitzuak egokiak diren ala ez.
- Zerbitzua hainbat modalitatetan ematen bada, eskatzailearen beharrianetara ondoen egokitzen den modalitatea.
- Hala badagokio, zerbitzuaren intentsitatea eta maiztasuna.

Horretarako, organo kudeatzaileak eskaerak ebaluatzeko beharrezkoa den Balorazio eta Orientazio Batzordea sortu ahal izango du.

13. artikulua.- Ebazpena

Eskaera aztertu eta baloratu ondoren, dagokion Balorazio eta Orientazio Batzordeak edo pareko organoak dagokion proposamen teknikoa egingo du, eta organo eskudunari igorriko zaio. Organo horrek ebazpen arrazoitua emango du, eskatutako zerbitzuan sartzeko eskaera onartuz edo ezetsiz.

Eskaera udal erregistroren batean sartu ondoren, gehienez bi hilabete barruan eman beharko da ebazpena. Epe hori eten egingo da jakinarazpenaren eta jakinarazpena bete bitartean eskaerak zuzentzea eskatzen denean, baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluan aurreikusitako gainerako kasuetan ere.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, eta ebazteko betebeharra alde batera utzi bada, eskabidea ezetsi egin dela ulertuko da, interesdunari aukerako errekurtsioa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzeko aukera emate aldera.

Baiezko ebazpenak honako alderdi hauek jaso beharko ditu:

- Zerbitzua ematea onartzen dela, honako hauek zehaztuta: zerbitzuaren tipologia, eragin-data eta iraupena.
- Ebazpenak adieraziko du, halaber, zerbitzurako eskubidea aitortzeak berekin dakarrela eskatzailearentzat eta, hala badagokio, haren legezko ordezkariarentzat edo izatezko zaintzailearentzat, eskubide horri eragin diezaiokeen edozein aldaketa organo eskudunari jakinarazteko betebeharra, aldaketa hori gertatzen denetik 15 egun naturaleko epean.

Ebazpena ezezkoa bada, arrazoitua izango da. Ukatzeko arrazoiak dira:

- 6. artikuluan jasotako baldintzak ez betetzea.

- Zerbitzua ematea beste administrazio publiko baten eskumena izatea, prestazioaren izaeragatik edo eskatzailearen bizilekuagatik.
- Zerbitzuak erabiltzaileari eta zerbitzua ematen duten langileei arrisku fisiko edota psikikoak eragin diezazkiekeen baloratzea.
- Behar bezala arrazoitutako beste arrazoi batzuk.

Ematen den ebazpenaren aurka (positiboa zein negatiboa), legeak eskatzen dituen epeetan eta formalitateekin jakinarazia izango dena, dagokion errekurtsua jarri ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera. Epe hori igaro eta errekurtsorik aurkeztu ez bada, ebazpena irmoa izango da ondorio guztietarako.

Onespen-ebazpena, hala badagokio, zerbitzua ematen duen erakundeari ere jakinaraziko zaio, eta hark zerbitzua emateko kontratuan agertzen den epean gauzatu beharko du.

2. ATALA.- ZERBITZUAREN JARRAIPENA

14. artikulua.- Jarraipena eta ebaluazioa

Udaleko Gizarte Zerbitzuek zerbitzua onuradunen beharretara egokitzen den ikusteko etengabeko jarraipena egingo dute, dagozkion aldaketak proposatuko dituzte eta onuradunekin batera proposatutako helburuak lortu diren ebaluatuko dute.

Aldian behin ebaluazioak egin ahal izango dira, onuradunak eskatuta, zerbitzua ematen duen erakundeak eskatuta, administrazio kudeatzaileak eskatuta edo protokoloetan eta kontratuetan ezarritako moduan.

IV. KAPITULUA.- ZERBITZUA ETETEA ETA AZKENTZEA

15. artikulua.- Zerbitzua etetea

Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua eten egingo da honako arrazoi hauengatik:

- a) Erabiltzailea aldi baterako ospitaleratzea.
- b) Erabiltzailea aldi baterako ez egotea, baliabide sozio-sanitarioak eskuratu behar dituelako.

- c) Erabiltzailea urtean berrogeita bost (45) egun baino gutxiagoz aldi baterako ez egotea, zerbitzuan sartzeko azken egunetik aurrera. Aldi hori luzatu ahal izango da egoera berezietan.
- d) Erabiltzaileak 8. artikuluan ezarritako betebeharren bat ez betetzeagatik, horiek azkentzeko arrazoi ez direnean.
- e) 6. artikuluan ezarritako baldintzaren bat aldi baterako galtzea.

Aurreko paragrafoan zehaztutako d) edo e) etete-arrazoiak gertatuz gero, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak erabiltzaileari edo, hala badagokio, haren ordezkariari jakinarazi beharko dio, eta horiek 15 egun balioduneko epea izango dute alegazioak egiteko. Halaber, hala badagokio, zerbitzuaren kudeaketaz arduratzen den administrazioak gauzatu ahal izango du prozedura hori.

Alegazioen izapidea bete ondoren, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak proposamen bat egingo dio ebazteko eskumena duen organoari. Proposamen horren ordezkariak edukia honako hauek izango dira:

- a) Zerbitzuaren titular gisa jarraitzea.
- b) Eskubidea etetea eta zerbitzuaren titular izaera aldi baterako galtzea.

Proposamena jaso ondoren, ebazteko eskumena duen organoak ebazpen arrazoitua emango du.

Ematen den ebazpenaren aurka (positiboa zein negatiboa), legeak eskatzen dituen epeetan eta formalitateekin jakinaraziko dena, dagokion errekurtsioa jarri ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera. Epe hori igaro eta errekurtsorik aurkeztu ez bada, ebazpena irmoa izango da ondorio guztietarako.

16. artikulua.- Zerbitzua azkentzea

Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua honako arrazoi hauengatik azkenduko da:

- a) Erabiltzaileak edo haren legeko ordezkariak berriaz uko egitea.
- b) Onarpenaren-ebazpenean ezarritako zerbitzuaren iraupen-epea igarotzea.
- c) Erabiltzailearen heriotza.
- d) Arreta pertsonalizatuko programa aldatzea, aldez aurretik aitortutako zerbitzua jada egokia ez dela zehazten duena.

- e) Onuraduna 5.3. artikuluan jasotako baliabide edo programa iraunkor batean sartzea.
- f) Zerbitzua ematea eragin zuen beharraren arrazoia desagertzea.
- g) Zerbitzua emateko kontuan hartu diren datuak ezkutatzea edo faltsutzea.
- h) Zerbitzuan sartzeko eskatutako baldintzaren bat galtzea modu jarraituan.
- i) Zerbitzuaren jarraipena egiteko eska daitekeen dokumentazioa ez aurkeztea.
- j) Zerbitzua emateko garrantzitsua den egoera sozio-pertsonalaren aldaketei buruzko informaziorik ez ematea 15 eguneko epean.
- k) 6 hilabete baino gehiagoko etenaldi jarraitua igarotzea, etenaldi hori eraginkorra den egunetik zenbatzen hasita, edo aldi baterako etenaldiaren epea igaro ondoren zerbitzura itzuli ez izana.
- l) Urte naturalaren barruan 45 egun baino gehiagotan zerbitzua hartzera ez joatea, justifikatu gabe.
- m) Zerbitzua ematen duten langileei edo zerbitzuaren erabiltzaile kideei eraso fisikoa edo psikologikoa egitea.
- n) Arautegi honetan aurreikusitako erabiltzaileen betebeharrak behin eta berriz ez betetzea.
- o) Erakunde sanitario edo sozio-sanitarioen etengabeko laguntza eskatzen duen osasun-egoera izatea.
- p) Dagokion tratamenduari uko egitea, gaixotasun infekzio-kutsakor bat edota gaixotasun mental bat izanez gero.
- q) Langile profesionalentzat edo gainerako erabiltzaileentzat arriskutsuak diren jokabide-nahasmenduak izatea.
- r) Zehapen bat jaso izana, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean aurreikusitako baldintzen arabera.
- s) Behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuk.

Aurreko paragrafoko d) letratik s) letrara bitartean zerbitzua azkentzeko deskribatutako arrazoietakoa bat gertatzen bada, udaleko Gizarte Zerbitzuak edo administrazio kudeatzaileak erabiltzaileari edo, hala badagokio, haren ordezkariari

jakinarazi beharko dio, eta horiek 15 egun balioduneko epea izango dute alegazioak egiteko.

Alegazioen izapidea bete ondoren, unitate teknikoak ebazteko eskumena duen organoari proposamen bat egingo dio. Proposamen horren eduki alternatiboak honako hauek izango dira:

a) Zerbitzuaren titular gisa jarraitzea.

b) Eskubidea azkentzea eta zerbitzuaren titular izaera behin betiko galtzea.

Proposamena jaso ondoren, ebazteko eskumena duen organoak ebazpen arrazoitua emango du.

Ematen den ebazpenaren aurka (positiboa zein negatiboa), legeak eskatzen dituen epeetan eta formalitateekin jakinaraziko dena, dagokion errekurtsoa jarri ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera. Epe hori igaro eta errekurtsorik aurkeztu ez bada, ebazpena irmoa izango da ondorio guztietarako.

Aurrekoa ez da aplikatuko eskubidea heriotzagatik edo uko egiteagatik azkentzen den kasuetan; kasu horretan, organo eskudunak espedientea artxibatuko du, horri buruzko berriazko ebazpena eman ondoren.

Erabiltzaileak, azkentze-ebazpen baten ondoren, zerbitzuan berriro hasteko borondatea erakusten badu, beste eskaera bat egin beharko du, eta arautegi honetan zehaztutakoaren arabera izapidetuko da.

V. KAPITULUA. ZERBITZUAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

17. artikulua.- Doako zerbitzua

Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua doakoa da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko 185/2015 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

18. artikulua.- Finantzaketa

Zerbitzua Herri Administrazioak finantzatuko du.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Arautegi honetan jasota ez dauden kasu guztietan edo bertan jasota ez dauden kasu berezi guztietan, organo eskudunak gaitasun osoa izango du kasu bakoitzerako egokitzat jotzen dituen neurriak proposatzeko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira maila bereko edo beheragoko mailako arau guztiak, arautegi honetan xedatutakoaren aurkakoak direnean.

AZKEN XEDAPENA

Arautegi hau 2026ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

Durana, 2025ko urriaren 30a

Alkatea

M^a Blanca Antépara Uribe.

I. ERANSKINA**PRESTAZIOAK****A) Informazioa**

Pertsona, familia eta erabiltzaile-taldee beren gizarteratzea, autonomia eta gizarte-ongizatea erraztu dezaketen eskubide, zerbitzu eta prestazio ekonomikoei buruzko ezagutza egokia eta nahikoa garaiz eta behar bezala eskuratzeko aukera ematen dien prestazioa.

B) Jarraipenaren balorazioa

Arreta Pertsonalizatuko Planaren aldizkako ebaluazioak egitea eskatzen du, sakontasun handiagoarekin edo txikiagoarekin.

C) Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzea

Denbora gehiago edo gutxiago luzatzen den prozesu bat ezartzea eskatzen duten prestazio teknikoak. Prozesu horren bidez, erabiltzaileek beren kabuz moldatzeko edo gizarteratzeko baliagarriak diren ezagutzak, jarrerak, ohiturak edo gaitasunak eskuratzen dituzte.

D) Gizarte-laguntza (akonpainamendua)

Prestazio honen bidez, pertsona batek, profesional kualifikatu batekin elkarreraginean, bere garapen autonomia eta gizarteratzea hobetzen laguntzen duen laguntza-harreman batean parte hartzen du.

Intentsitate handiagoa edo txikiagoa izan dezake, pertsonaren laguntza-beharraren arabera. Erabiltzaileak eskatutako laguntzaren intentsitatea aldatu (eta, nahi izanez gero, murriztu) duen ibilbideak planteatu behar direla ulertzen da.

E) Bitartekaritza:

Gizarte-zerbitzuetako profesionalek gizarte-gaitasunak garatzera eta pertsonaren eta ingurune familiarraren, taldekoaren edo komunitarioaren arteko elkarreragina hobetzera bideratutako prozedura.

ZAINZAILEEI LAGUNTZEKO ZERBITZUAREN ARAUDIA**LEHENENGO TITULUA****1. artikulua.- Xedea**

1.- Araudi honen xedea zaintzaileei laguntzeko zerbitzua arautzea da (Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuaren 1.4 fitxa).

2. artikulua.- Zerbitzuaren definizioa

1. Zerbitzu honek mendekotasun-arriskuan edo egoeran dauden pertsonen laguntzeko sarea osatzen duten zaintzaileei beren burua zaintzeko ezagutzak, jarrerak eta trebetasunak eskuratzeko aukera eskaintzen die.
2. Zerbitzu horren bidez, mendekotasuna duten pertsonen zainketen eta zaintzaileen bizitzaren hobekuntza bultzatu nahi da.
3. Zaintza informalen erantzukizuna gehienbat familia-eremuko emakumeena denez, zerbitzuak ikuspegi hori txertatu behar du behar duten laguntzaren kontzepzioan eta zaintzaileen bizi-baldintzetan.
4. Zerbitzu honek eskaintzen duen laguntzak ez du inola ere esan nahi zaintzailea ordeztuko denik (premia horri dagozkion zerbitzuetan aurreikusitako atsedeen-modalitateetatik erantzuten zaio).

3. artikulua.- Helburuak

Zaintzaileei laguntzeko zerbitzuaren helburuak honako hauek dira:

- a) Zaintzaileek eskaintzen dituzten zainketen kalitatea hobetzen laguntzea.
- b) Ohiko zaintzaileen bizi-kalitatea hobetzen laguntzea, zaintzaileen beharrak eta bizi-baldintzak identifikatzean genero-ikuspegia txertatuz.
- c) Beste zaintzaile batzuen erantzunkidetasuna bultzatzea.
- d) Zaintza eta auto-zaintzako ezagutzak, jarrerak eta trebetasunak eskuratzen laguntzea.
- e) Mendekotasun-arriskuan edo egoeran dauden pertsonen etxean egoten laguntzea.
- f) Erabiltzaileen eta zaintzaileen datuak modu sistematikoan biltzea, sexuaren arabera bereizita.

BIGARREN TITULUA**I. KAPITULUA.- ZERBITZUAREN PRESTAZIOAK****4. artikulua.- Zerbitzuaren prestazioak**

1.- Zaintzaileei laguntzeko zerbitzuaren prestazioak Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan eta aplikatu beharreko gainerako araudian ezarritakoaren arabera egingo dira.

2.- Zerbitzu honetan, zehazki, honako prestazio hauek eman ahal izango dira:

- a) Oinarrizko prestazioak:
 - Informazioa, orientazioa eta prestakuntza

3.- Prestazio horiek araudi honen I. eranskinean garatzen dira.

II. KAPITULUA.- ERABILTZAILEAK**5. artikulua.- Erabiltzaileen betekizunak**

1.- Mendekotasun-arriskuan edo egoeran dauden pertsonen zaintzaile ez-profesionalak, ohiko zaintzaileak izan edo ez, eta senideak izan edo ez.

2.- 18 urtetik gorako pertsonak eta adingabe emantzipatuak.

3.- Zaindutako pertsona edo zainketaren ardura nagusia duen pertsona eskabidea aurkezten den udalerrian erroldatuta egotea eta bertan egotea.

4.- Baliabide horien erabiltzaileek honako baldintza hauek ere bete beharko dituzte:

- a) Nork bere burua zaintzeko edota zaintza-lanak egiteko laguntza behar izatea.
- b) Hala badagokio, zaintza egiteko eta erantzunkidetasuna handitzeko informazioa, orientazioa edota prestakuntza behar izatea (zaintzaileak, egungoak edo etorkizunean izan daitezkeenak, zainketaren ardura nagusia ez dutenak, eta norbere autonomiari laguntzeko baliabide komunitarioak).

6. artikulua.- Erabiltzaileen eskubideak

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren zorroa eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen dituen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan ezarritakoaz gain, erabiltzaileek honako eskubide hauek izango dituzte:

1. Zerbitzua diskriminaziorik gabe jasotzea, sexua, genero-identitatea edo sexu-orientazioa, arraza, erlijioa, ideologia edo beste edozein egoera pertsonal edo sozial dela-eta.
2. Beren eskubide eta betebeharren edukiari buruzko informazioa jasotzea, erraz ulertzeko moduan; hau da, eskubideak benetan baliatzeko aukera ematen duten informazio, partaidetza, iradokizun eta kexa-bideetara jotzeko eskubidea.
3. Errespetu osoz, zuzentasunez eta ulermenez artatuak izatea.
4. Beren premiak eta, ahal den guztietan, lehentasunak erabat errespetatuz tratatuak izatea.
5. Dagokien informazioaren pribatutasuna eta konfidentzialtasuna errespetatuz tratatuak izatea.
6. Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan erraz ulertzeko moduan arreta eta informazioa jasotzea, bakoitzak duen lehentasunaren arabera, eta, hizkuntza bat bera ere ulertzen ez badu, behar diren itzulpen eta interpretazio-baliabideak ematea, behar bezala ulertu ahal izateko.
7. Aldez aurretik, zerbitzuaren baldintzetan izandako edozein aldaketaren berri izatea.
8. Erreferentziako profesionala esleituta izatea.
9. Zerbitzuaren kalitatea, araudi honetan ezarritakoaren arabera.
10. Gaitasuna epailearen erabakiz mugatua duten pertsonen kasuan, legezko ordezkarien bitartez egingo du beren eskubideen egikaritzea, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.

7. artikulua.- Erabiltzaileen betebeharrak

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 10. artikuluan ezarritakoaz gain, erabiltzaileek honako betebeharrak izango dituzte:

1. Zerbitzuan sartzeko eskabide-agiria betetzea eta sinatzea.
2. Gizarte-zerbitzuetako erreferentziazko profesionalarekin adostutako Arreta Pertsonalizatuko Plana sinatzea eta betetzea, hala badagokio.
3. Udaleko Gizarte Zerbitzuek eskatutako dokumentazioa aurkeztea, eskatutako epean.
4. Baliabidea partekatzen duten pertsonen pentsamendu, iritzia, ideologia, erlijio, sexu-orientazio eta genero-identitatearen askatasuna errespetatzea, eta iritzia emateko eskubidea izatea.

5. Zerbitzuaren ardura duen erakundeak adostutako neurriak betetzea, erabiltzaileen arteko gatazkak edo desadostasunak daudenean.
6. Elkarrekiko errespetuan, tolerantzian eta gizarte-zerbitzuetako eta, hala badagokio, esku hartzen duten taldeetako profesionalen lankidetzan oinarritutako jokabidea erakustea.
7. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuari informazioa ematea zaindutakoen edota zaintzaileen egoeran gertatzen diren aldaketei buruz, baldin eta aldaketa horiek zerbitzua emateari eragiten badiote.

Betebehar horietakoren bat betetzen ez bada, zerbitzua eteteko edo azkentzeko prozedura hasi ahal izango da, araudi honetan araututako prozeduraren arabera.

III. KAPITULUA.- ZERBITZUA ESKURATZEKO ETA JARRAIPENA EGITEKO PROZEDURA

8. artikulua.- Zerbitzua eskuratzeko eskaera

1.- Zerbitzua eskuratzeko eskaera Udaleko Gizarte Zerbitzuetan jasoko da, horretarako formalizatutako eskabidean, eta eskatzaileak sinatu beharko du.

➤ Ez dauka bizigarritasun-arazorik.		0	☐
➤ Mantentze-lan egokiak falta zaizkio.		1	☐
➤ Egiturazko arazoak ditu (hezetasunak, komunik ez, sukalderik ez, itoginak, instalazio elektriko eta sanitario eskasak).		2	☐
BIZIGARritasuna GUZTIRA			☐
ETXEBIZITZAREN EGOERAREN PUNTUAZIOA (gehienez 10 puntu)			☐

IV.- EGOERA EKONOMIKOA

Egoera ekonomikoa baloratzeko familiaren hileko gaitasun ekonomikoa kontuan hartuko da, ordenantza fiskalean ezarritakoaren arabera. 1.500 eurotik behera 12 tarte zehaztu dira, progresiboki puntuatuko direnak:

Familiaren hileko egoera ekonomikoaren BAREMOA	Puntuak	
500,00 eurora arte	30	☐
501,00 eurotik 600,00 eurora	27	☐
601,00 eurotik 700,00 eurora	24	☐
701,00 eurotik 800,00 eurora	21	☐
801,00 eurotik 900,00 eurora	18	☐
901,00 eurotik 1000,00 eurora	15	☐
1001,00 eurotik 1100,00 eurora	12	☐
1101,00 eurotik 1200,00 eurora	9	☐
1201,00 eurotik 1300,00 eurora	6	☐
1301,00 eurotik 1400,00 eurora	3	☐
1401,00 eurotik 1500,00 eurora	1	☐
1500,00 eurotik gora	0	☐
Ez du bere egoera ekonomikoa baloratzerik nahi.	0	☐
EGOERA EKONOMIKOAREN PUNTUAZIOA (gehienez 30 puntu)		☐

V.- FAMILIA BERRELKARTZEA

Eskatzaileren ezkontidea edo ezkontzaren antzeko harreman baten bidez hari lotuta dagoen pertsona (behar bezala egiaztatuta)
 Eguneko Arretarako Landa-zentro batean
 dagoenean. **5 puntu**

II. ERANSKINA

EGUNEKO ARRETARAKO LANDA-ZENTROKO ZERBITZUAREN BARNE-FUNTZIONAMENDUKO ARAUAK

- Arau orokorrak
 - Erregelamendu honetan jasotakoa ezagutu eta betetzen saiatu beharko da.
 - Bizikidetzara-arauak beteko dira, bai eta higiena eta elkarren arteko errespetua gordeko ere, bai zentroaren barruan, bai zentroak eskaintzen dituen jarduerekin zerikusia duen beste edozein lekutan, giro ona sortzeko asmoz.
 - Eskura jarritako zentroko zerbitzuak eta instalazioak behar bezala erabiliko dira.
 - Aurkitzen den edozein objektu zentroko langileei edo oinarrizko gizarte-zerbitzuko langileei entregatuko zaie.
 - Zentrora balio handiko objekturik edo diru-kopuru handirik ez eramatea gomendatzen da.
 - Ezarritako ordutegiak errespetatuko dira. Ordutegian aldaketarik egonez gero, aldaketak aurrerapen nahikoarekin jakinaraziko dira.
 - Arreta jarriko da ahoz edo idatziz jakinarazten diren arau eta oharretan, eta horiek betetzen saiatuko da, zentroak ondo funtzionatu dezan.
- Otorduei buruzko arauak
 - Adierazitako orduetan emango dira otorduak.
 - Dieta bereziak eskaintzeko aukera egongo da. Kasuan kasuko dieta gomendatzen duen txosten medikoa aurkeztu beharko da horretarako. Menua iragarki-taulan jarriko da ikusgai.
 - Ezingo da zerbitzuan janaririk edo tresnarik sartu, ezta atera ere, hala nola mahai-tresnak, edalontziak, platerak eta ezpainzapiak.
 - Ganoraz jateko ahalegina egin beharko da, gainerakoentzat desatseginak izan daitezkeen jateko moduak alde batera utzita.
- Arropari eta norberaren higienerari buruzko arauak
 - Zentroa arropak garbitzeaz arduratuko da soilik, zerbitzu hori esleituta duten erabiltzaileen kasuan.
 - Erabiltzaile bakoitzak norberaren higienerako tresnak izango ditu zerbitzuan, eta ordezkotutako arropa-sorta oso bat.
 - Arropa markatzea gomendatzen da, nahasterik egon ez dadin.
 - Itxura pertsonala zaintzea ongizate-faktorea da erabiltzailearentzat eta inguruko pertsona guztientzat; horregatik, erabiltzailea behar bezala janzteia eta garbitzea gomendatzen da, jakina, bere gustu eta ohituren arabera. Arropa eta zapatak ahalik eta erosoan izan beharko dira.
 - Bainatzeko zerbitzua esleituta izanez gero, intimitate-baldintza zorrotzetan egingo da, horretarako adierazitako ordutegien barruan. Erabiltzaileak bainatzeko zailtasunak baditu, zerbitzuko langileek laguntza emango diote.

- Segurtasunari eta osasun publikoari buruzko arauak

- Zerbitzuaren instalazio guztietan erretzea debekatuta dago.

- Langileekiko harremanei buruzko arauak

- Zerbitzuko langileak erabiltzailearen esanetara daude, erabiltzaileak jasotzen duen arreta ahalik eta kalitatearik handienekoa izan dadin.
- Pertsona guztiengana hurbil daiteke, inolako mugarik gabe, baina adeitasunez eta errespetuz.
- Arreta jarriko da zerbitzuko langileek zerbitzu osoaren eta erabiltzailearen onurarako ematen dituzten argibidetan.
- Zerbitzuko langileek laguntza emango diete behar duten pertsonen. Salbuespen gisa, erabiltzailearen senideek edo lagunek eta boluntarioek ere laguntza eman ahaliko dute, betiere zerbitzuaren arduradunarekin edo zerbitzuko langileekin adostuta.
- Pertsona guztiek, bai erabiltzaileak bai profesionalak, eskubidea dute errespetuz, zuzentasunez eta ulermen osoz arreta pertsonalizatua jasotzeko.

- Familiekiko harremanei buruzko arauak

- Familiekiko komunikazioak behar bezain ohikoa eta arina izan beharko du, batez ere, pertsona berriaren egokitzapen-aldian.
- Erabiltzailea ez bada Eguneko Arretarako Landa-zentroko Zerbitzura joango, berehala jakinarazi beharko du, zerbitzuak ez-etortzearen berri izan dezan eta, hala badagokio, garraio-zerbitzua bera jasotzera joan ez dadin.

- Garraioari buruzko arauak

- Erabiltzaileak egokitutako garraio-zerbitzua esleituta badu, sartu aurretik egingo zaion elkarrizketan garraio-zerbitzuaren inguruko alderdiak adierazi beharko dira, hala nola ordutegiak, geltokiak eta abar.
- Egun jakin batzuetan erabiltzaileak garraio-zerbitzurik behar ez badu, beharrezkoa eta premiazkoa izango da adinekoentzako Eguneko Arretarako Landa-zentroaren zerbitzuari edo udaleko gizarte-zerbitzuari jakinaraztea, beste erabiltzaile batzuen ordutegiak kaltetu ez daitezen. Hori ezinezkoa bada, salbuespen gisa, ibilgailuaren gidariari jakinarazi ahaliko zaio. Komeni da ez-etortzearen arrazoen berri ematea.

- Irteeren erregimena eta bisitak egiteko ordutegia

- Erabiltzaileak, erabiltzaile izateagatik, zentroan programatutako jardueretan parte hartzeko eskubidea izango du. Erabiltzailea zentrotik irteten ahal izango da, betiere zentroko dinamika kaltetzen ez badu eta profesionalen lantaldeari jakinarazi ostean. Arrazoren batengatik erabiltzailea ezin bada bakarrik atera, zerbitzuko langileek, lagunek,

senitartekoek edo erabiltzailearekin harremana dutela egiaztatzen duten boluntarioek lagundu ahalko diote.

- Zerbitzuren batera edo guztietara egun batez edo gehiagorik ez joateko asmoa badu, horren berri eman beharko dio adinekoentzako Eguneko Arretarako Landa-zentroko Zerbitzuko langileei eta/edo udaleko gizarte-zerbitzuetako langileei.
- Senide edo lagunen bisitak, egoera berezietan izan ezik, aldeztu aurretik jakinarazi beharko zaizkie Eguneko Arretarako Landa-zentroko Zerbitzuko langileei, horrela, programatutako jarduerak eta horien dinamika beharrik gabe eten ez daitezkeen.

- Erabiltzaileari arreta emateko bideak

- Zerbitzuan parte hartzea faktore garrantzitsua da, eta oso eragin positiboa du zerbitzuaren eguneroko bizitzan eta martxa orokorrean.
- Erabiltzaileak zuzenean parte har dezake Eguneko Arretarako Landa-zentroaren kudeaketan. Horretarako, bere iritzia eta iradokizunak helaraz diezazkioke udaleko gizarte-zerbitzuari edo profesionalen lantaldeari, antolamenduaren, funtzionamenduaren edo praktika profesionalen alderdiekin lotutakoak, eta zerbitzuaren kalitatean eragina dutenak edo, zuzenean edo zeharka, beren eskubideen erabileran eragina dutenak.
- Zentroaren dinamika soziokulturalean parte hartzea borondatezkoa izango da. Erabiltzaileentzat egokituta egongo da eta haien proposamenak ongi etorriak izango dira. Erabiltzaileen eskaerei ahal den neurrian erantzun zuzena emango da.
- Erabiltzaileari zuzenean eragiten dion edozein erabaki kontsultatuko zaio, eta hala eskatzen bada edo komenigarritzat jotzen bada, erreferentziazko senideari ere egingo zaio kontsulta.

- Erreklamazioak egiteko prozedura, kexen eta iradokizunen araubidea.

- Erabiltzaileak edo bere konfiantzako pertsona batek (horretarako beren-beregi izendatutakoak) iradokizun, erreklamazio edo kexaren bat jarri nahi badu, udaleko gizarte-zerbitzuari eska dakiokkeen erreklamazio-orri baten bidez eta/edo zuzenean egin dezake hori. Konfidentzialtasuna une oro bermatuko da.
- Kexak jaso eta formalki izapidetzeko ardura udaleko gizarte-zerbitzuaren arduradunak izango du.
- Kexa idazteko arazorik izatekotan, gizarte-langile batek laguntza eta aholkularitza emango dio, kasuan kasuko eskaera izapidetuz eta eskaerari erantzun puntuala emanez.
- Horrez gain, iradokizunak egiteko gutunontzi bat dago, non iradokizunak sar daitezkeen. Konfidentzialtasuna une oro bermatuko da.

Durana, 2025ko urriaren 30a

Alkatea

M^a Blanca Antépara Uribe.

INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO HARRERA-ETXEAREN ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ARAUDIA

LEHEN TITULUA

1. artikulua.- Helburua

1.- Araudi honen xedea da harrera-etxearen zerbitzua arautzea (Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuaren 1.9.1 fitxa), bigarren modalitatean, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzat.

2.- Ostatu-zerbitzu hauek, ahal dela, etxebizitza-erakin arrunt batean kokatzen dira.

3.- Ostatu-zerbitzua denez gero, zerbitzu hori eskaintzeak herri-administrazioen zerbitzu-ematea arautzen duen araudia bete behar du; hau da, ostatu-zerbitzuaren erabiltzaileak edo zerbitzua kudeatzen duen entitateak organo eskudunarekin duen harremana ez da izango alokairuaren figura juridikoa, eta ez dio beste inolako eskubiderik emango zerbitzua ematen den higiezinaren edo higiezinaren gainean, jabari publiko gisa berez erabiltzeaz harago. Ostatu-baliabidearen erabilera ez da inola ere denbora mugagabekorako izango.

2. artikulua.- Zerbitzuaren definizioa

1. Baliabide hau aldi baterako da eta hasierako 4 hilabeteko egonaldia luzatu ahal izango da, baldin eta harrera eragin zuten baldintzak mantentzen badira. Laguntza-intentsitate txikiko zerbitzua da, eta ez du etxean etengabe diharduen langilerik, ez eta berariaz hari atxikitako langilerik ere. Behar izanez gero, egokiak diren kanpoko laguntzak antolatuko dira.

2. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxeak iraupen laburreko ostatua eskaintzen die errekupeatzeko eta indarkeria matxistako egoera bat gainditzeko etxebizitza behar duten pertsonen edo bizikidetzak-unitateen, betiere, babes-neurririk behar ez badute.

3. Udaleko Gizarte Zerbitzuak indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak artatzeko zerbitzu eta programekin koordinatuta jardungo du.

3. artikulua.- Helburuak

Hauek dira indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxearen zerbitzuaren helburuak:

- a) Erabiltzaileei laguntzea indarkeria matxistaren ondoriozko ostatu-faltak eragindako krisi-egoerak gainditzeko.
- b) Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen segurtasun-sentimendua indartzea.

BIGARREN TITULUA**I. KAPITULUA.- ZERBITZUAREN PRESTAZIOAK****4. artikulua.- Zerbitzuaren prestazioak**

1.- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxearen zerbitzuaren prestazioak honako lege hauetan ezarritakoaren arabera egingo dira: Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legea; Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, eta aplikatu beharreko gainerako araudia.

2.- Zerbitzu honetan, berariaz, honako prestazio hauek eman ahal izango dira:

- a) Oinarrizko prestazioak:
 - Informazioa.
 - Jarraipenaren balorazioa.
 - Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzea, hala badagokio.
 - Gizarte-akonpainamendua, hala badagokio.
 - Artekartzea-Bitekartzea, hala badagokio.

3.- Prestazio hauek araudi honen I. eranskinean garatzen dira.

II. KAPITULUA.- ERABILTZAILEEI BURUZ**5. artikulua.- Erabiltzaile izateko bete beharreko baldintzak**

1.- Gizarte-zerbitzuetako erreferentziako profesionalaren preskripzio teknikoa duen aldi baterako ostatua izateko aukera behar duten pertsonak edo bizikidetza-unitateak, betiere, zerbitzua hartzaileen beharrei erantzuteko egokia bada.

2.- Harrera-pisu bat eskuratu ahal izateko, pertsonak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Eskaera egiten den unean 18 urte edo gehiago izatea.
- b) Ostatu-zerbitzu batean, langileen presentzia iraunkorrik gabe, eman daitekeen intentsitate txikiko laguntzaren beharra izatea.
- c) Indarkeria matxista gainditzeko prozesuan egotea eta aldi baterako bizileku-aukera bat behar izatea, babes-neurririk behar izan gabe.

3.- Bizikidetza-unitateari eustearren, bizileku-zerbitzura jo ahal izango dute eskatzailearen ardurapean dauden eta eskuarki harekin bizi diren pertsonak ere, adin nagusikoak zein adingabeak izan.

4.- Pertsona onuradunek ezin izango dute inola ere argudiatu ostatua eskusiboki erabiltzeko eskubidea dutela bertan duten antzintasunaren arabera.

5.- Baliabide horien erabiltzaileek honako baldintza hauek ere bete beharko dituzte:

- a) Osasun-laguntza espezializatu eta/edo iraunkorrik behar ez izatea, gizarte-zerbitzuen sarearen berezko zuzkiduren irismenetik eta aukeretatik kanpo.
- b) Jokabide-nahasmendurik ez izatea edo zerbitzuaren funtzionamendua edo ohiko bizikidetzaren modu larrian nahas dezakeen portaerarik ez izatea, edo pertsonarentzat berarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo esku har dezaketen profesionalentzat arriskua ekar dezakeen portaerarik ez izatea.
- c) Dagokion tratamendua ez errefusatzeko, gaixotasun infekzioso-kutsagarriren bat edo gaixotasun mentalen bat izanez gero.

6. artikulua.- Erabiltzaileen eskubideak

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren zorua eta iradokizun eta kexen araubidea onartzen dituen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan ezarritakoaz gain, erabiltzaileek eskubide hauek izango dituzte:

1. Aldi baterako ostatuan bizitzea.
2. Hartutako bizikidetzaren unitateko pertsona guztiak elkarrekin egon ahal izatea; horretarako, baliabide berean artatu beharko dira (adingabeak babesteko neurriak aplikatzen direnean izan ezik).
3. Sexuagatik, genero-identitateagatik edo sexu-orientazioagatik, arrazagatik, erlijioagatik, ideologiagatik edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal edo sozialengatik diskriminaziorik gabeko laguntza jasotzea.
4. Erraz ulertzeko moduko hizkeran informatuak izatea beren eskubide eta betebeharren edukiaz, halakotzat ulertuz eskubideak eraginkortasunez erabiltzea ahalbidetzen duten informazio-, partaidetza-, iradokizun- eta kexa-bideetara iristeko eskubidea.
5. Errespeturik handienaz, zuzentasunez eta ulerkortasunez zainduak izatea.
6. Beren beharrianak eta, ahal den guztietan, beren lehentasunak erabat errespetatuta tratatzea.
7. Dagokien informazioaren pribatasuna eta konfidentzialtasuna errespetatuta tratatzea.
8. Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan, norberak hobesten duenaren arabera, erraz ulertzeko moduko hizkeran arreta eta informazioa jasotzea; eta hizkuntza horietako bat ere ez badute ulertzen, behar bezala ulertzeko behar diren itzulpen- eta interpretazio-baliabideak ematea.
9. Zerbitzuaren baldintzetan edozein aldaketa egin aurretik informazioa jasotzea.

10. Erreferentziako profesional bat esleituta izatea, bere beharren ebaluazioa edo diagnostikoa egingo duena, Arreta Pertsonalizatuko Plana (APP) egingo duena eta esku-hartze prozesuaren koherentzia, osotasuna eta jarraitutasuna bilatuko dituen.
11. Zerbitzuaren kalitatea, Araudi honetan zehazten denaren arabera.
12. Une oro funtzionamendurako barne-araudia eskura edukitzea.
13. Gaitasuna judizialki aldatuta duten pertsonen kasuan, legezko ordezkarien bitartez bermatuko da haien eskubideen erabilera, indarrean dagoen araudian aurreikusitako baldintzetan.

7. artikulua.- Erabiltzaileen betebeharrak

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 10. artikuluan ezarritakoaz gain, erabiltzaileek betebeharrak hauek izango dituzte:

1. Zerbitzuan sartzeko eskaera-dokumentua sinatzea.
2. Ostatu-zerbitzuaren erabilera arautzen duen akordioa eta etxebizitza erabili eta gozatzeko ezarritako arauak betetzeko konpromisoa sinatzea. Akordio horretan, arreta berezia eskainiko zaio zerbitzuaren kokalekuaren konfidentziasunari.
3. Gizarte-zerbitzuetako erreferentziako profesionalarekin adostutako Arreta Pertsonalizatuko Plana (APP) sinatzea eta betetzea, errehabilitazio-prozesurako.
4. Organo eskudunak eskatutako dokumentazioa eskatutako epean aurkeztea.
5. Bere seme-alabak edo bere ardurapeko beste pertsona batzuk zaintzeaz arduratzea.
6. Baliabidea berarekin partekatzen duten pertsonen pentsamendu-, iritzi-, ideologia-, erlijio-, sexu- eta genero-identitate-askatasuna errespetatzea, eta haiek beren iritzia emateko eskubidea izatea.
7. Baliabidez arduratzen den erakundeak erabakitako neurriak betetzea erabiltzaileen arteko gatazka edo desadostasunen kasuan.
8. Elkarrenganako errespetuan, tolerantzian eta lankidetzan oinarritutako jokabidea erakustea, egoiliarren eta auzokoen arteko bizikidetzaren errazteko, eta auzokoen komunitatea arautzen duten arauak betetzea.
9. Elkarrekiko errespetuan, tolerantzian eta lankidetzan oinarritutako jokabidea erakustea, gizarte-zerbitzuetako eta, hala badagokio, esku hartzen duten taldeetako profesionalarekin.
10. Baliabidean eskura dituen objektuak, ekipamendua eta tresnak egoki eta errespetuz erabiltzea.

11. Zerbitzuaren erabiltzaileak ezingo du, bere borondatez, ostatuan altzaririk edo objektu pertsonalik jarri, gizarte-zerbitzu eskudunek berariazko baimena eman ezean.
12. Ostatua garbitzeaz arduratzea. Ostatua hainbat familia-unitatek partekatu behar badute, erabilera komuneko gelak (sukaldea, aretoa, bainugela, eskailera, ataria) antolatze eta garbitze akordioak egin beharko dira.
13. Baliabidearen barruan nahita edo zabarkeria larritz egindako kalteen erantzule izatea.
14. Ostatua partekatzea preskripzio teknikoak proposatzen duenean.
15. Baliabideak lekualdatzeko edo aldatzeko baimena ematea, inguruabarrek eta preskripzio teknikoak hala eskatzen dutenean.
16. Ez uztea baimenik ez duten pertsonen baliabidera sartzen edo baliabidea okupatzen/erabiltzen, haiekin duen ahaidetasuna edo harremana edozein dela ere.
17. Ostatuko giltzen kopiari ez egitea, eta beste inori ez uztea. Egonaldia amaitzean, giltzak etxebizitzaren arduradunari eman beharko zaizkio.
18. Baliabidean animaliarik ez izatea, desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-txakurrei buruzko ekainaren 29ko 10/2007 Legean jasotako baldintzetan edo baliabidea kontrolatzen duen erakundeak salbuespen gisa baimendutako beste kasu batzuetan izan ezik.
19. Baliabidean irabazizko jarduerarik ez egitea.
20. Higienearen aurkako material edota material arriskutsurik ez gordetzea, eta berariaz debekatzen da armak edukitzea.
21. Etxebizitzan elkarbizitzarako arazoak edo arriskuak sor ditzakeen substantziarik ez kontsumitzea.
22. Gizarte-zerbitzuei jakinaraztea zerbitzuan edozein kalte konpondu edo hobetu behar denean, eta berariaz debekatzen da zentzu horretan esku hartzea, aldez aurretik baimenik izan gabe. Erabiltzailearen ekimenez matxura bat konpondu ahal izango da soilik jaiegunetan edo zerbitzu eskudunen funtzionamendu-ordutegitik kanpo sortutako egoera larrietan. Kasu horretan, zerbitzu eskudunei jakinaraziko zaie, ahal denean, eta, nolana ere, hurrengo 72 orduak baino lehen.
23. Baliabidean sartzean etxebizitzako tresnen eta arreoaren inbentarioa sinatzea. Egonaldiaren amaieran, inbentarioa egiaztatuko da, baita ostatua eta altzariak egoera onean dauden ere. Akatsen bat edo inbentariatuak ondaren bat falta bada, erabiltzailea behartuta dago konponketaren edo erosketaren gastuak ordaintzera. Gastu horiek ordaintzeko epea eta baldintzak inbentarioaren dokumentuan bertan jasoko dira.

24. Gauda bertan igarotzea derrigorrezkoa izango da. Kanpora joan behar izanez gero, Gizarte Zerbitzuei jakinarazi beharko zaie, eta haiek izango dute egindako eskaerari buruzko erabakia hartzeko ahalmena.
25. Gizarte-zerbitzuetako langileei, beste zerbitzu eskudun batzuetako langileei edo haiek baimendutako beste pertsona batzuei oztoporik ez jartzea edo baliabidea eskuratzea ez eragozte, hala eskatzen dutenean, baita baliabidea okupatuta dagoenean ere.
26. Gizarte Zerbitzuek egiten dituzten adierazpen guztiei kasu egitea.
27. Hala badagokio, gizarte- eta hezkuntza-taldearen esku-hartzea onartzea, eta taldeak proposatutako jarraibideekin lankidetzan aritzea.
28. Baliabidea uztean, bere ondasun guztiak eraman beharko ditu, eta esleitu zitzaion egoera berean utzi beharko du plaza.

Betebehar horietakoren bat betetzen ez bada, zerbitzua eteteko edo iraungitzeko prozedura hasi ahal izango da, araudi honetan araututako prozedurari jarraiki.

III. KAPITULUA.- SARTZEKO ETA JARRAIPENA EGITEKO PROZEDURARI BURUZ

SARRERAREN LEHEN ATALA

8. artikulua.- Zerbitzuan sartzeko eskaera

1.- Sarrerako eskabidea gizarte-zerbitzu eskudunetan jasoko da, eta horiek berehala izapidetu beharko dute, egoeraren larritasuna dela-eta. Eskatzaileak edo haren legeko ordezkariak sinatu beharko du eskabidea, horretarako formalizatutako eskabide baten bidez.

2.- Prozesuaren edozein unetan, interesdunak atzera egin ahal izango du bere eskaeran; kasu horretan, idatziz egin beharko du. Horrek espedientea artxibatzea ekarriko du, aldez aurretik dagokion ebazpena emanda.

9. artikulua.- Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak

1.- Eskabideekin batera, baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

2.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 28. artikuluan ezartzen duenez, interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dauden dokumentuak edo beste edozein administrazio egindakoak ez aurkezteko. Arlo horretan eskumena duen zerbitzuak/sailak elektronikoki kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu agiri horiek, datu-bitartekaritzarako plataformen edo horretarako prestatutako beste sistema

elektroniko batzuen bidez. Arrazoi teknikoak direla-eta ezin bada elkarreragingarritasunik ezarri, interesdunari eskatu ahal izango dio izapidetzeko dokumentuak aurkezteko.

Datu pertsonalen tratamendua legitimatuta geratzen da interes publikoaren alde egindako misio batean edo Arratzua-Ubarrundiako Udaleri berari emandako botere publikoen egikaritzan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan aurreikusitako baldintzetan. Datu egokiak eta beharrezkoak baino ez dira eskatuko, tratamenduaren helburuei dagokienez (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1.c artikulua), betiere, datuak minimizatzeko printzipioaren arabera.

3.- Eskatzaileak edo, hala badagokio, gainerako onuradunek uko egiten badiote aurreko paragrafoan aurreikusitako datuak egiaztatzeko edo biltzeko kudeaketak organo eskudunak egiteari, idatziz jasota utzi beharko dute ezezkia eta horren arrazoa, behar bezala justifikatuta.

4.- Datu faltsuak emateak eta datuak ezkatutzeak zerbitzuaren eskatzaile/onuradun izaera galtzea ekarriko du, sor daitezkeen erantzukizunen kalterik gabe.

5.- Sartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar den dokumentazioa aurkezten ez bada, eskaeran atzera egin dela deklaratu da.

10. artikulua- Izapidetzea

Eskaeraren balorazioa gizarte-zerbitzu eskudunak egingo dute, eta txosten sozial/proposamen bat prestatuko dute, honako hauek zehazteko:

- Eskatzailearen eta baliabidera jo nahi duten bizikidetz-unitateko gainerako pertsonen identifikazio-datuak.
- Ostatu-eskaera eragin duten inguruabarrak.
- Ostatu-zerbitzua jasotzeko egokitasunari buruzko balorazioa, eta, aldekoa izanez gero, egonaldiaren proposamena.
- Aldi horretan egin beharreko esku-hartze profesionala.
- Pertsonak edo bizikidetz-unitateak hartzen dituen konpromisoak.
- Hala badagokio, zerbitzua ukatzeko proposamen arrazoitua.

11. artikulua.- Ebazpena

Eskaera aztertu eta baloratu ondoren, eta txosten soziala/proposamena egin ondoren, organo eskudunari igorriko zaio, eta hark ebazpen arrazoitua emango du, eskatutako zerbitzua eskuratzeko eskaera baiesteko edo ezesteko.

Ebazpena eskaera erregistroetako batean sartu eta gehienez ere bi hilabeteko epean eman beharko da. Epe hori eten egingo da eskaerak zuzendu behar direnean, jakinarazpena egiten denetik betetzen den arte, edo, bestela, emandako epea igaro arte.

Aurreko zenbakian aurreikusitako epea igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, eta ebazteko betebeharrari kalterik egin gabe, eskaera ezetsitzat jo ahalko da, interesdunak aukerako berraztertze errekurtsua edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izan dezan.

Onespenezko ebazpenak alderdi hauetako bat jaso beharko du:

- Zerbitzua eskatzen duten pertsonak zerrendan sartzea.
- Zerbitzuaren kontzesioa, honako hauek zehaztuz: mota, iraupena.

Ezesteko ebazpenak ezesteko arrazoiak jaso beharko ditu, eta honako kasu hauetan izango da bidezkoa:

- Araudi honen 6. artikuluan jasotako baldintzak betetzen ez badira.
- Zerbitzua ez bada egokitzen eskatzailearen beharretara.
- Behar bezala arrazoitutako beste arrazoi batzuk.

12. artikulua.- Urgentziatzko prozedura

1.- Salbuespen gisa eta premia larriko eta urgentziatzko kasuei erantzuteko, erreferentziako gizarte-laneko profesionalak proposatuko du ostatu-baliabidea ematen hastea eta berehala ematea, modu arrazoituan.

2.- Urgentziatzko sarbideko prozedura ostatuan sartzeko berariazko baimena eman ez hasiko da. Baimen hori interesdunak adieraziko du, eskaera sinatuz, eta baimen horri urgentziaren arrazoiak edo kausa egiaztatzen duten agiriak erantsiko zaizkio. Baimena emateko, baldintza hauek bete beharko dira: sartzeko baldintzak betetzen direla berrestea, eta ostatu-zerbitzua erabiltzeko erregulazio-akordioa eta dagokion arreta pertsonalizatuko plana sinatzea. Nolanahi ere, harrera-etxea urgentziatzko emateko prozedura hasteko gutxienezko dokumentazioa honako hau izango da: interesdunak sinatutako eskaera, urgentzia eragin duen gertaeraren frogagiria eta/edo gizarte-txostena.

3.- Ostatu-zerbitzua behin-behinean emango da, espediente osatzeko falta den dokumentazioa 10 egun balioduneko epean aurkeztu eta ebazpena eman arte.

4.- Ostaturik ez badago, urgentzia urgentziatzko baliabide baten bidez kudeatuko da.

5.- Urgentziatzko prozeduraren bidez ostatu ondoren, onuradunak ez badu espedientearen izapidean parte hartu nahi, edo, bitartean, egiaztatzen bada eskabideak ukapenezkoa izan behar duela, 13. artikuluan aurreikusitako ukatze-arrazoiaren batean erortzeagatik, ostatu-zerbitzua uzteko betebeharra jakinaraziko zaio, jakinarazpena jaso eta gehienez ere 10 egun naturaleko epean.

6.- Hala egiten ez bada, erabiltzaileak nahitaez irtenaraziko dira, araudi honetako 18. artikuluan aurreikusitako moduan.

2. ATALA. ZERBITZUAN ONARTUA IZATEARI ETA SARTZEARI BURUZ**13. artikulua.- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxearen zerbitzurako sarbidea.**

1.- Behin sarbidea onartuz gero, ostatu-zerbitzuan plaza lortu duen pertsonak adierazitako datatik aurrera erabili beharko du, edo, gehienez ere, erabakitako datatik 7 eguneko epean.

2.- 7 egun igaro ondoren, erabiltzailea ez bada ostatu-zerbitzuan sartu arrazoi justifikaturik gabe, izapidetutako espedientetik eratorritako eskubideei uko egiten diela ulertuko da.

3.- Ezarritako egunean edo epean sartzea eragozten duten inguruabar bereziak gertatzen direnean, interesdunak data aldatzeko edo sartzeko epea luzatzeko eskatu ahal izango du, eta beste data edo epe bat finkatuko da organo eskudunaren bitartez. Hala ere, egoerak hala eskatzen badu, ostatu-zerbitzuko plaza hori eskatzaileen zerrendako beste pertsona bati esleitu ahalko zaio, eta eskatzailea hutsik geratutako beste ostatu baten zain geratuko da.

4.- Baliabidea edo zerbitzua eskuratu aurretik, edo nolnahi ere, egun berean, zerbitzuaren funtzionamendua arautzen duten arauen berri emango zaio etorkizuneko erabiltzaileari, pertsonak ulertzeko moduko hizkuntzan eta moduan. Zerbitzuan sartzeak berekin ekarriko du arau horiek onartzea, eta hori dagokion dokumentua sinatzean formalizatuko da.

5.- Behin pertsona ostatu-zerbitzuan sartu eta gero, pertsona horrek ostatu-zerbitzuan jarraitzea ez dela komeni erakusten duten inguruabarrak gertatzen direnean, eta gizarte-zerbitzu eskudunek alde aurretik txostena egin ondoren, ebazpen arrazoitua emango da, ostatu-zerbitzurako sarrera izateko eskaera ebatzi duen organo eskudunak ostatu-zerbitzua okupatzeari amaiera emateko.

6.- Erabiltzailea izateak ez du ematen baliabide jakin baten gaineko eskubiderik, baizik eta pertsona bakoitzaren lehentasunen, ezaugarrien eta beharren arabera esleitzen zaion ostatu-baliabidearen gainekoa, plazak okupatzeko eta banatzeko aukeren gainekoa; arrazoi berengatik, geroagoko aldaketa proposatu eta zehaztu ahal izango da.

14. artikulua.- Egonaldiaren iraupena

1.- Zerbitzuan egoteko gehieneko denbora norberaren inguruabarren, baliabide egokiagoak bilatzeko aukeren eta aldean artean adostutako APPa betetzearen arabera izango da.

2.- Oro har, harrera-pisuko egonaldiaren gehieneko iraupena 4 hilabetekoa izan daiteke, harrera-etxea eskuratu den egunetik zenbatzen hasita.

2.1. Salbuespen gisa, interesdunak aurrez eskatuta eta kasuaren erreferentziako profesionalaren preskripzio teknikoa edukita, baliabideko egonaldia luzatu ahal izango da. Kasu horretan, gehieneko egonaldia, hasierako egonaldia eta luzapena gehituta, 8

hilabetekoa izango da, luzapen berrien beharra justifikatzen duten inguruabarrak gertatzen direnean izan ezik.

2.2. Erabiltzaileak edo gizarte-zerbitzuek ofizioz egin ahal izango dute luzapen-eskaera, eta organo eskudunari helaraziko zaio, eskaera justifikatzen duen gizarte-txostenarekin batera, hark ebatz dezan.

IV. KAPITULUA.- ZERBITZUA ETETEA ETA AMAITZEA

15. artikulua.- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxearen zerbitzuan atzera egitea, uko egitea eta iraungitzea.

15.1. Atzera egitea

Prozeduraren edozein unetan eta ebazpena eman aurretik, eskatzaileak edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariak atzera egin ahal izango du eskaeran; kasu horretan, bere borondatea jasota uzteko aukera ematen duen edozein bitartekoren bidez egin beharko du atzera. Horrek espedientea artxibatzea ekarriko du, dagokion ebazpena eman ondoren.

15.2. Uko egitea

Prozeduran zerbitzuaren onuradun izaera aitortzeko ebazpena eman bada, erabiltzaileak edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariak bere eskubideari uko egin ahalko dio, bere borondatea jasota uztea ahalbidetzen duen edozein bitarteko erabiliz.

15.3. Zerbitzua iraungitzea

15.3.1 Zerbitzua automatikoki iraungiko da arrazoi hauengatik:

- a) Aurreikusitako denbora amaitzea.
- b) Uko egitea.
- c) Heriotza.
- d) Pertsona ostatu-zerbitzuan egotea komeni ez dela erakusten duten inguruabarrak.

15.3.2 Bestalde, zerbitzua aurreikusitako eguna baino lehen amaitu dela deklaratu ahal izango da, honako egoera hauetan:

- e) Beharrianaren arrazoia desagertzea.
- f) Erabiltzailea beste zerbitzu batean sartzea.
- g) Zerbitzua emateko kontuan hartu diren datuak ezkutatzea edo faltsutzea.
- h) Zerbitzua eskuratzeko eskatutako baldintzetakoren bat ez betetzea.
- i) Esku-hartzearen jarraipena egiteko eska daitekeen dokumentazioa ez aurkeztea.
- j) Beste erabiltzaile edo profesional batzuei eraso fisiko edo psikologikoa egitea (irainak, mehatxuak, jazarpena...).
- k) Horretarako justifikaziorik gabe eta/edo baimenik gabe, baliabidera ez agertzea 3 egun baino gehiagoz jarraian.

- l) Gizarte-zerbitzuetako langileei edo horiek baimendutako beste pertsona batzuei baliabidera sartzea galaraztea.
- m) Arreta Pertsonalizatuko Plana (APP) ez izenpetzea edo planean jasotako ekintzak ez betetzea.
- n) Gizarte-zerbitzu eskudunek baimendu gabeko pertsonen bertako ostatu- edo gau-zerbitzua erabiltzea.
- o) Bere premiei egokitutako beste ostatu-aukera alternatibo bati uko egitea, preskripzio teknikoaren arabera.
- p) Hala badagokio, ezarritako aldi baterako etenaldia igaro ondoren, ostatura ez itzultzea.
- q) Erabiltzaileek behin eta berriz ez betetzea araudi honen 8. artikuluan aurreikusitako betebeharrak, edo, hala badagokio, eskuratzeko baldintzak jasotzen dituen dokumentuan aurreikusitakoak.
- r) Osasun-erakundeetan edo erakunde soziosanitarioetan etengabeko laguntza behar duen osasun-egoera izatea.

Zerbitzua aurreikusitako amaiera-data baino lehen iraungitzen bada, organo eskudunaren ebazpen baten bidez egingo da, gizarte-zerbitzuek proposatuta eta interesdunari entzun ondoren. Ebazpen hori erabiltzaileari jakinaraziko zaio, eta hark ebazpenean adierazitako epean utzi beharko du ostatua.

15.3.3 Iraungipena deklaratu ondoren, erabiltzaileak ebazpenean adierazitako epean utzi beharko du zerbitzua.

15.3.4 Erabiltzaileak, iraungitze-ebazpen baten ondoren, zerbitzuan berriro sartzeko borondatea agertzen badu, beste eskaera bat egin beharko du, eta eskaera hori araudi honetan zehaztutakoaren arabera izapidetuko da.

16. artikulua.- Etxegabetze administratiboa

Baldin eta, araudi honetan jasotako arrazoiren batengatik edo emandako epea amaitzeagatik, baliabidea utzi behar duten pertsonen baliabidea uzteari uko egiten badiote, administrazio-utzarazpenaren bidez behartu ahal izango dira, Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamenduaren 120. artikuluan eta hurrengoetan edo hura ordeztzen duen araudian aurreikusitako prozedura-izapideei jarraituz.

V. KAPITULUA.- ZERBITZUAREN ERREGIMEN EKONOMIKOA

17. artikulua.- Doako zerbitzua

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxearen zerbitzua doakoa da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko 185/2015 Dekretuan ezartzen den bezala.

18. artikulua.- Finantzaketa

Zerbitzuaren finantzaketa Administrazio Publikoaren kontura izango da.

VI. KAPITULUA.- ARAU-HAUSTEEN ETA ZEHAPENEN ARAUBIDEA**19. artikulua.- Arau-haustea**

Arau-hauste administratiboak dira Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean tipifikatutako legezko eta erregelamenduzko araudiaren aurkako ekintzak eta ez-egiteak, ordenamendu juridikoaren gainerako arauetan jasotakoei kalterik egin gabe.

20. artikulua.- Zehapenak

1.- Aurreko artikuluan tipifikatutako arau-haustea eginez gero, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean aurreikusitako zehapenak aplikatuko dira.

2.- Araudi honetan araututako ostatu-zerbitzuaren erabiltzaileei egotz dakizkiekeen arau-hauste oso larrien kasuan, zehapen gisa eskubidearen etendura metatu ahal izango da sei hilabetez, etete horrek babesgabetasun-egoera sor lezakeen kasuetan izan ezik.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudi honetan jasota ez dauden kasu guztietan edo bertan jaso gabe egonik ager daitezkeen kasu berezi guztietan, organo eskudunak ahalmen osoa izango du kasu bakoitzerako komenigarritzat jotzen dituen neurriak proposatzeko.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudi hau zerbitzuan sartzeko eskaera berri guztiei aplikatuko zaie.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Araudi hau ez zaie aplikatuko zerbitzua indarrean jarri aurretik erabiltzen zuten pertsonen, nahiz eta hilabete bateko epean eskatu ahal izango duten. Aldaketa onartu ondoren, ezin izango da berriro eskatu aurreko araudia aplikatzea. Zerbitzuan alta ematen den guztietan (baita aurreko sistema aplikatzen zitzaizen pertsonak desagertutakoan ere), araudi honetan aurreikusitako xedapenak bete beharko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik geratzen dira maila bereko edo beheragoko arau guztiak, araudi honetan xedatutakoarekin kontraesanean edo bertan xedatutakoaren aurka dauden puntuetan.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau 2026ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

I. ERANSKINA**PRESTAZIOAK****A) Informazioa**

Prestazio honek aukera ematen die pertsona, familia eta erabiltzaile-taldeei garaiz eta behar bezala ezagutzeko beren gizarteratzea, autonomia eta gizarte-ongizatea erraztu ditzaketen eskubide, zerbitzu eta prestazio ekonomikoak.

B) Jarraipenaren balorazioa

Horrek esan nahi du Arreta Pertsonalizatuko Planaren aldizkako ebaluazioak egin behar direla, intentsitate handiago edo txikiagoarekin.

C) Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzea

Erabiltzaileek beren kabuz moldatzeko edo gizarteratzeko baliagarriak diren ezagutzak, jarrerak, ohiturak edo gaitasunak bereganatzeko prozesu luze samarra ezartzea dakarten prestazio teknikoak.

D) Gizarte-akopainamendua:

Prestazio honen bidez, pertsona batek, kualifikatutako profesional batekin elkarerraginean, laguntza harreman batean parte hartzen du, eta harreman horrek lagundu egiten dio bere kabuz moldatzen eta gizarteratzen. Sakonagoa edo arinagoa izan daiteke, pertsonaren laguntza beharraren arabera. Erabiltzaileak eskatutako akopainamenduaren intentsitatea aldatu (nahi izanez gero, murriztu) duen ibilbideak planteatu daitezkeela ulertzen da.

E) Artekaritza – Bitartekaritza:

Gizarte-zerbitzuetako profesionalek pertsonaren eta haren ingurunearen (familiakoa, taldekoa edo komunitarioa) arteko interakzioa hobetzera eta gizarte-gaitasunak garatzera bideratzeko prozedura.

Durana, 2025ko urriaren 30a

Alkatea

M^a Blanca Antépara Uribe.

**ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO 20.000 BIZTANLE BAINO
GUTXIAGO DITUZTEN UDALERRIETAN ADINEKOENTZAKO OSTATU- ETA
EGUNEKO ARRETA-ZERBITZUA ETA ZERBITZU OSAGARRIAK ARAUTZEKO
UDAL-ARAUDIAREN EREDUA**

I. TITULUA

1. artikulua.- Helburua eta Aplikazio eremua

Araudi honen helburua da Arratzua-Ubarrundiako udalerrian adineko pertsonentzako honako zerbitzu hauek arautzea:

- a) Ostatua etxebizitza komunitarioan.
- b) Ostatu-zerbitzuan emandako eguneko arreta.
- c) Dagozkion zerbitzu osagarriak.
- d) Atsedeen-zerbitzua

2. artikulua.- Definizioak

1.- Etxebizitza Komunitarioa ostatu-zerbitzu bat da, egonaldi luzekoa edo erabilera iraunkorrekoa eta salbuespenez aldi baterakoa, mendekotasun-egoeran dauden adinekoentzat (I. gradua), eta egunez zein gauez langileen laguntza du tutoretza-, bitartekaritza-, gizarte-laguntza eta gainbegiratze-lanak egiteko, bai eta, hala badagokio, arreta pertsonala eta etxeko arreta emateko ere.

2.- Eguneko Arreta, ostatu-zerbitzu batean ematen dena, egunez joateko zerbitzua da, aldi baterakoa edo iraunkorra. Zerbitzu horretan, intentsitate txikiko laguntza eskaintzen zaio erabiltzaileari, bere premien arabera.

3.- Zerbitzu osagarriak, hala badagokio, mantenua, higiene pertsonala eta ikuztegi-zerbitzua izan daitezke.

4.- Atsedeen-zerbitzuaren bidez, erabiltzaileak urtean gehienez ere 45 egun naturaleko sarbidea izango du, bai ostatu-zerbitzura, bai eguneko arreta-zerbitzura, erregelamendu honetan garatzen den moduan.

3. artikulua.- Hartzaileak

Adinekoentzako zerbitzu hauen hartzaileak honako hauek izango dira:

A. Etxebizitza komunitarioa

- 1. Adinekoak beren gizarte-ingurunean gera daitezen laguntzea, beren komunitatean behar dituzten zaintzak emanez.

2. Norberaren autonomia-maila hobetzea, horri eustea eta/edo autonomiaz moldatzeko aukera ematen duten trebetasun eta gaitasunen narriadura prebenitzea.

3. Isolamendu-egoerak saihestea.

4. Segurtasun-sentimendua indartzea.

B. Eguneko arreta:

1. Mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden adineko pertsonen autonomiari eusten laguntzea (I. gradua; MBBn, 25 eta 39 puntu artean).
2. Pertsonak beren ohiko bizi-ingurunean egon daitezen eta beren sozializazioa bultzatzen laguntzea, eta, hala badagokio, isolamendu-egoerak konpentsatzea.

C. Atsedeen-zerbitzua:

1. Zaintzaileak atsedenerako, errekupeziarako, aisialdirako eta, oro har, bere burua zaintzeko denbora pertsonala izatea.
2. Zaintza-eginkizunak betetzea eragozten duten premia-egoerei aurre egitea.

II. TITULUA

I. KAPITULUA.- ZERBITZUAREN PRESTAZIOAK

4. artikulua.- Prestazioak

Aipatutako helburuak betetzearren, honako prestazio hauek eman ahal izango dituzte etxebizitza komunitarioetako ohiko bizilekuek, eguneko arretakoek eta adinekoentzako atsedeen-zerbitzuek:

1.- Gizarte-zerbitzuak:

Ostatu-zerbitzua:

- a) Jarraipenaren balorazioa.
- b) Gizarte-akonpainamendua.
- c) Artekaritza-bitartekaritza.
- d) Tutoretza eta gainbegiratzea.
- e) Arreta pertsonala, hala badagokio.
- f) Etxeko laguntza, hala badagokio.

Eguneko arreta ostatu-zerbitzuan:

- a) Informazioa.
- b) Jarraipenaren balorazioa.
- c) Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzea.
- d) Estimulatzaileria edo errehabilitatzailea.
- e) Hezkuntzakoa.
- f) Gizarte-akopainamendua.
- g) Garraio egokitua, hala badagokio.

2.- Osaigarriak eta aukerakoak:

- a) Mantenua, hala badagokio.
- b) Garbiketa, hala badagokio.
- c) Ikuztegia, hala badagokio.

5. artikulua.- Zerbitzuaren barne funtzionamendurako arauak

Adinekoentzako Ostatu Zerbitzuak barne funtzionamendurako arau batzuk izango ditu, III. eranskinean xedatutakoari jarraituz.

II. KAPITULUA- ERABILTZAILEEI BURUZ

6. artikulua.- Erabiltzaileak nor diren zehaztea

1.- Ostatu-zerbitzuaren arreta-subjektuak hirurogeita bost urte edo gehiago dituzten eta I. graduako mendekotasuna duten adinekoak izango dira, baldin eta:

- a) Ostatu alternatiba bat behar badute, egonaldi luzekoa edo iraunkorra (salbuespenez, aldi baterakoa), ostatu alternatiba egokirik ez dutelako, irisgarritasun eta/edo bizigarritasun baldintzetan, eta/edo bizikidetza edo bakardade arazoak dituztelako (isolamendu soziala).
- b) Komunitate-ingurunean bizitza autonomia ahalbidetzen duten harreman-trebetasunak mantentzeko edo garatzeko eta, hala badagokio, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntzak behar badituzte.

2.- Salbuespen gisa, honako hauek ere izan daitezke adinekoentzako etxebizitza komunitarioko ostatu-zerbitzuaren onuradun, modalitate arruntean:

- a) Hirurogeita bost urte edo gehiago dituzten adinekoak, mendekotasun-arriskuan daudenak (MBB 23-24) edo mendekotasun-maila aitorturik ez dutenak, baldin eta artikulua honen 1. paragrafoa a) eta b) letretan deskribatutako baldintza berak betetzen badituzte, betiere, preskripzio teknikoak hala eskatzen badu.

b) I. gradu hirurogei urte edo gehiago dituzten adinekoak, bakarrik bizi direnak eta artikuluko honen 1. paragrafoko a) eta b) letretan deskribatutako baldintza berak betetzen dituztenak, betiere, preskripzio teknikoak hala eragiten badu.

c) Bizikidetzaren unitateari eusteko, eskatzailearekin batera, ohiko bizikidetzaren harremana duen ezkontidea edo izateko bikotekidea dena, eta, salbuespen gisa, haren kargura dauden seme-alabak ere sartu ahal izango dira adinekoentzako ostatu-zerbitzuan, artikuluko honen 1. paragrafoan aurreikusitako kasuetan.

Hala ere, aurreko lehenaldian aipatutako pertsonen plaza izateko eskubidea galduko dute, baldin eta familia berriro elkartzeagatik eskubidea ematen dion pertsona hiltzen bada edo beste edozein arrazoiengatik plaza izateko eskubidea galtzen badu, salbu eta une horretan sartzeko baldintzak betetzen badituzte eta espediente hori ohiko bidetik, edo, zerrendan puntuazio handiagoa duten pertsonak badaude, salbuespeneko bidetik onartzen bada.

3.- Eguneko arreta-zerbitzuaren arreta-subjektuak honako hauek izango dira: mendekotasun-arriskuan dauden hirurogeita bost urte edo gehiago dituzten adinekoak (MBB: 23 eta 24) edo I. mendekotasun-maila dutenak eta 40 puntu baino gutxiago dituztenak, beren ohiko bizi-ingurunean egoten eta gizarteratzen laguntzeko, intentsitate txikiko laguntza behar duten isolamendu-egoerak konpentsatuz, zerbitzu horrek artatzen dituen beharrak estaltzeko.

4.- Salbuespen gisa, honako hauek ere izan daitezke etxebizitza komunitarioko eguneko arreta-zerbitzuaren onuradun, ohiko modalitatean:

a) Hirurogeita bost urte edo gehiago dituzten adinekoak, aitortutako mendekotasun-mailarik ez dutenak, baldin eta artikuluko honetako aurreko 3. paragrafoko behar berberak betetzen badituzte, eta preskripzio teknikoak hala eskatzen badu.

b) Hirurogei urte edo gehiago dituzten eta I. gradu mendekotasuna duten 40 puntu baino gutxiagoko adineko pertsonak, baldin eta artikuluko honen 3. paragrafoan deskribatutako premia berak badituzte eta preskripzio teknikoak hala eragiten badu.

5.- Era berean, eta organo eskudunak baimena eman ondoren, hutsik dagoen plaza esleitu ahal izango da, hutsik dauden postuak esleitzeko zerrendetan, ostatu-zerbitzuan eta etxebizitza komunitarioko eguneko arreta-zerbitzuan ezarritako lehentasun-ordenari jarraitu gabe.

7. artikulua.- Familia-unitatea

Erregelamendu honetan aurreikusitako ondorioetarako, familia-unitatea honako hauek osatzen dutela ulertuko da:

- zerbitzuaren onuraduna bera;
- ezkontidea edo harekin legez onartutako ezkontzaren antzeko harremanaren bidez lotutako pertsona, behar bezala egiaztatuta, bigarren xedapen gehigarrian zehaztutakoaren arabera.
- adingabeko ondorengoak, baldin eta eskatzaileak guraso-ahala badu eta haien sostengu ekonomikoari laguntzen badio, osorik edo zati batean.
- 18 urtetik gorako seme-alabak, ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasuna badute, eta zerbitzuaren onuradunarekin bizi badira;
- 18 eta 25 urte bitarteko ondorengoak, ikasketa akademiko aratuak egiten ari direnak, baldin eta eskatzaileak guraso-ahala badu eta horien sostengu ekonomikoari laguntzen badio, modu partzialean edo osoan.

Ondorengoen zaintza partekatuen kasuetan, pertsona horiek zerbitzua eskatu duen pertsonaren familia-unitatean sartuko dira. Aurreko ahaide biek zerbitzua eskatzen dutenean, mendekotasun-maila handiena duen eskatzailearen familia-unitatean sartuko da lehen ondorengoa, mendekotasun-maila txikiena duen eskatzailearen familia-unitatean bigarrena, eta horrela, hurrenez hurren, ondorengoen kopuruaren arabera.

Nolanahi ere, pertsona bat familia-unitate bakar bateko kide izan daiteke.

8. artikulua.- Sartzeko baldintzak

Araudi honen 6. artikuluan aurreikusitako egoeretako batean egoteaz gain, eskatzaileak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

1) Baldintza administratiboak:

- a) Eskaera egiten den egunean Arabako Lurralde Historikoko udalerri batean erroldatuta egotea, Gasteizko udalerrian izan ezik, eta bertan erroldatuta egotea zerbitzuak irauten duen bitartean, hala badagokio.
Erregelamendu honen 6.2 artikuluen b) letran eta 6.4 artikuluen b) letran bildutako pertsonen Arabako Lurralde Historikoko udalerriren batean adinekoentzako ostatu-zerbitzurako sarbidea izateko eskaera egin aurreko 12 hilabeteetan egon beharko dute erroldatuta.
- b) Laguntza-sare soziofamiliarreko bizilekuen arteko txandakatze-kasuetan, baldintza hori bete ahal izango du zaindutako pertsonak edo zaindutako edozein senidek, baldin eta eskaera aurkezteko unean elkarbitzita egon bada edo badago.
- c) Preskripzio teknikoak adieraztea baliabide egokiena dela beharrei/egoerari erantzuteko.

2) Beharrian-baldintzak:

- a) Osasun-laguntza espezializatu edo iraunkorrik behar ez izatea, zerbitzuaren berezko zuzkiduren irismentetik eta aukeretatik kanpo.
- b) Jokabide-nahasmendurik ez izatea edo zerbitzuaren funtzionamendua edo ohiko bizikidetzaren modu larrian nahas dezakeen portaerarik ez izatea, edo norberarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo profesionalentzat arriskua ekar dezakeenik ez izatea.
- c) Dagokion tratamendua ez errefusatzeko, gaixotasun infekzioso-kutsagarriren bat edo gaixotasun mentalen bat izanez gero.

9. artikulua.- Erabiltzaileen eskubideak

2.- Lotura hori badagoela egiaztatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, edo, hala badagokio, dagokion udal-erregistroak emandako ziurtagiria, lege horretako 3. artikuluan araututakoaren arabera.

Xedapen gehigarri honetan jasotako definizioa aplikatu beharrekoa dela ulertu behar da, lotura hori aipatzeko erabilitako terminologia edozein dela ere (ezkontzaren

antzeko lotura, ezkontzaren antzeko afektibitate-harremana, izatezko bikotea edo beste batzuk).

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik geratzen dira maila bereko edo beheragoko arau guztiak, erregelamendu honetan xedatutakoarekin kontraesanean edo bertan xedatutakoaren aurka dauden puntuetan.

AZKEN XEDAPENA

Erregelamendu hau 2026ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

I. ERANSKINA**OSTATU ZERBITZUA ERABILTZEKO BAREMOA. ETXEBIZITZA KOMUNITARIOA**

Sartzeko baremoak eskatzaileen zerrenda antolatzeko irizpideak ezartzen ditu, bai eta zerbitzua eskuratzeko lehentasuna ere, mendekotasun mailaren, gaitasun ekonomikoaren eta diagnostiko sozialaren arabera.

BAREMOAREN EGITURA:

<i>DIMENTSIOAK</i>	<i>PUNTUAZIO-TARTEAK</i>
1.- Mendekotasun maila	<u>30-60</u>
2.- Egoera ekonomikoa	<u>0-12</u>
3.- Etxebizitza	<u>0-13</u>
4.- Familia-egoera	<u>0-13</u>
5.- Gizarte-isolamendua	<u>0-2</u>
GUZTIRA	<u>0-100</u>

BAREMOA:

<i>DIMENTSIOA</i>	<i>BAREMOA</i>	<i>Puntuak</i>	
1.- MENDEKOTASUN MAILA	23 / 24 puntuko MBBa	30	☐
	25 puntutik 49ra bitarteko MBBa	60	☐
	GUZTIRA (60 puntu gehienez)		
3.- EGOERA EKONOMIKOA	HILEKO GAITASUN EKONOMIKOA		
	1.500 € baino gehiago. Edo ez du nahi bere egoera ekonomikoa baloratzea	0	☐
	1.401 € eta 1.500 € artean	2	☐
	1.301 € eta 1.400 € artean	3	☐
	1.201 € eta 1.300 € artean	4	☐
	1.101 € eta 1.200 € artean	5	☐
	1.001 € eta 1.100 € artean	6	☐
	901 € eta 1.000 € artean	7	☐
	801 € eta 900 € artean	8	☐

	701 € eta 800 € artean	9	☐
	601 € eta 700 € artean	10	☐
	501 € eta 600 € artean	11	☐
	500 € arte	12	☐
	GUZTIRA (12 puntu gehienez)		
3.- ETXEBIZITZA	EDUKITZA-ERREGIMENA		
	Etxebizitza jabetzan	0	☐
	Etxebizitarik ez izatea jabetzan	1	☐
	Alokairuko etxebizitza, ohiko etxebizitza, pentsioa edo antzekoa galtzeko arriskuarekin	2	☐
	Ostaturik gabe	5	☐
	GUZTIRA (5 puntu gehienez)		
	BIZIGARRITASUNA (markatu egokitzen direnak)		
	Etxebizitza biziezina (egiturazko arazoak)	2	☐
	Tresnak eta muturreko zikinkeria pilatzea/Osasungaiztasuna/Pilaketak	2	☐
	GUZTIRA (4 puntu gehienez)		
	OZTOPO ARKITEKTONIKOAK		
	Oztopo arkitektonikorik gabe	0	☐
	Bere ohiko etxebizitzarako sarbidea mugatzen duten oztopo arkitektonikoak, konpontzeko modukoak direnak.	2	☐
	Bere ohiko etxebizitzarako sarbidea mugatzen duten oztopo arkitektonikoak, konpontzeko modukoak ez direnak.	4	☐
	GUZTIRA (4 puntu gehienez)		
GUZTIRA ETXEBIZITZA (13 puntu gehienez)			
4.- FAMILIA-EGOERA	HARREMANAK		
	Harreman-arazorik gabe	0	☐
	Narriadura harremanetan (mendekoei arreta defizitarioa ematea barne...)	1	☐

	Harreman gatazkatsua / Inolako harremanik gabea / familiarik gabea	3	☐
	Abusua/Tratu txar ekonomikoa eta/edo fisikoa	5	☐
	GUZTIRA (5 puntu gehienez)		
	BIZIKIDETZA-EGOERA		
	Bakarrrik bizi da	4	☐
	Partekatutako etxebizitza bizi da	2	☐
	Familiarekin bizi da	0	☐
	GUZTIRA (4 puntu gehienez)		
	ZAINTZAILEAREN EGOERA		
	Beste kargarik gabe	0	☐
	Beste karga batzuk	2	☐
	Gainezkatzea / Familia-amore ematea	4	☐
	GUZTIRA (4 puntu gehienez)		
	GUZTIRA FAMILIA-EGOERA (13 puntu gehienez)		
5.- ISOLAMENDUA	Gizarte-isolamendurik gabe	0	☐
	Gizarte- eta familia-sareak ahultzea	1	☐
	Gizarte-isolamendua	2	☐
	GUZTIRA (2 puntu gehienez)		

BAREMOAREN LABURPENA

DIMENTSIOAK	PUNTUAZIOA
1.- Mendekotasun maila	
2.- Egoera ekonomikoa	
3.- Etxebizitza	
4.- Familia-egoera	
5.- Gizarte-isolamendua	
GUZTIRA	

II. ERANSKINA**OSTATU-ZERBITZUKO EGUNEKO ARRETA-ZERBITZURA SARTZEKO BAREMOA**

Sartzeko baremoak eskatzaileen zerrenda antolatzeko irizpideak ezartzen ditu, bai eta zerbitzua eskuratzeko lehentasuna ere, mendekotasun-mailaren, gaitasun ekonomikoaren eta diagnostiko sozialaren arabera.

BAREMOAREN EGITURA:

DIMENTSIOAK	PUNTUAZIO-TARTEAK
1.- Mendekotasun maila	<u>30-60</u>
2.- Egoera ekonomikoa	<u>0-12</u>
3.- Familia-egoera	<u>0-22</u>
4.- Gizarte-isolamendua	<u>0-6</u>
GUZTIRA	<u>0-100</u>

BAREMOA:

DIMENTSIOA	BAREMOA	Puntuak	
1.- MENDEKOTASUN MAILA	23 / 24 puntuko MBBa	30	☐
	25 puntutik 49ra bitarteko MBBa	60	☐
	GUZTIRA (60 puntu gehienez)		
2.- EGOERA EKONOMIKOA	HILEKO GAITASUN EKONOMIKOA		
	1.500 € baino gehiago. Edo ez du nahi bere egoera ekonomikoa baloratzea	0	☐
	1.401 € eta 1.500 € artean	2	☐
	1.301 € eta 1.400 € artean	3	☐
	1.201 € eta 1.300 € artean	4	☐
	1.101 € eta 1.200 € artean	5	☐
	1.001 € eta 1.100 € artean	6	☐
	901 € eta 1.000 € artean	7	☐
	801 € eta 900 € artean	8	☐
	701 € eta 800 € artean	9	☐
	601 € eta 700 € artean	10	☐
	501 € eta 600 € artean	11	☐

	500 € arte	12	☐
	GUZTIRA (12 puntu gehienez)		
3.- FAMILIA-EGOERA	HARREMANAK		
	Harreman-arazorik gabe	0	☐
	Narriadura harremanetan (mendekoei arreta defizitariora ematea barne...)	2	☐
	Harreman gatazkatsua / Inolako harremanik gabea / familiarik gabea	4	☐
	GUZTIRA (4 puntu gehienez)		
	BIZIKIDETZA-EGOERA		
	Bakarrik bizi da	6	☐
	Etxebizitza partekatuan bizi da	2	☐
	Familiarekin bizi da	0	☐
	GUZTIRA (6 puntu gehienez)		
	ZAINTZAILEAREN EGOERA		
	Beste kargarik gabe	0	☐
	Beste karga batzuk	2	☐
	Gainezkatzea / Familia-amore ematea	6	☐
	GUZTIRA (6 puntu gehienez)		
	Egokia garbiketan, jantzetan, elikaduran	0	☐
	ZAINTZA		☐
	Egokia garbiketan, jantzetan, elikaduran	0	☐
	Higiene- eta elikadura-defizita, zaintzarik gabeko itxura	6	☐
	GUZTIRA (6 puntu gehienez)		
GUZTIRA FAMILIA-EGOERA (22 puntu gehienez)			
4.- ISOLAMENDUA	Gizarte-isolamendurik gabe	0	☐
	Gizarte- eta familia-sareak ahultzea	4	☐
	Gizarte-isolamendua	6	☐
	GUZTIRA (6 puntu gehienez)		

BAREMOAREN LABURPENA

<i>DIMENTSIOAK</i>	<i>PUNTUAZIOA</i>
1.- Mendekotasun maila	
2.- Egoera ekonomikoa	
3.- Familia-egoera	
4.- Gizarte-isolamendua	
GUZTIRA	

III. ERANSKINA

ADINEKOENTZAKO OSTATU ZERBITZUAREN BARNE FUNTZIONAMENDURAKO ARAUAK**- Izaera orokorrekoak**

- Erregelamendu honen edukia ezagutu eta betetzen saiatu beharko da.
- Zentroan bertan eta bere jarduerekin zerikusia duen beste edozein tokitan, elkarbizitzarako, higienerako eta elkarrenganako errespeturako arauak gordetzeko ahalegina egingo da, giro harmonikoa sortzeko.
- Behar bezala erabiliko dira erabiltzaileen eskura jarritako instalazioak eta zerbitzuak.
- Aurkitutako edozein objektu zentroko langileei edo oinarritzko gizarte-zerbitzuko langileei emango zaie.
- Finkatutako ordutegiak errespetatuko dira. Horietan aldaketaren bat egonez gero, behar besteko aurrerapenarekin jakinaraziko da.
- Hitzez edo idatziz adierazten diren arauak eta oharrak kontuan hartuko dira, eta betetzen saiatuko da, zentroaren martxa onari laguntzeko.
- Gomendatzen da ostatuan baliozko objekturik edo diru kopuru handirik ez izatea.
- Atsedean-orduetan isilik egotea.

- Otorduei buruz

- Gosaria, bazkaria, askaria eta afaria jantokietan zerbitzatuko dira adierazitako orduetan.
- Gaixorik egonez gero eta medikuaren aginduz baino ez dira zerbitzatuko otorduak gelan.
- Otordu-erregimena berdina izango da erabiltzaile guztientzat.
- Dieta bereziak egiteko aukera egongo da, hala aholkatzen duen mediku-txostena aurkeztu ondoren. Menua iragarki-taulan egongo da ikusgai.
- Ezin da zerbitzutik elikagairik edo tresnarik sartu edo atera, hala nola mahai-tresnak, edalontziak, platerak, ezpainzapiak, etab.
- Nolabaiteko duintasunez jaten saiatu, besteentzat desatseginak izan daitezkeen formak saihestuz.
- Jantokian leku bera hartzea komeni da.

- Arropari eta norberaren garbitasunari buruz

- Zentroa soilik zerbitzu hori eman zaien pertsonen arropa garbitzeaz eta lisatzeaz arduratuko da.
- Ikuztegiak hondatzen edo galtzen den arropa zentroak konpondu edo ordezkatzeko du, jantziaren antzinasunaren arabera.

- Komeni da argi eta garbi hondatuta dagoen arropa pertsonala kentzea eta jantziak aldian behin berritzea, erabiltzailearen gustura. Arropa erosteko zailtasunak dituzten erabiltzaileek gizarte-langilearengana jo beharko dute, eta hark behar bezala lagunduko dio.
- Erabilera pertsonalerako arropa markatu behar du, nahasketarik edo galerarik ez izateko.
- Norberaren itxura zaintzea ongizate-faktorea da erabiltzailearentzat eta inguruan bizi diren pertsona guztientzat; horregatik, gomendatzen da erabiltzailea egunero garbitzea eta behar bezala jantzea, bere gustuen eta ohituren arabera. Arropak eta oinetakoek ahalik eta erosoena izan beharko dute.
- Dutxa edo bainu erregularra intimitate baldintza zorrotzetan egin behar da. Bainu-zerbitzua onartuta badago, adierazitako ordutegien barruan egingo da. Erabiltzaileak eguneroko higienarako/bainatzeko zailtasunak baditu, zerbitzuko langileek lagunduko diote.

- Logelei buruz

- Zentroan sartzean, gela batean plaza esleituko zaio. Esleipen hori egin aurretik, erabiltzaileak aurkeztutako lehentasunak eta baldintzak baloratu beharko dira. Gelaz aldatu nahi badu, gizarte-langileari jakinarazi beharko dio, hark motibazioak eta aldaketa gertatzeko aukera balora ditzan. Zerbitzuaren beharrak direla-eta hasieran esleitutako gelan aldaketaren bat egin behar bada, behar besteko aurrerapenarekin jakinaraziko zaio, urgentziatzko egoera bat gertatzen ez bada.
- Gela leku intimoa da, non erabiltzailea bere espazio pertsonalaren jabe den. Beharrezko altzariz hornituta dago: bere gauzak giltzaz gordetzeko armairua, hala nahi izanez gero, eta dagokion hotel-arropa (izarak, mantak, toallak). Erabiltzaileak hala nahi badu, bere altzariak erabili ahal izango ditu, gela bere gustura apaindu eta bere tresna pertsonalak espazioak eskaintzen dituen aukeren barruan jarri ahal izango ditu, betiere, mugimenduak oztopatzen ez badituzte edo berarentzat arriskutsuak badira.
- Erabiltzaileak eguneko edozein ordutan erabil dezake gela, baita bertan bisitak jasotzeko ere, erabateko pribatutasunez, eta atea giltzaz itxi dezake, hala nahi izanez gero.
- Egunero, erabiltzaileak bere gela eta bere gauzak antolatzeaz eta ohea egiteaz arduratu beharko du, jarduera jakin bat mantentzeko neurri gisa, bere autonomia eta pribatutasuna gordetzeaz gain.
- Higiene- eta osasun-arrazoiengatik, ez da elikagairik eduki behar gelan; horretarako, leku egokia dago sukalondoan.
- Segurtasun arrazoiengatik ezin da kozinatu logeletan.
- Gelatik irteten den bakoitzean, erabiltzaileak argiak, telebista eta irratia itzali behar ditu, baditu, eta iturriak ondo itxita utzi behar ditu.

- Beste egoiliar baten gelara joaten den bakoitzean, atea jo beharko du eta sartzeko gonbidapena jaso arte itxaron. Langileek ere atea jo behar dute haren gelara sartu aurretik.
- Erabiltzaileak gelako instalazio eta horniduretan (iturgintza, elektrizitatea, leihoak...) ikusten duen edozein anomalia jakinarazi behar dio erreferentziako gizarte-langileari.
- Bere gela partekatuz gero, beharrezkoa da erabiltzaile bakoitzak beste pertsonaren eskubideak kontuan hartzea, bere espazioa, objektuak eta jantziak errespetatzea eta gelako zerbitzu komunak modu ekitatiboan erabiltzea, baita bertan bisitarik izango duen jakinaraztea ere. Kontu handiz ibili behar dute, gelakidearen atsedenaren ez eteteko.

- Segurtasun eta osasun publikoari buruz

- Debekatuta dago erretzea zerbitzuaren instalazio osoan.
- Logelen barruan telebistak, irratiak eta musika ekipoak, tabletak, sakelako telefonoak eta ordenagailuak baino ez dira erabiliko, eta horiek erabiltzeak ez die zaratarik eta eragozpenik sortuko beste pertsona batzuei.

- Langileekiko harremanei buruz

- Zerbitzuko langileak erabiltzailearen esanetara daude, jasotzen duten arreta ahalik eta kalitatetik handienekoa izan dadin.
- Inolako murrizketarik gabe jo daiteke edozein profesionalengana, adeitasunez eta errespetuz egiten saiatuz.
- Arreta jarriko da zerbitzuko langileek ostatu-zerbitzu osoaren eta erabiltzailearen mesedetan egin ditzaketen oharretan.
- Zerbitzuko langileek laguntza emango diete behar duten pertsonari. Salbuespenez, erabiltzailearen eta boluntarioen senitartekoei edo lagunek ere egin ahal izango dute hori, baldin eta zerbitzuaren arduradunarekin edo zerbitzuko langileekin adostu bada.
- Pertsona guztiek, bai erabiltzaileek bai profesionalak, eskubidea dute arreta ahalik eta errespetu, zuzentasun eta ulermen handienarekin jasotzeko.
- Erreferentziako profesional bat izendatuko da erabiltzaile bakoitzarentzat.

- Familiekiko harremanei buruz

- Familiekiko komunikazioak behar den bezain ohikoa eta arina izan beharko du zerbitzua eskaintzen den bitartean, eta, zehazki, pertsonaren egokitze-aldian zehar.

- Irteeren araubidea eta bisiten ordutegiak

- Arrazoiren batengatik irten behar badu, irten daiteke, betiere, zentroaren dinamikari eragiten ez badiu eta aldeztu aurretik talde profesionalari jakinarazita. Arrazoiren batengatik ezin bada bakarrik irten, zerbitzuko

langileek, lagunek, senideek edo boluntarioek lagundu ahal izango diote, erabiltzailearekin harremana dutela egiaztatzen badute.

- Erabiltzaileak eskubidea du zentroan programatutako jardueretan parte hartzeko.
- Senitartekoen edo lagunen bisitak, egoera berezietan izan ezik, aldeztu aurretik jakinarazi beharko zaizkie adinekoentzako Ostatu Zerbitzuko langileei, programatutako jarduerak eta zerbitzuaren dinamika behar ez den moduan eten ez daitezen.

- Erabiltzaileak parte hartzeko bideak

- Adinekoentzako ostatu-zerbitzuan parte hartzea faktore garrantzitsua da, eta eragin oso positiboa du eguneroko bizitzan eta zerbitzuaren martxa orokorrean.
- Erabiltzaileari zuzenean eragiten dion edozein erabaki kontsultatuko zaio, eta hala eskatzen bada edo komenigarritzat jotzen bada, erreferentziako senideari ere kontsultatuko zaio.
- Zentroaren dinamika soziokulturalean parte hartzea borondatezkoa izango da, erabiltzaileentzat egokitua eta haien proposamenei irekia, ahal den neurrian erabiltzaileen eskaerei erantzunez.

- Erreklamazio-prozedura, kexen eta iradokizunen araubidea

- Adinekoentzako bizileku-zerbitzuak iradokizunak, erreklamazioak edo kexak aurkezteko aukera ematen die erabiltzaileei, zerbitzuaren kalitatean eragiten duten edo, zuzenean edo zeharka, beren eskubideen erabileran eragiten duten zerbitzuaren antolaketaren edo funtzionamenduaren alderdiekin lotuta badaude.
- Zuzenean edo/eta erreklamazio-orri baten bidez egin daiteke. Orri hori udaleko gizarte-zerbitzuari eska dakioke, eta une oro konfidentzialtasuna bermatuko da.
- Kexak jasotzeaz eta formalki izapidetzeaz arduratzen den pertsona udaleko gizarte-zerbitzuaren arduraduna da.
- Kexa idazteko zailtasunak izanez gero, gizarte-laneko profesionalak aholkularitza eta laguntza emango du.
- Gainera, iradokizunak jasotzeko postontzi bat dago zerbitzuan, eta bertan utz daitezke, betiere, konfidentzialtasuna bermatuz.

- Osasunarekin lotutako gaiak

- Elikadura-erregimena aldatzea, ohea gordetzeko beharra, kontsultak eta ospitaleratzea, besteak beste, osasun-sistema publikoaren medikuaren aginduz egingo dira beti.
- Gaixorik dauden erabiltzaileek bisitak jaso ditzakete, zerbitzuko langileei aldeztu aurretik jakinarazita, betiere, euskal osasun-sistemako lehen mailako arretako medikuak kontraindikaziorik ez badu.

- Erabiltzaileari une oro emango zaio eragin diezaioketen gai guztiei buruzko informazio osoa eta ulergarria (osasun-egoera, tratamenduak edo neurriak eta zerbitzuak, espedientea, etab.), eta nahi ez duena onartu edo baztertu ahal izango du.
- Erabiltzaileak bere nahia adieraz dezake, hil ondoren nola jokatu behar den, zentroak bere azken nahiak betearaz ditzan. Horren arabera, zentroak gauza pertsonalak kenduko ditu eta erabiltzaileak nahi izan duen bezala tratatuko ditu.

Durana, 2025ko urriaren 30a

Alkatea

M^a Blanca Antépara Uribe.

**Udal ordenantza,
Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuari lotutako prestazio
ekonomikoa (ZLPE) arautzen duena, Arratzua-Ubarrundiako Udalaren
eskumen-esparruan.**

**I. TITULUA
Xedapen orokorrak**

1. artikulua – Xedea eta aplikazio-eremua

1.- Udal ordenantza honen xedea da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoari aplikatu beharreko araubide juridikoa eta ekonomikoa arautzea, udal eskumeneko zerbitzuetan.

Hau da, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, ordenantza honen xedea dena, lotuta dago gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpo dauden adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzuekin eta ostatu-zerbitzuekin (etxebizitza komunitarioak), eta bi modalitatetan egituratzen da:

— Atsedeen-modalitatea, adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzu edo ostatu-zerbitzuarekin (etxebizitza komunitarioa) lotuta dagoenean –kasu guztietan gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpo–, urtean gehienez 45 egunez –, zerbitzuaren izaeraren arabera.

— Modalitate arrunta, adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzu edo ostatu-zerbitzuarekin (etxebizitza komunitarioa) lotuta dagoenean –kasu guztietan gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpo–, urtean 45 egun edo gau baino gehiago direnean, -zerbitzuaren izaeraren arabera-, aurreko gidoian aipatutako atsedeen-zerbitzuetarako ezarritako dagoena eta aldi baterako edo iraunkorra izan daitekeena.

2- Aipatutako prestazio ekonomikoa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren integratzen da, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean aurreikusitakoaren arabera. Lege horren 22. artikuluan sistema horretako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan jasota dago. Urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzkoak, I. eranskineko 3.4.1 fitxan jasota dauka.

3- Prestazio ekonomiko hau emateko baldintzak eta hori emateko eta aplikatzeko prozedurak aurreko paragrafoan aipatutako araudian xedatutakoaren arabera arautuko dira, baita ordenantza honetan jasotako xedapen espezifikoaren arabera ere.

2. artikulua – Definizioak

1.- Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa, modalitate arruntean, gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpoko zerbitzu eta zentroetara sartzeko, urtean 45 egun edo gau baino gehiago – zerbitzuaren izaeraren arabera – atsedeen-zerbitzuetarako ezarrita dagoen prestazio ekonomiko bat da. Prestazio horrek mendekotasun-maila bakoitzerako ezarritako zerbitzuen eta zentroen kostua finantzatzen laguntzen du, betiere, sartzeko ebazpena ematen den unean, eskatzaileak zain badaude prestazio ekonomikoari dagokion zerbitzuaren Lanpostu Hutsak Esleitzeko Zerrendan.

Modalitate honetan, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa modu jarraituan baliatu beharko da.

2.- Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa, atsedeen-modalitatean, adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzuan edo ostatu-zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa), gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpoko kasu guztietan, prestazio ekonomiko bat da, zerbitzu horien kostua finantzatzen laguntzera bideratua, baita, mendekotasuna aitortua duen pertsona bat zaindu ohi duten arren, atsedeen hartzeko, etxebizitzan erreformak egiteko, ospitaleratuak izateko edo antzeko egoeretan egoteko egun batzuk behar dituzten pertsonen laguntzera ere. Ondorio horietarako, 45 egun edo gaueko gehieneko denbora-muga aplikatuko da, atsedeen-zerbitzuaren izaeraren arabera.

Atsedeenaldien horiek modu jarraituan edo ez jarraituan hartu ahal izango dira.

Aurrekoaren ondorioetarako, gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpokotzat joko dira sistema horretan sartuta ez dauden zerbitzu eta zentroak, eta ulertuko da Arratzua-Ubarrundiako Udalak emandako zerbitzuak sartuta daudela, bai kudeaketa zuzena duelako, bai beste erakunde publiko batzuekin egindako hitzarmenen bidez ematen delako, baita erakunde pribatuekin egindako itun, hitzarmen edo kontratuen bidez ematen delako ere.

3. artikulua – Izaera eta ezaugarriak

1.- Udal ordenantza honetan araututako prestazio ekonomikoa mendetasun-arriskuan edo mendetasun-aitorpenean dauden eta hura eskuratzeko berariaz araututako baldintzak betetzen dituzten pertsonentzako eskubidea da, betiere zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoari lotutako zerbitzua banakako arreta-programan jasotzen bada eta dagokion gizarte-zerbitzuak baliabide egokitzat jotzen badu.

2- Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoak ezaugarri hauek ditu:

- a) Mendetasun-arriskuaren arabera aitortzen da (23 eta 24 puntu MBB-Mendekotasuna Baloratzeko Baremoan) edo 1. graduko mendetasun-aitorpenaren arabera.

b) Izaera finalista du, eta aurreko artikuluetan prestazio ekonomikorako ezarritako helburuei lotutako gastuen estaldurari aplikatu behar zaio.

c) Aldizkakoak dira.

d) Besterenezina da eta, beraz, ezin da:

- Obligazioen berme gisa eskaintzea.
- Osorik edo zati batean lagatzea.
- Bere ordezkari konpentsazioa edo deskontua jasotzea, salbu eta prestazioaren kontzeptuan bidegabeki jasotako zenbatekoak itzultzeko ez bada, edo onuradunak udal politika sozialen kudeaketan eskumena duen sailak emandako prestazio edo zerbitzuengatik Arratzua-Ubarrundiako Udalari ordaintzeko duen beste edozein zor ordaintzeko ez bada.
- Atxikitzea edo enbargatzea, aplikatzekoa den Estatuko legeria orokorrean aurreikusitako kasuetan eta mugekin izan ezik.

e) Subsidiarioa da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren integratutako zerbitzuei dagokienez, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera.

Izaera subsidiario horrek, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren kasuan, zehazten du ezin dela lehentasunezko baliabide gisa adierazi arreta-programa indibidualaren esparruan, honako kasu hauetan izan ezik:

— 75 urtetik beherako pertsonen mendetasun-egoera behin-behinean onartzen den kasuetan, zerbitzu egokia adinekoentzako ostatu-zerbitzua (etxebizitza komunitarioa) denean, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa izango da lehentasunezko baliabidea, salbu eta inguruabarrek gizarte-zerbitzuen sistema publikoko zerbitzu bat eskuratzeko aukera egokiena dela erabakitzen badute eta hori txosten tekniko baten bidez balioetsi eta justifikatzen bada.

4. artikulua – Prestazio ekonomikoen arteko bateragarritasun eta bateraezintasunaren araubidea

1.- Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean araututako prestazio ekonomikoak bateraezinak izango dira elkarren artean.

Aurrekoa gorabehera, babes-maila gehigarriaren esparruan, mendetasun-egoeran dagoen pertsona etxean geratzea errazten duten laguntzara, zaintzara eta arretara bideratutako prestazio ekonomikoak modu honetan bateratu ahal izango dira arriskuan edo mendetasun-egoeran dauden pertsonentzat:

- a) Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa eta Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa bateratu ahal izango dira, betiere prestazio horrekin bateragarria den zerbitzu bati lotzen bazaio.

- b) Familia Inguruneko Zainketetarako eta Profesionalak ez diren Zaintzaileei Laguntzeko Prestazio Ekonomikoa Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoarekin bateratu ahal izango da, betiere horrekin bateragarria den zerbitzu bati lotzen bazaio.

Bateragarritasun horiek indarrean dagoen araudiaren arabera dagozkion kenkariak aplikatzea ekarriko dute.

2.- Ordenantza honetan araututako prestazio ekonomikoak bateragarriak izango dira antzeko helburuak dituzten Estatuko araudian aurreikusitako beste prestazio batzuekin, horien subjektu eragilea edo horren onuradun izango dena mendekotasun-arriskuan dagoen pertsona edo 1. graduako mendekoa bada, nahiz eta familia-unitateko beste kide baten izenean agertu, bereziki:

- a) Baliaezintasun handiaren osagarria, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testuategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 194. artikuluan eta hurrengoetan arautua.
- b) Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testuategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 353.c) artikuluan aurreikusitako ehuneko 75eko edo gehiagoko desgaitasun-maila duten 18 urtetik gorako seme-alabengatiko esleipen ekonomikoaren osagarria, esleipen ekonomiko horren titulartasuna gurasoetako batena, tutoreetako batena edo pertsona berarena izan.
- c) Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testuategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 364. artikuluan aurreikusitako beste pertsona baten premiagatiko kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioaren osagarria.
- d) Minusbaliatuak Gizarteratzeko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 12.2.c) artikuluan aurreikusitako hirugarren pertsonarentzako laguntza-sorospena, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testuategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez atxikia, Legegintzako Errege Dekretu hori indarrean sartzean haren onuradun zirenentzat eta haren xedapen iragankor bakarrean aurreikusitako baldintzak betetzen dituztenentzat, esleipen ekonomiko horren titulartasuna gurasoetako batena, tutoreetako batena edo pertsona berarena izan ala ez.

Kasu horietan, 2. paragrafo honetan aipatzen diren prestazio ekonomikoak Udal Ordenantza honetako 15. artikuluan araututakoaren arabera gutxiko dira.

5. artikulua – Prestazio ekonomikoen eta zerbitzuen arteko bateragarritasun eta bateraezintasunaren araubidea

1.- Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, ordenantza honetan arautua, bateragarria izango da zerbitzuekin, honela:

Mendetasun-arriskuan edo mendekotasun-kon aitorpenean dauden I. graduako pertsonen kasuan, honako irizpide hauek aplikatuko dira:

- Zerbitzuarekin lotutako prestazio ekonomikoa, bai modalitate arruntean, bai atsedenerako modalitatean, mendetasun-arriskuan edo I. graduan dauden eta gizarte-zerbitzuen sistema publikoko zerbitzuekin zerikusirik ez duten pertsonen irekitako zerbitzuak eskuratzeko, bateragarria izango da zerbitzu bereberekin, lotzen den zerbitzua bateragarria bada.

Lerrokada honetan aurreikusitako bateragarritasunek kasuan kasuko kenkariak aplikatzea ekarriko dute, prestazio horiek arautzen dituen araudiaren arabera.

2.- Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa bateragarria izango da Eusko Jaurlaritzak emandako telelaguntza-zerbitzuarekin, salbu eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa bat denean, modalitate arruntean, adinekoentzako ostatu-zerbitzua (etxebizitza komunitarioa) eskuratzeko.

3- Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa bateragarria izango da prestazioaren titularra zerbitzu-plazak esleitzeko zerrendan sartzearekin, adinekoentzako ostatu-zerbitzuak (etxebizitza komunitarioak) barne.

6. artikulua – Banakako Arreta Programarekiko lotura

Ordenantza honetan araututako prestazio ekonomikoetako edozein ematea lotuta egongo da titularrarekin Arreta Programa Indibidual bat ezartzearekin, lotzen den zerbitzuaren egokitasuna zehaztuko duena. Banakako Arreta Programa hori erreferentziako profesionalak egin beharko du, bere irizpide teknikoari eta, ahal den neurrian eta egokia bada, erabiltzailearen lehentasunei jarraiki.

II. TITULUA

Prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidearen titularrak, eskuratzeko baldintzak eta betebeharrak

I. kapitulua

Prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidearen titularrak

7. artikulua – Eskubidearen titularrak

1.- Ordenantza honetan araututako prestazio ekonomikoaren titularrak izan daitezke mendetasun-arriskuan dauden pertsonak edo mendetasun-egoera aitortuta dutenak

eta Ordenantza honetan nahiz 1. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan araututako sarbide-baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituztenak.

2- Babes-maila gehigarria eskuratu ahal izango dute, artikuluko 1. paragrafoan aurreikusitakoa betetzeaz gain, mendekotasun-egoera aitortzeko lehen eskaera egin aurreko 3 urteetan Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta egon eta benetan bizi direla egiaztatzen dutenek. Era berean, babes-maila gehigarri hori eskuratu ahal izango dute, baldin eta, aitorten-dataren ondoren, Arabako Lurralde Historikoan 3 urtez jarraian erroldatuta egon eta benetan bertan bizi direla egiaztatzen badute, baldin eta hala eskatzen badute Ordenantza honetako IV. Eranskineko 017 inprimakia betez eta udalari hala egiaztatzen badiote.

3.- Aurrekoari kalterik egin gabe, arreta txandakatzen den kasuetan, babes-maila gehigarria eskuratzeko, beharrezkoa izango da egiaztatzea mendekotasuna duen edo mendetasun-arriskuan dagoen pertsonak Arabako Lurralde Historikoan duela egoitza espezifikoa urtean gutxienez 8 hilabetez.

II. kapitulua

Prestazioa eskuratzeko baldintzak

8. artikulua – Prestazioa eskuratzeko baldintza orokorrak

1.- Ordenantza honetan araututako prestazio ekonomikoa jaso ahal izateko, aurreko artikuluan definitutako pertsonak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari sartzeko baldintzak, Ordenantza honetan ezarritakoak eta prestazioari lotutako zerbitzuan sartzeko berezko baldintzak betetzea.
- b) Banakako arreta-programa bat izatea, prestazioari lotutako zerbitzua egokia den zehazteko.
- c) Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta egotea eta benetan bertan bizitzea, prestazio ekonomikoa jasotzea izapidetzeko dokumentazio osagarria aurkezten den egunean. Babes-maila gehigarria eskuratzeko, aurreko artikuluko 2. paragrafoan aipatutako erroldatze-aldiak eta benetako bizileku-aldiak betetzea.
- d) Gizarte-zerbitzuek eskatutako informazioa ematea eta dokumentazioa aurkeztea, prestazio ekonomikoa emateari edo ukatzeari buruz ebazteko egokia denean.

9. artikulua – Pertsonari eska dakizkiokeen betekizun bereziak

Berariaz, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa eskuratzeko, 8. artikuluan jasotako betekizun arruntez gain, eskatzaileak honako baldintza berezi hauek ere bete beharko ditu:

a) Prestazioari lotutako zerbitzua eskuratzeko baldintza bereziak betetzea.

b) Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoaren kasuan, modalitate arruntean, gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpoko zerbitzu eta zentroetara sartzeko, hurrengo artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituen zerbitzu edo zentro batean plaza duela egiaztatzea.

Eguneko zerbitzu baten erabiltzaile batek Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa modalitate arruntean eskuratzeko badu, 45 egun baino gehiagoz eta 3 hilabete baino gutxiagoz adinekoentzako ostatu-zerbitzu bat (etxebizitza komunitarioa) eskuratzeko –kasu guztietan, gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpo–, lekua zerbitzu horretan gorde ahal izango du, betiere zerbitzu horri dagokion prezio publikoaren ehuneko 90 ordaintzen badu adinekoentzako ostatu-zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa) dagoen lehen egunetik.

c) Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoaren kasuan, atsedenerako modalitatean, adinekoentzako ostatu-zerbitzu bat (etxebizitza komunitarioa) eskuratzeko –gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpo daudenak–, mendekotasuna duen pertsonak etxean bertan egon beharko du zainduta, gutxienez atsedenaldiaren aurreko eta ondorengo hiru hilabeteetan. Aurrekoa ez da eskatuko atsedenaldi horretan edo egonaldiaren ondorengo hiru hilabeteetan mendetasun-egoera bat-batean larriagotzen bada edo familia-egoera bat-batean aldatzen bada eta horrek etxera itzultzea edo bertan zaintzea eragozten badu. Kasu horietan, hasieran atsedene-modalitatean emandako zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa ofizioz aldatuko da modalitate arruntera, eta modalitate berri horri dagokion zenbatekoa aplikatuko zaio. Prestazioa birmoldatzea eragin dezaketen inguruabarrak 15 egun naturaleko epean jakinarazi beharko dira, etxera itzultzea edo hura zaintzea eragozten duen gertaera gertatzen den egunetik zenbatzen hasita.

Egonaldiaren ondorengo hiru hilabeteetan edo hiru hilabeteren barruan mendeko pertsona sare publikoko egoitza-plaza batean sartzen bada, horrek ez du prestazio ekonomikoa galduko; hala ere, prestazio hori zerbitzuari modalitate arruntean lotutako prestazio ekonomiko bihurtuko da ofizioz, eta modalitate berri horri dagokion zenbatekoa atsedenaldi osoan aplikatuko da.

10. artikulua – Zerbitzuari edo zentroari eska dakizkikeen baldintzak

1.- Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoari atxikitako zerbitzuak edo zentroak, edozein modalitatetan, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Arabako Foru Aldundiak emandako funtzionamendu-baimena izatea, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 41.10 artikuluan aurreikusitako baimen, ikuskapen, erregistro eta homologazioen eskumenei esparruan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Baimena, Erregistroa, Homologazioa eta Ikuskapena arautzen dituen martxoaren 10eko 40/1998 Dekretuan

xedatutakoaren arabera, zerbitzu edo zentro motaren arabera dagozkion baldintza materialak, funtzionalak eta langileenak betetzen direla egiaztatzean oinarrituta.

b) Arabako Lurralde Historikoan kokatuta egotea, ordenantza honen xedapen gehigarriaren 1 a) idatz-zatian aurreikusitako salbuespen-egoeraren kalterik gabe.

2.- Atsedeen-modalitaterako, atxikiko den zentroa edo zerbitzua beste edozein lurralde historikotan edo beste autonomia-erkidego autonomikotan egon ahal izango da. Zentro edo zerbitzu horrek jarduteko baimena edota dagokion organo eskudunak emandako egiaztagiria izan beharko ditu, baita eskatzaileak aurkeztu beharreko dokumentazioa ere.

11. artikulua – Zerbitzuz edo zentroz aldatzea

1- Onuradunak, edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariak edo izatezko zaintzaileak, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa modalitate arruntean lotuta dagoen zerbitzua edo zentroa aldatu nahi badu izaera bereko eta gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpoko beste zerbitzu edo zentro batera sartzeko, zerbitzua edo zentroa aldatzeko eta prestazio ekonomikoari eusteko baimena eskatu beharko du. Horretarako, lotu nahi den zerbitzu edo zentroarekin sinatutako kontratu berriarekin – edo, hala badagokio, aurrekontratuarekin – batera aurkeztuko du eskabidea, eta gehienez ere 30 egun naturaleko epean ebatziko da, eskaera aurkeztu den egunetik zenbatzen hasita. Administrazio-isiltasunaren kasuetan, baimena eman dela ulertu beharko da.

2- Zerbitzua edo zentroa aldatzeko eskaera horrek ez du ekarriko prestazioa iraungitzea, baldin eta zerbitzu edo zentro berriak aurreko artikuluan ezarritako baldintzak betetzen baditu eta zerbitzu edo zentroz aldatzeak ez badakar inolako etenik emandako arretan.

III. kapitula

Prestazio ekonomikoari lotutako betebeharrak

12. artikulua – Betebeharrak

Oro har, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren titularrak edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariak edo izatezko zaintzaileak, prestazio ekonomikoa onartzen denean, honako betebeharrak hartzen ditu:

- a) Prestazio ekonomikoaren zenbatekoa eman zen helbururako soilik erabiltzea, hurrengo artikuluetan prestazio ekonomiko bakoitzerako berariaz arautzen den moduan.
- b) Prestazioa eskuratzeko eskakizunei eustea eskurtze horren ondoren eta prestazioaren titularra den bitartean.

- c) Mendetasun-egoera aitortzeko kontuan hartutako egoeran izandako edozein aldaketa eta prestazio ekonomikoen iraupenean edo zenbatekoan eragina izan dezaketen aldaketa guztiak jakinaraztea, gertatzen den egunetik zenbatzen hasita 15 egun naturaleko gehieneko epean, ahalmen ekonomikoaren zehaztapenean eragina izan dezaketen aldaketak barne.
- d) Prestazio ekonomikoa kudeatzeko beharrezkoa den informazioa ematea eta eskatzen zaien dokumentazioa aurkeztea.
- e) Emandako prestazio ekonomikoak zein baldintzatan erabiltzen diren egiaztatzeko baimena ematea Arratzua-Ubarrundiako Udalari eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari.
- f) Bidegabe jasotako prestazioen zenbatekoa edo behar ez den zenbatekoa itzultzea.
- g) Prestazioaren berezko helburutik eratorritako guztiak.

III. TITULUA PRESTAZIOEN ARAUBIDE EKONOMIKOA

13. artikulua – Prestazio ekonomikoen gehieneko zenbatekoa finkatzea

1.- Zerbitzuari lotutako prestazioei dagozkien gehieneko zenbatekoak ordenantza bidez onartuko dira, honako maila hauek adierazita:

a) Oinarrizko babes-maila, prestazioak jasotzeko baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiei aplikatzekoa.

b) Arabako Lurralde Historikoan Lurralde horrekin lotura berezia dutela egiaztatzen dutenei aplikatu beharreko babes-maila gehigarria, Ordenantza honen 7.2 artikuluan aurreikusitako moduan.

2.- Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren prestazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 1051/2013 Errege Dekretuaren 13. artikuluan eta V. eranskinean xedatutakoaren arabera (Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarrita daude prestazio horiek), honako hau izango da zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren gutxieneko zenbatekoa, ohiko modalitatean:

MENDEKOTASUNAREN BALORAZIOAREN BAREMOAREN GRADUAK ETA PUNTUAZIOA	ZERBITZUAREKIN LOTUTAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA
	ZENBATEKOA / EURO HILEAN
I.gradua eta mendetasun arriskua (23-24BVD)	100,00

3.- Zerbitzuari modalitate arruntean lotutako prestazio ekonomikoen gehieneko zenbatekoak honako hauek izango dira:

Mendekotasuna baloratzeko baremoaren graduak eta puntuazioa	Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa	Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa, Arabako Lurralde Historikoan ondoz ondoko 3 urtez errolatuta egon direla eta ostatu iraunkorreko zerbitzua finantzatzen dela egiaztatzen dutenentzat	
		Hileroko euro-kopuruak	
		Zenbatekoa	Zenbatekoa
I. gradua eta mendetasun-arriskua (23-24 MBB Mendekotasuna Baloratzeko Baremoa)	300,00	575,30	

Honako hauek izango dira Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoen gehieneko zenbatekoak atsedeen-modalitatean:

Gradua	Prezioa/gaua	Prezioa/gaua 3 urtez jarraian Arabako Lurralde Historikoan errolatuta egon direla egiaztatzen dutenentzat	Zenbatekoa: lehenengo 15 egunetan
I. gradua eta mendetasun-arriskua (23-24 MBB Mendekotasuna Baloratzeko Baremoa)	10,00 euro	45,00 euro	95,00 euro

14. artikulua – Prestazio ekonomikoen banakako zenbatekoa zehaztea, ahalmen ekonomikoaren arabera

1.- Pertsona bakoitzari dagozkion prestazio ekonomikoen zenbatekoa zehazteko, pertsona horrek duen gaitasun ekonomikoa hartuko da kontuan, eta gaitasun ekonomiko hori kasuan kasuko zerbitzuen prezio publikoak arautzen dituen udal araudian ezarritakoaren arabera baloratuko da.

2.- Aurrekoa ez zaio aplikatuko Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoari, atsedeen-izaerarekin, adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzua edo ostatu-zerbitzua (etxebizitza

komunitarioa) eskuratzeko, gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpo daudenak, eta udal araudian zehazten diren zenbatekoetara soilik egokituko da.

3- Onuradun bakoitzari aitortu beharreko Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoaren banakako zenbatekoa zehazteko, aurreko artikuluan aipatutako ekitaldi bakoitzerako indarrean dagoen gehieneko zenbatekoari honako ehuneko hauek aplikatuko zaizkio, artikulua honen aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren arabera kalkulaturako ahalmen ekonomikoaren arabera:

Urteko gaitasun ekonomiko indibiduala	EHUNEKOA
96.315 eurotik gora	% 40
82.557 eurotik 96.315 eurora	% 50
68.797 eurotik 82.556 eurora	% 60
55.038 eurotik 68.796 eurora	% 70
45.865 eurotik 55.037 eurora	% 80
36.692 eurotik 45.864 eurora	% 90
36.692 euro baino gutxiago	% 100

4.- Hirugarren paragrafo honetan aurreikusitakoaren arabera zehaztutako prestazio ekonomikoaren banakako zenbatekoa 15. artikuluan aurreikusitako kenkarietara kalterik egin gabe ulertu beharko da, kenkari horiek aplikagarriak direnean.

5.- Aurreko bi paragrafoen arabera zehazten den prestazio ekonomikoaren zenbatekoa ez da inola ere kontratatutako zerbitzuaren edo zentroaren benetako kostua baino handiagoa izango.

15. artikulua – Kenkariak

1.- Artikulu honen 2. paragrafoan aurreikusitako salbuespenarekin, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoaren onuraduna 14. artikulua aplikatzearen ondoriozko prestazioaren zenbatekotik kenduko dira prestazio horiei dagozkien zenbatekoak, gizarte-babeseko beste araubide publiko batean ezarritako izaera edo helburu bereko eta antzeko beste edozein prestazioren titularra bada. Zehazki, honako prestazio hauei dagozkien zenbatekoak kenduko dira:

a) Baliaezintasun handiaren osagarria, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 194. artikuluan eta hurrengoetan arautua.

b) Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 353.c) artikuluan aurreikusitako ehuneko 75eko edo gehiagoko desgaitasun-maila duten 18 urtetik gorako seme-alabengatiko esleipen ekonomikoaren osagarria, esleipen

ekonomiko horren titulartasuna gurasoetako batena, tutoreetako batena edo pertsona berarena izan ala ez.

c) Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testuategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 364. artikuluan aurreikusitako beste pertsona baten premiagatikotikotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioaren osagarria.

d) Minusbaliatuak Gizarteratzeko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 12.2.c) artikuluan aurreikusitako hirugarren pertsonarentzako laguntza-sorospena, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testuategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez atxikia, Legegintzako Errege Dekretu hori indarrean sartzean haren onuradun zirenentzat eta haren xedapen iragankor bakarrean aurreikusitako baldintzak betetzen dituztenentzat, esleipen ekonomiko horren titulartasuna gurasoetako batena, tutoreetako batena edo pertsona berarena izan ala ez.

2- Artikulu honetan aurreikusitako kenkariak ez zaizkio aplikatuko Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoari, atsedeen-modalitatean, adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzua edo ostatu-zerbitzua (etxebizitza komunitarioa) eskuratzeko, gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpo daudenak. Eta udal araudiak zehazten dituen zenbatekoetara soilik egokituko da, 13. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

IV. TITULUA. PRESTAZIOA AITORTZEA, BERRIKUSTEA, ALDATZEA, ETETEA ETA AZKENTZEA

16. artikulua – Prozedura aplikagarria

Ordenantza honetan araututako prestazio ekonomikoari aplikatu beharreko prozedura titulu honetan jasotako prozedura-xedapenen arabera arautuko da, bai prestazioa aitortzeari dagokionez, bai hura berrikusteari, aldatzeari, eteteari eta azkentzeari dagokionez.

I. kapitula
Prozedurako arau orokorrak

17. artikulua – Prozeduraren instrukzioa

Prestazioen eskaerak idatziz eta eredu ofizialean egingo dira. Eskabidearekin batera, eskatutako prestazio bakoitzerako ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Gizarte Zerbitzuek prestazioak izapidetzeko behar duten informazio eta orientazio guztia emango diete eskatzaileei.

18. artikulua – Entzunaldiaren izapidea

Udalak eskatzaileak eskabidean aurkeztutakoez gain beste egitate edo froga batzuk ere kontuan har baditzake, udalak entzunaldi-izapidea prestatuko du, eskatzaileak dagozkion alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan.

II. kapitulua Prestazio Ekonomikoak Aitortzea

19. artikulua – Dokumentazioa

1.- Prestazio ekonomikoak jasotzeko, eskatzen dituen pertsonak, zuzenean edo bere legezko ordezkariaren edo izatezko zaintzailearen bidez, jarraian aipatzen den dokumentazioa aurkeztuko du:

- a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia edo, halakorik ezean, bizikidetzak-unitateko kide konputagarri bakoitzaren nortasuna egiaztatzen duen beste edozein agiri ofizialena, prezio publikoak arautzen dituen araudian aurreikusitakoaren arabera.
- b) Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren prestazio ekonomikoak eskuratzeko datu osagarriei buruzko justifikazio-dokumentazioa, diru-sarreraren eta ondasunen zinpeko aitortpena barne.
- c) Titularra eta kontua identifikatzeko fitxa, banketxeak sinatua eta zigitatua.
- d) Arabako Lurralde Historikotik kanpo dauden ondasunen titulartasuna egiaztatzen duten agiriak.
- e) Prestazio ekonomikoa beharrianari egokitzen zaion zehazteko beharrezkoak eta egokiak izan daitezkeen beste txosten batzuk.
- f) Hala badagokio, babes-maila gehigarria aplikatu ahal izateko, aurreko hiru urteetan jarraian Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta egon dela egiaztatzen duen udal ziurtagiria, ordenantza honen 7.2 artikuluan ezarritako baldintzetan.

2.- Modalitate arrunteko Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa denean, udaleko gizarte-zerbitzuekin zerikusirik ez duten zerbitzu edo zentroetan sartzeko:

- Kontratua edo, halakorik ezean, aurrekontratu bat, prestazioari lotutako zentro edo zerbitzu pribatuaren eta prestazioaren titularraren edo, hala badagokio, legezko ordezkariaren edo izatezko zaintzailearen arteko arreta-konpromisoa jasotzen duena. Dokumentu horretan, gutxienez, honako eduki hauek jaso beharko dira: zentroko egonaldiaren edo zerbitzuaren erabileraren hasieradata; titularrak ordaindu beharreko hileko prezioa; eta kontratatutako zerbitzuaren edukiaren deskribapena. Kontratuak edo, hala badagokio,

aurrekontratuak kontratu mugagabeko harreman bat aurreikusi beharko du, hasierako probaldia izango duena, Ordenantza honen 10 b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

- Hala badagokio, 22.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera titularra ez den pertsona fisiko edo juridiko bati zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa ordaintzeko baimena ematea.

3.- Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa denean, atsedeen-modalitatean, atsedeen-zerbitzuak eskuratzeko adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzuan edo ostatu-zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa), gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpo:

- Eskatutako gau edo egun kopurua, atsedeen-zerbitzuaren edo -zentroaren izaeraren arabera.
- Hala badagokio, 22.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera titularra ez den pertsona fisiko edo juridiko bati zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa ordaintzeko baimena ematea.

20. artikulua – Ebazpen-proposamena eta ebazpena

1.- Ordenantza honetan araututako zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa esleitzeko ebazpen-proposamenak eta ebazpenak eduki espezifiko hauek izan beharko dituzte:

- a) Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoaren kasuan, modalitate arruntean:
 - Prestazio ekonomikoa zein zerbitzu edo zentrori lotzen zaion;
 - Prestazioa iraungi egingo dela adieraztea, gizarte-zerbitzuen sistema publikoan sartuta dagoen izaera bereko zerbitzu edo zentro batean plaza hutsik badago, eta prestazioa lotzen zaion zerbitzu edo zentroaren izaerari dagokion Plazak Kudeatzeko Programako Lanpostu Hutsak Esleitzeko Zerrendan eskatzailerik zain ez badago;
 - Aldez aurretik zerbitzuarekin edo zentroarekin aurrekontratu bat aurkeztu bada, prestazioaren ordainketa eraginkorra azkenean formalizatutako kontratua aurkeztearen baldintzapean dagoela adieraztea;
 - Ahalmen ekonomikoa aldatzen zaionean, prestazio ekonomikoa berrikusteko eska dezakeela adieraztea, zenbatekoa aldatze aldera.
- b) Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoaren kasuan, atsedeen-modalitatean, eguneko arreta-zerbitzuan edo ostatu-zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa) - gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpo- emandako atsedeen-zerbitzuak eskuratzeko:
 - Prestazio ekonomikoa zein zerbitzu edo zentrori lotzen zaion identifikatzea.
 - Emandako gau- edo egun-kopurua, dagokion zentro edo zerbitzuaren izaeraren arabera;
 - Zein urte naturalerako ematen zaion.

2.- Kasu guztietan, ebazpenak berariaz adieraziko du esleitutako prestazio ekonomikoak jarraitu ahal izateko baldintza hauek bete beharko direla: prestazioa emateko arrazoiek bere horretan irautea, prestazioa eskuratzeko baldintzak betetzea, onarpenaren ondoriozko betebeharrak betetzea eta azkentzeko inolako arrazoirik ez egotea, Ordenantza honen 23. artikuluan eskubidearen iraupenari buruz aurreikusitakoarekin bat etorritik.

21. artikulua – Prestazio ekonomikoetarako eskubidearen sortzapena

1.- Ordenantza honetan araututako prestazio ekonomikoak eskuratzeko eskubideak ondorioak sortuko ditu pertsonari dagokion prestazio ekonomiko zehatza aitortzen eta esleitzen dion ebazpenaren egunetik aurrera.

2.- Hala ere, artikulua honen 1. paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, prestazio ekonomikoak eskuratzeko eskubideak ondorioak izan ditzake ebazpena eman eta hurrengo egunean, ebazpena prestazio ekonomikoa lotzen zaion zerbitzu edo zentroan sartu aurretik ematen bada. Kasu horietan, prestazioa zein zerbitzu edo zentrori lotzen zaion, zerbitzu edo zentro horretan benetan sartzen denetik aurrera izango ditu ondorioak ebazpenak.

22. artikulua – Prestazio ekonomikoen ordainketa

1.- Prestazio ekonomikoak mugaeguneratutako hilabeteen arabera ordainduko dira, eta urteko 12 hilekotan ordainduko dira, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoaren kasuan izan ezik, adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzuko atsedeen-zerbitzua eskuratzeko atsedeen-modalitatean, edo ostatu-zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa), eta, ordainketari dagokionez, artikulua honen 2. paragrafoan aurreikusitakoaren mende geratuko da.

2.- Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoaren kasuan, atsedeen-modalitatean, eguneko arreta-zerbitzuan edo ostatu-zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa), gizarte-zerbitzuak sistema publikotik kanpo, emandako atsedeen-zerbitzuak eskuratzeko, ordainketa egonaldia amaitu eta gehienez ere 3 hilabeteko epean egingo da, honako dokumentazio hau aurkeztu ondoren:

- a) jatorrizko faktura, zentroak edo zerbitzuak sinatua eta zigilatua. Bertan zehaztuko da zenbat gau edo egun egon den zentroan – zerbitzuaren izaeraren arabera –, baita zenbat egunetan sartu eta irten den ere, eta ez da inola ere ordainduko laguntza emateko ebazpenean aitortutakoa baino gau edo egun gehiago;
- b) faktura ordaindu izanaren bankuko egiaztagiria.

Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa Arabako Lurralde Historikoan ez dagoen zentro edo zerbitzu bati lotzen bazaio, zentro edo zerbitzu hori baimendutako edo

homologatutako zentroa dela egiaztatzen duen ziurtagiria eskatuko zaio kokatuta dagoen eremu geografikoaren arabera eskumena duen administrazioari.

Justifikatutako gau edo egun kopurua – zerbitzu motaren arabera – ebazpenean onartutako kopurua baino txikiagoa bada, benetako egonaldiak ordainduko dira, beste ebazpenik eman beharrik gabe.

3- Prestazio ekonomikoak banku-transferentzia bidez ordainduko dira, banku-kontuaren identifikazio-fitxan adierazitako kontuan. Kontu horren titularra prestazio ekonomikoaren onuraduna izango da, hurrengo paragrafoan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

4- Aurreko lerrokadan aurreikusitakoa gorabehera, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoaren kasuan, modalitate arruntean eta atsedenerako modalitatean, prestazioa titularraz bestelako pertsona fisiko edo juridikoari ordaintzea erabaki ahal izango da, baldin eta prestazio ekonomikoa lotzen zaion zerbitzu edo zentroaren ordezkari gisa jarduten duela egiaztatzen badu, prestazioaren titularren alde aurreko baimenarekin, baldin eta prestazioa eman zen helbururako ez erabiltzeko arriskua badago, eta prestazioa jasotzeko legezko ordezkari edo gertakari-zaintzailerik ez badago. Ordainketa titularra ez den beste pertsona fisiko edo juridiko bati egiten bazaio, prestazioa jasotzen duen pertsonak edo erakundeak konpromisoa hartu beharko du, idatziz, gizarte-zerbitzuei jakinarazteko heriotzagatik, zentroz aldatzeagatik edo beste edozein arrazoiengatik gertatzen diren baja edo aldaketa guztiak, dagokion ereduaren bidez.

23. artikulua – Eskubidearen iraupena

Foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoen onarpenari eutsiko zaio:

- a) dirulaguntza ematea eragin zuten arrazoiek irauten badute;
- b) horietan sartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen badira;
- c) onarpenaren ondoriozko betebeharrak betetzen badira;
- d) Ordenantza honen 39. artikuluan arautzen diren azkentze-arrazoietakoa bat bera ere gertatzen ez bada.

III. kapitulua

Prestazio ekonomikoak berrikustea, aldatzea, etetea eta azkentzea

24. artikulua – Onartutako prestazioak berrikustea

1- Prestazio ekonomikoak edozein unetan berrikusi ahal izango dira ofizioz.

2- Prestazio ekonomikoak alderdi batek eskatuta berrikusi ahal izango dira, baldin eta:

- a) onarpena eragin zuten eta prestazioa jasotzeari eragin diezaioketen baldintzak aldatzea;
- b) titularraren ahalmen ekonomikoa aldatzen bada eta horrek prestazio ekonomikoaren zenbatekoari eragin badiezaioke;
- c) titularraren beharren edo egoera pertsonalaren bilakaerak prestazio ekonomikoa aldatzea edota zerbitzu bat eskuratzea gomendatzen badu.

3- Lehenengo eta 2. paragrafoetan aipatutako berrikuspenetan, prestazio ekonomikoaren titularrei – edo haien legezko ordezkariari edo egitatezko zaintzaileari – eskatu ahal izango zaie beharrezko jotzen den dokumentazioa aurkezteko, dagozkien baldintzak eta betebeharrak betetzen jarraitzen dutela egiaztatzeko.

4- Prestazio ekonomikoak berrikusteak honako aldaketa hauek ekar dezake: prestazioaren zenbatekoa aldatzea, prestazio ekonomikoa etetea edo azkentzea, kapitulu honetako hurrengo ataletan aurreikusitakoaren arabera.

1. atala - Prestazio ekonomikoaren zenbatekoa aldatzea

25. artikulua – Prestazioaren zenbatekoa aldatzea

1- Prestazio ekonomikoaren zenbatekoa aldatu ahal izango da, baldin eta, aurreko artikuluan araututako berrikuspenaren esparruan, honako hauek gertatu direla egiaztatzen bada:

- a) titularraren gaitasun ekonomikoa aldatu bada 14. artikuluan zehaztutako prestazioaren banakako zenbatekoan eragina duena;
- b) 15. artikuluan aurreikusitako kenkari aplikagarrietan aldaketa bat gertatu bada;

2- Zenbatekoa aldatzearen ondorioek aldaketaren arrazoia gertatu zen egunera arteko atzeraeragina izango dute.

2. atala – Prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea etetea

26. artikulua – Etetearen arrazoiak

1.- Prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea honako arrazoi hauengatik eten egingo da:

- a) Adinekoentzako ostatu-zerbitzuko atsedeen-zerbitzu bat (etxebizitza komunitarioa) eskuratzegatik, dela gizarte-zerbitzuen sistema publikoko zerbitzuak, dela sistema horretatik kanpoko zerbitzuak, zeinetara pertsona Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomiko baten bidez sartzen baita, atsedeen-modalitatean.

Kasu horietan, adinekoentzako ostatu-zerbitzuko atsedeen-zerbitzu bat (etxebizitza komunitarioa) eskuratzek ez du ekarriko Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa etetea autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak eskuratzeko, baldin eta ostatu-zerbitzuak zerbitzu horiekin parekatzeko moduko zerbitzurik eskaintzen ez badu eta zerbitzu horiek benetan erabiltzen badira.

b) Eguneko arreata-zerbitzuan atsedeen-zerbitzu bat eskuratzegatik – dela gizarte-zerbitzuen sistema publikoko zerbitzuak, dela sistema horretatik kanpoko zerbitzuak, zeinetara pertsona Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomiko baten bidez sartzen baita, atsedeen-modalitatean. Etete-arrazoi hori autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuei lotutako prestazio ekonomikoari baino ez zaio aplikatuko, baldin eta eguneko arreata-zerbitzuak zerbitzu horien antzeko zerbitzuak eskaintzen baditu.

c) Onuraduna jarraian 45 egun baino gehiagoz ospitalerutzen badute.

d) Honako betebeharrak hauek betetzean izandako atzerapenagatik, betiere atzerapen hori hilabete baino gehiagokoa ez bada, aipatutako epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita:

- Prestazio ekonomikoa eman zen helbururako osorik erabili dela egiaztatzea.
- Prestazio ekonomikoak zein baldintzatan erabiltzen diren egiaztatzeko aukera ematea.
- Gizarte Zerbitzuek prestazio ekonomikoa kudeatzeko eskatzen dieten informazioa ematea eta dokumentazioa aurkeztea.

2.- Aurreko d) idatz-zatian aipatutako atzerapena hilabetetik gorakoa bada, betebeharra ez dela bete ulertuko da, eta prestazio ekonomikoa azkendu egingo da Ordenantza honen 29.1 i) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

27. artikulua – Etetearen ondorioak eta iraupena

Prestazio ekonomikorako eskubidea eteteak beraren ordainketa etetea ekarriko du, eta ondoreak sortuko ditu data hauetatik aurrera:

a) Etenaldia atsedeen-zerbitzu baterako sarbidearen ondoriozkoa denean, 26-1 artikuluko a) eta b) idatz-zatietan aurreikusitako baldintzetan, atsedeen-zerbitzurako sarbidearen datatik aurrera. Kasu horretan, etenaldia atsedeen-zerbitzuan dagoen bitartean mantenduko da.

b) Etenaldia ospitaleratu behar denean, 26-1-c) artikuluan aurreikusitako baldintzetan:

- 26-1-c) artikuluan aipatutako 45 eguneko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

Etenaldiak ospitaleratze-aldian iraungo du, baina inola ere ez 6 hilabetetik gorako aldi jarraituan, etendura gauzatzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe

hori igarotakoan, prestazioa jasotzeko eskubidea automatikoki iraungiko da, 29.1 k) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

c) Etendura 24 d) artikuluan aipatutako betebeharrak betetzeko hilabete baino gutxiagoko atzerapenagatik gertatzen denean, etendura ebazten den egunetik aurrera. Kasu horretan, etenaldiak hilabete bat iraungo du.

28. artikulua – Prestazioaren ordainketa kautelaz etetea

1- Prestazioa azkentzeko prozedura hasi den edo ez alde batera utzita, hurrengo atalean aurreikusitako baldintzetan, ofizioz edo alde batek eskatuta, prestazio ekonomikoaren ordainketa kautelaz eten ahal izango da, baldin eta prestazio ekonomikoa aitortzeko edo mantentzeko baldintzaren bat galtzea edo prestazio ekonomikoari lotutako betebeharren bat ez betetzea dakarren egoeraren baten zantzuak antzeman badira.

2- Kasu horietan, prestazio ekonomikoari eusteari, prestazioa eteteari edo prestazioa jasotzeko eskubidea azkentzeari buruzko ebazpena emango da, kautelazko etendura hartu eta gehienez ere hiru hilabeteko epean. Etete hori beste hiru hilabetez luza daiteke, kasuaren konplexutasunak hala justifikatzen badu eta dagokion txostenaren bidez hala arrazoitzen bada.

3. atala - Prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea azkentzea

29. artikulua - Azkentzeko arrazoiak

1.- Oro har, ordenantza honetan araututako prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea azkendu egingo da honako arrazoi hauetakoren bat gertatzen denean:

- a) Titularraren heriotza.
- b) Ordenantza honetan eskatzen diren baldintzak, orokorrak zein bereziak, galtzea.
- c) Titularrak edo haren legezko ordezkariak edo izatezko zaintzaileak espresuki uko egitea.
- d) Banakako arreta-programa aldatzea, prestazioari lotutako zerbitzu-mota onuradunarentzat jada egokia ez dela zehazten duena.
- e) Azkentzearen xede den prestazio ekonomikoarekin bateraezina den zerbitzu edo prestazio ekonomikoren bat jasotzeko eskubidea aitortzea.
- f) Laguntza emateko ebazpenean ezarritako prestazio ekonomikoaren iraupen-epea igarotzea.
- g) Behin-behinean emandako mendetasun-aitorpenen kasuan aurreikusitako baliozkotasun-epea gaunditzea, Ordenantza honen 25.1c) artikuluan aurreikusitako prestazio ekonomikoaren zenbatekoa aldatzen den kasuetan izan ezik.
- h) Onuraduna Euskal Autonomia Erkidegoko beste lurralde historiko batera modu iraunkorrean lekuz aldatzea.

i) Honako betebeharrak ez betezea, edo betebeharrak betetzeko aurreikusitako epea amaitu eta hilabete baino gehiagoko atzerapenarekin betezea:

- Emandako prestazio ekonomikoak zein baldintzatan erabiltzen diren egiaztatzeak aukera ematea gizarte-zerbitzuei.
- Prestazio ekonomikoa eman zen helbururako erabili dela egiaztatzea.
- Gizarte Zerbitzuek prestazio ekonomikoa kudeatzeko eskatzen dieten informazioa ematea eta dokumentazioa aurkeztea.

j) Dokumentazio osagarrian agertu beharreko datuak edo informazioak ezkutatzea edo faltsutzea.

k) Sei hilabetetik gorako etenaldi jarraitua igarotzea, etenaldia eraginkorra den egunetik zenbatzen hasita.

2.- Gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpoko zerbitzu edo zentroetara sartzeko, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikorako eskubidea, modalitate arruntan, honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean iraungiko da:

- a) Prestazioaren onuradunaren eta hari lotutako zerbitzu edo zentroaren arteko kontratu-harremana amaitzea.
- b) Prestazioaren titularrak zentrotik justifikaziorik gabe joatea, urtean 45 egunetan baino gehiago.
- c) Gizarte-zerbitzuen sistema publikoan hutsik dagoen plaza bat ez onartzea, baldin eta prestazio ekonomikoari lotutako zerbitzuaren izaerari dagokion Lanpostu Hutsak Esleitzeko Zerrendan eskatzailerik zain ez badago.

3.- Izaera espezifikoak, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikorako eskubidea, eguneko arreta-zerbitzua eskuratzeko atsedeen-modalitatean, edo ostatu-zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa) –kasu guztietan, gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpo–, iraungi egingo da honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

- a) Prestazio hori eman den urte naturala amaitzea.
- b) Adinekoak ostatu-zerbitzuan sartzeko (etxebizitza komunitarioa), dela gizarte-zerbitzuen sistema publikoko zerbitzuetan, dela hortik kanpo, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko baten bidez, modalitate arruntan.

4.- Aurreko paragrafoetan jasotako kasuetan, onuradunaren heriotzaren kasuan izan ezik, onuradunaren eskubidea azkendu aurretik prestazioa kautelaz eten ez bada, 15 eguneko entzunaldi-izapidea emango zaio, arrazoiak eta alegazioak aurkezteko epea adierazita.

30. artikulua – Azkentzearen ondorioak

1- Eskubidea azkentzeak prestazioaren ordainketa etetea ekarriko du.

2- Prestazio ekonomikoak amaitzearen ondorioak azkentzeko arrazoia gertatzen den egunetik aurrera ulertuko dira.

3- Prestazioa artikulua 1 j) idatz-zatian aipatutako arrazoiengatik azkentzen bada titularrak ezin izango du ordenantza honetan araututako prestazio ekonomikorik berriro eskatu, iraungitze-datatik urtebeterako epean.

V. TITULUA - BIDEGABEKO PRESTAZIOAK ITZULTZEA**31. artikulua - Bidegabeko prestazioak itzultzea**

1.- Aldatzeko, eteteko edo azkentzeko prozedura baten ondorioz, edo beste edozein arrazoiengatik, Ordenantza honetan araututako edozein prestazio ekonomiko bidegabe edo behar ez bezalako zenbatekoan jaso dela egiaztatzen bada, titularrak itzuli egin beharko du, salbu eta itzulketa eskatzeko arrazoia 33. artikuluan aurreikusitako moduan preskribatu bada.

2- Prestazioa bidegabeki jaso dela edo dagokion kopurua baino gehiago jaso dela uste baldin bada, hori zehazten duen ebazpenak itzultzeko betebeharra ezarriko dio onuradunari.

32. artikulua – Kopuru okerreko prestazioak itzultzeko prozedura

1.- Aurreko artikuluan aurreikusitako edozein kasutan, bidegabeki jasotako prestazioak edo jaso behar ziren baino kopuru handiagoak jaso izatekotan, itzultzeko prozedura hasiko da.

2.- Prozedura hasitakoan, titularrari jakinaraziko zaio prozedura hasi dela, zergatik hasi dela eta ondorio ekonomikoak ekar ditzakeela adieraziko zaio. Baita ebazteko eta jakinarazteko epea ere. Interesdunek, jakinarazpen-datatik gehienez hilabeteko epean, egokitatzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

3.- Alegazioak jaso ondoren edo epe hori igaro eta alegaziorik aurkeztu ez bada, gehienez ere hilabeteko epean ebazpena emango da, prestazioa bidegabe edo behar ez bezala jaso den ala ez adierazteko. Ebazpen hori arrazoituta egon beharko da.

4- Prestazioa bidegabe edo behar ez bezalako zenbatekoan jaso dela uste bada, aurreko paragrafoan aurreikusitako ebazpenak bidezkoak diren zenbatekoak itzultzeko betebeharra adieraziko du, eta bertan finkatuko du interesdunak betebehara hori gauzatzeko izango duen gehieneko epea, baita, hala badagokio, ordainketa zatikatzeko akordio baten esparruan egin beharreko hileko itzulketen kopurua eta zenbatekoa ere. Horretarako, ofizioz konpentsatu edo deskontatu ahal izango dira titularrak hilero jasotzen dituen prestazio ekonomikoak.

33. artikulua - Itzulketaren eta preskripzioaren prozedura iraungitzea

1.- Aurreko artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako itzulketa-prozedura ebazteko epea amaituta, berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, prozedura iraungi egingo da, eta prozedura hori deklaritzen duen ebazpenak jarduketak artxibatzeko

aginduko du. Prozedura interesdunari egotz dakiokkeen arrazoiren batengatik gelditu bada, ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epearen zenbaketa eten egingo da.

2.- Administrazioak erreklamatu gabe edo aurreko artikuluan aurreikusitako moduan ordainketa zatikatzea erabaki gabe bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharrak bost urteko epea igarotzeagatik preskribatuko du, ez-betetzea egiaztatzean eman beharreko ebazpenari kalterik egin gabe.

VI. TITULUA - PRESTAZIO EKONOMIKOEN ETA ARRETAREN KALITATEAREN JARRAIPENA

34. artikulua - Prestazio ekonomikoen jarraipena

1- Prestazio ekonomikoen jarraipena egingo da, egiaztatzeko prestazio horiek eman ziren helburuetarako erabiltzen direla eta titularrek, prestazio ekonomiko horien bidez, beren premiei behar diren intentsitatean eta kalitatean erantzuteko arreta egokia jasotzen dutela.

2- Aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren ondorioetarako, prestazio ekonomikoaren titularrari – edo haren legezko ordezkariari edo izatezko zaintzaileari – eskatu ahal izango zaio modu frogagarrian egiaztatu dezala aitortutako prestazio ekonomikoari aplikatutako xedea.

3- Oro har, gutxienez urteko jarraipena egingo da. Era berean, jarraipen ohikoagoak egitea erabaki ahal izango da, hartzaileen artean inguruabar espezifikoak daudenean.

4- Era berean, ofizioz berrikusi ahal izango da 14. artikuluan definitutako prestazio ekonomikoaren banakako zenbatekoa kalkulatzeko kontuan hartutako ahalmen ekonomikoa.

5.- Zerbitzuari lotutako Prestazio Ekonomikoaren kasuan, gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpoko zerbitzu edo zentroetara sartzeko modalitate arruntan, jarraipenaren helburua izango da:

- a) Prestazio ekonomikoaren titularrak prestazio ekonomikoa lotzen zaion zerbitzu edo zentroaren erabiltzaile izaten jarraitzen duela egiaztatzea.
- b) Laguntza mota, intentsitatea eta kalitatea prestazio ekonomikoaren titularraren beharretara behar bezala egokitzen direla egiaztatzea.
- c) Gizarte-zerbitzuetako zerbitzu eta zentroak baimentzeko ardura duen foru-zerbitzuari kontsulta eginez, egiaztatu behar da prestazio ekonomikoa lotzen zaion zerbitzuak edo zentroak baimen horretarako eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko baten esparruan egiaztatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela.
- d) Prestazioaren titularrak urtean gutxienez 8 hilabetez Arabako Lurralde Historikoan benetako bizilekua duela egiaztatzea, prestazioa babes-maila

osagarriaren barruan sartzen denean, Ordenantza honen 7.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Salbuespen-egoerak.

1.- Salbuespen gisa, inguruabarrek hala eskatzen dutenean eta txosten teknikoek hala baloratzen eta justifikatzen dutenean, honako salbuespen hauek aplikatu ahal izango dira:

- a) Ordenantza honen 13., 14. eta 15. artikuluetan xedatutakoaren arabera zehaztutako prestazioen gaineko zenbateko gehigarri bat ematea, kasuen arabera aplikagarriak diren heinean, Gizarte Zerbitzuen ustez ikuspegi sozioekonomiko batetik babesgabetasun-egoera berezian dauden pertsonen, adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzuan edo adinekoentzako ostatu-zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa) sartzeko aukera emateko, modalitate arruntean zein atsedenerako modalitatean.

Adinekoak ezohiko babesgabezia-egoera duela ulertuko da, ikuspegi sozioekonomiko batetik, aldi berean honako inguruabar hauek gertatzen direnean:

— Pertsonak eguneko arreta-zerbitzuan edo adinekoentzako ostatu-zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa) sartu behar duenean – dela atsedenaldira baterako, dela denbora luzeagorako –, bere premietarako eta egoera pertsonalerako alternatiba egoki bakar gisa, asistentziaren ikuspegitik. Horretarako, dagokion zentro edo zerbitzurako sarbidea mendekotasuna duen pertsonarentzat egokia den laguntza-aukera bakarra dela justifikatzeko, txosten tekniko bat egingo da, eta administrazio-espeditentari erantsiko zaio.

— Bere gaitasun ekonomikoa, 13., 14. eta 15. artikuluetan xedatutakoaren arabera zehaztutako prestazioaren zenbatekoari gehituta, kasuen arabera aplikatzekoak diren heinean, dagokion zentro edo zerbitzuari dagokion prezioa ordaintzeko nahikoa ez denean, edo, gaitasun ekonomiko nahikoa izan arren, pertsonak ez duenean behar adinako likidezirik prezio hori ordaintzeko, egoera horiek dagozkion gizarte-zerbitzuen prezio publikoak arautzen dituen udal araudian zehazten diren baldintzetan. Ondorio horietarako, kaudimen edo likidezia nahikoa ez bada, administrazio-espeditentea jasoko duen txosten baten bidez baloratuko da.

Babesgabeziako salbuespenezko egoera hautemateko, aurreko irizpideez gain, kontuan hartu ahal izango dira bizigarritasun- eta ekipamendu-baldintza desegokiak eta prestaziorako eskubidea duen pertsonaren ohiko etxebizitzan arkitektura-oztopoak egotea.

Kasu guztietan, a) idatz-zati honetan araututako zenbateko gehigarriak ordainketa geroratzea eta zorra aitortzea ekarriko du, eta dagozkien gizarte-zerbitzuen prezio publikoak arautzen dituen foru-araudian horiei buruz jasotako aurreikuspenak aplikatuko dira.

Kasu horietan, bermeak eskatu ahal izango dira, berme horiek dagozkien gizarte-zerbitzuen prezio publikoak arautzen dituen aipatutako udal araudian zehazten eta artikulatzen diren baldintzetan.

- b) Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa aitortzea Euskal Autonomia Erkidegoko beste lurralde historiko batzuetako edo mugakide diren beste autonomia-erkidego batzuetako zentroetan sartzeko, betiere zentro horiek jarduteko baimena badute lurralde historiko edo erkidego horretan, eta egonaldiaren iraupena salbuespen-ebazpenean zehaztuko da.

- 2) Atsedeen-modalitaterako, lotzen den zentroa edo zerbitzua beste edozein lurralde historikotan edo mugakide den beste autonomia-erkidego batean egon ahal izango da, eta dagokion organo eskudunak emandako funtzionamendu-baimena edota ziurtagiria izan beharko ditu, baita eskatzaileak aurkeztu beharreko dokumentazioa ere.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Mendekotasun-maila kontuan hartzea.

Ordenantza honetan jasotako mendetasun-mailari buruzko aipamenak 20/2012 Dekretuaren aurretikoak dira. Izan ere, Aurrekontu Egonkortasuna Bermatzeko eta Lehiakortasuna Sustatzeko Neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Dekretuak mendetasun-mailak ezabatu zituen. Beraz, pertsonen mendetasun-egoera berrikusten ez den bitartean maila horiek aplikatuko dira. Eta, berrikusten direnetik aurrera, gradua baino ez da adieraziko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira ordenantza honetan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Azken xedapenetatik lehenengoa. Ordezko araubidea.

1.- Ordenantza honetan berariaz aurreikusten ez den guztirako, zerbitzuak emateagatiko edo jarduerak egiteagatiko prezio publikoetan xedatutakoa aplikatuko da.

2- Lehenengo paragrafoan aipatutako arauak berariaz aurreikusten ez duten guztirako, honako xedapen hauek aplikatuko dira osagarri gisa: 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa; 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzkoa; 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun-egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzkoa; eta 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, baita indarrean dauden eta bat datozen eta aplikatu behar diren legezko xedapenak ere.

3- Oro har, arau espezifikoak egindako erreferentziak, estatukoak, autonomikoak edo foralak izan, unean-unean gai horiei buruz indarrean dagoen araudiari buruzkoak direla ulertu beharko da.

Azken xedapenetatik bigarrena. Indarrean sartzea

Ordenantza hau 2026ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

Durana, 2025eko urriaren 30a.

Alkatea

M^a Blanca Antépara Uribe

**ORDENANTZA FISKALA, ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALAK HORNITUTAKO
GIZARTE ZERBITZUEN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA****I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua. Aplikazio-eremua**

Ordenantza Fiskal hau Arratzua-Ubarrundiako Udalak ematen dituen eta kudeaketa zuzeneko erregimenean, beste erakunde publiko batzuekin hitzarmen erregimenean edo erakunde pribatuekin itun, hitzarmen edo kontratu erregimenean ematen diren honako zerbitzu hauei aplikatuko zaie:

- a. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua.
- b. Etxebizitza komunitarioa.
- c. Eguneko arreta etxebizitza komunitarioan.
- d. Eguneko arretarako landa-zentroak.
 - Arreta pertsonaleko zerbitzua
 - Zerbitzu osagarriak:
 - o Janari zerbitzua
 - o Arropa garbitzeko zerbitzua
 - o Bainu geriatrikoko zerbitzua.
- e. Atsedeen-zerbitzuak, aurreko b, c eta d atalei dagokienez.
- f. Zerbitzu osagarriak etxebizitza komunitarioan.
- g. Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua.
- h. Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua.
- i. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera-pisua.

2. artikulua. Xedea

Ordenantza Fiskal honen xedea da:

- a) Zehaztea 1. artikuluan aipatutako zerbitzuak, Arratzua-Ubarrundiako Udalak hornituak, doakoak diren edo ez; azken kasu horretan, ondorioz, prezio publikoaren menpekoak izango dira.
- b) Prezio publikoen aplikazioa arautzea, eta bereziki:
 - erabiltzaileak prezio horietan izango duen parte-hartze ekonomikoa zehazteko irizpideak;
 - sortzapena, ordainketa eta ordainketaren geroratze partzialak arautzen dituzten irizpideak;
 - prezio publikoak ordaintzera behartuta dauden pertsonen gaitasun ekonomikoa zehazteko irizpideak.

c) Prezio publikoen zenbatekoa zehaztea, bai eta gaitasun ekonomikoaren arabera aplikatu daitezkeen hobariak ere.

I. KAPITULUA. PREZIO PUBLIKOARI LOTUTAKO DOAKO ZERBITZUAK ETA ORDAINTZERA BEHARTUTAKO PERTSONAK

3. artikulua. Arratzua-Ubarrundiako Udalak emandako gizarte-zerbitzuak.

Arratzua-Ubarrundiako Udalak hornitutako eta Ordenantza Fiskal honetan arautzen diren gizarte zerbitzuak doakoak izan daitezke edo prezio publiko bat ordaindu beharko dute, 4. eta 5. artikuluetan, hurrenez hurren, ezarritakoaren arabera.

4. artikulua. Doako zerbitzuak

Erabiltzaile guztientzat doakoak izango dira, haien ahalmen ekonomikoa edozein dela ere, Arratzua-Ubarrundiako Udalak hornitutako zerbitzu hauek:

- Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua
- Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua
- Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeentzako harrera etxea

5. artikulua. Prezio publikoa duten zerbitzuak

1. Prezio publikoa izango dute Arratzua-Ubarrundiako Udalak adineko pertsonentzat hornitutako zerbitzu hauek:

- Etxez etxeko laguntza zerbitzua
- Landa-eremuko ostatu-zerbitzua.
- Eguneko arreta etxebizitza komunitarioan.
- Eguneko arretarako landa-zentroak.
- Atsedeen zerbitzuak etxebizitza komunitarioan.
- Atsedeen zerbitzuak eguneko arretarako etxebizitza komunitarioan.
- Atsedeen hartzeko zerbitzuak eguneko arretarako landa-zentroetan.
- Janari zerbitzu osagarriak etxebizitza komunitarioaren zerbitzuaren erabiltzaile iraunkorren senideentzako.
- Erabiltzaile ez-iraunkorrentzako zerbitzu osagarriak:
 - Janari zerbitzua.
 - Bainu geriatrikoko zerbitzua.
 - Arropa garbitzeko zerbitzua.

2. Artikulu honetako 1. paragrafoan zerrendatutako zerbitzuei dagozkien prezio publikoak, Ordenantza Fiskal honetako I. Eranskinean finkatuta geratzen dira. Prezio horiek eguneratu edo aldatzen ez diren bitartean aplikatuko dira, 27. artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

3. Inor ez da geratuko Ordenantza Fiskal honetan finkatutako prezio publikoak dituzten gizarte zerbitzuen estalduratik kanpo baliabide ekonomikorik ez izateagatik.

6. artikulua. Ordaintzera behartutako pertsonak

1. Prezio publikoak ordaintzera behartuta daude, Ordenantza Fiskal honetan araututakoaren arabera:

- a) 5.1 artikuluan aurreikusitako zerbitzu bakoitzaz zuzenean baliatzen diren pertsona fisikoak, 1. paragrafo honetako b) paragrafoko kasuetan ez daudenean.
- b) Adinez nagusi diren pertsonen kasuan, legezko ordezkariaren edo zaintzailearen edo egitezko zaintzailearen bitartez jarduten dutenean, Arratzua-Ubarrundiako Udalak ematen dituen zerbitzuak eskuratzeko araudian aurreikusitako baldintzetan, azken horiek ordaindu beharko dute. Hala ere, kasu horietan, ordainketa ordezkaturako pertsonaren errenta eta ondarearen kargura egingo da, eta zenbatutako ahalmen ekonomikoa ordezkaturako pertsonarena izango da.

2. Hala badagokio, 60 urtetik aurrera erabiltzaileak doan egindako eskualdaketa baten edo eskubideei uko egitearen onuradun izan diren pertsonen edo zerbitzuaren lehen eskaera aurkeztu aurreko 10 urteetan egindakoek ordaindu beharko dute subsidiarioki.

Ondasun higieztari dagokienez, zorra eskatzeko unean merkatuan dagoen balio eguneratura arte iristen da ordaintzeko betebeharra.

Gainerako ondasunen dohaintzetan, dohaintzaren datan eskualdaketa baten balioa, dagokion KPlaren arabera eguneratua, hartuko du ordaintzeko betebeharrak.

Era berean, erabiltzailearen ondare osoa edo zati bat hirugarren pertsona baten alde abal-emaile, hipoteka-bermatzaile edo pareko figura gisa sinatzeagatik enbargatu denean, hirugarren pertsona horrek modu subsidiarioan ordaindu beharko du prezio publikoa. Ordaintzeko betebeharrak hartzen du abala, hipoteka edo antzeko figura eratzeko eskriturretan edo, halakorik ezean, bahitura eskriturretan egotzitako tasazio balioa.

II. KAPITULUA.- ERABILTZAILEAREN PARTAIDETZA EKONOMIKOA ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK

7. artikulua. Prezio publikoaren ordainketa osoa

1. Ordenantza Fiskal honen 6.1 artikuluan aurreikusitako baldintzetan zerbitzuak ordaintzera behartuta dauden pertsonen dagokion prezio publikoa osorik ordainduko dute horretarako ahalmen ekonomiko nahikoa dutenean, prezio hori ordaintzen dela ziurtatzeko berme egokiak formalizatzea eskatu ahal izatearen kalterik gabe, Ordenantza Fiskal honen 13. artikuluan aurreikusitako kasuetan eta baldintzetan.
2. 1. paragrafoan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ordaintzera behartuta dauden pertsonen, Ordenantza Fiskal honen 6.1 artikuluan aurreikusitako terminoetan, gaitasun

ekonomiko nahikoa dutela ulertuko da, gaitasun hori, Ordenantza Fiskal honen III. Tituluaren I. Kapituluari aurreikusitakoarekin bat zenbatuta, II. Eranskinean adierazitako mugen parekoa edo handiagoa denean, zerbitzu motaren arabera.

3. Ordaintzera behartuta dagoen pertsonaren ahalmen ekonomikoa, Ordenantza Fiskal honen 6.1. artikuluan aurreikusitako baldintzetan, artikuluko 2. paragrafoan aipatzen diren mugak baino txikiagoa bada, 6.2 artikuluan definitutako ordaintzera behartuta dauden pertsonengana joko da, halakorik dagoenean, erabiltzailearen ekarpena osatzeko asmoz, prezio publikoaren zenbateko osoa estali arte, edo nahitaezko prezioa ordaintzeko gaitasunik ez duenean, 6.1 artikuluan zehaztutako moduan.

8. artikulua. Hobariak

1. 6.1. artikuluan aurreikusitako moduan ordaintzera behartuta dauden pertsonen prezio publiko osoa ordaintzeko behar besteko ahalmen ekonomikorik ez dutenean —Ordenantza Fiskal honen III. tituluaren I. kapituluari aurreikusitakoarekin bat zenbatuta—, prezio publiko horiek II. Eranskinean ezarritako mugak baino txikiagoak direlako, hobariak eskuratu ahal izango dituzte, aldez aurretik eskatuta.

Hobari horiek 5.1 artikuluan aipatutako prezio publikoko zerbitzu guztiei aplikatuko zaizkie, honako hauei izan ezik:

- a) Landa-inguruneen ostatu-zerbitzuak.
- b) Zerbitzu osagarriak.
- c) Atsedeen hartzeko zerbitzuak.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako prezio publikoari aplikagarri zaizkion hobariak progresibotasun printzipio bati jarraituz zehaztuko dira, erabiltzailearen ahalmen ekonomikoren arabera, gaitasun hori Ordenantza Fiskalaren III. Tituluaren I. Kapituluari ezarritako irizpideekin bat eginda zenbatuta.

3. Artikulu honetan aurreikusitako hobariak Ordenantza Fiskal honen III. Eranskinean finkatzen dira, eta I. Eranskinean finkatutako prezio publikoak indarrean dauden bitartean aplikatuko dira. Prezio horiek 28. artikuluan ezarritako bidetik eguneratu edo aldatzen direnean, dagozkien hobariak ere zehaztuko dira.

9. artikulua. Salbuespen partzialak zerbitzuen erabilera motaren arabera

1. Zenbait zerbitzuen erabilera eteten bada, prezio publikoaren albuespen partzial hauek aplikatuko dira:

- a) Adinekoentzako etxebizitza komunitarioen eta eguneko zentroko zerbitzuen erabiltzaileen gizarteratzea eta familia-integrazioa errazteko, mota edo modalitatea edozein dela ere, pertsona horiek zentroetatik 5 egun osoko edo gehiagoko aldi jarraituetan irteten direnean —baldin eta zerbitzuaren benetako funtzionamenduegune badiagozkien—, gehienez ere 45 egun/urteko, plazaren erreserba gisa eta adierazitako aldietan, prezio baliokide bat ezarriko zaie. Integrazio sozio-familiarraren ondoriozko absentsia 45 egun/urteko baino gehiagokoa denean, albuespen partziala aplikatzeari utziko zaio eta esleitutako prezio publiko osoa aplikatuko da 46. egunetik

aurrera. a) idatz-zati honetan aurreikusitakoa ez da aplikatuko etxebizitza komunitarioko asteburuko eguneko arretaren modalitatean.

b) Etxeko laguntza-zerbitzuaren erabiltzaileek zerbitzua aldi baterako erabiltzeari uzten diotenean, ez da inolako preziorik sortuko zerbitzua 7 egun natural jarraian edo gehiagotan eteten bada. Horretarako, erabiltzaileek idatziz jakinarazi beharko dute egoera hori, gutxienez 7 egun lehenago, behar bezala justifikatutako egoeretan izan ezik, egoera horietan, presagatik, aurreabisurako epe hori betetzea ezinezkoa bada. Zerbitzua erabiltzen ez bada 7 egun natural jarraian baino gutxiagoan, esleitutako prezio publikoa ordaindu beharko dute.

2. Ez da prezio publikoaren ordainketaren salbuespen partzialik aplikatuko etxebizitza komunitarioaren eta eguneko zentroko zerbitzuen erabiltzaileak ospitaleratzen diren kasuetan, horien mota edo modalitatea edozein dela ere; beraz, ez da prezio publikoaren sortzapena etengo. Aurrekoa alde batera utzi gabe, ospitalizazioak ondoz ondoko 7 egun edo gehiago irauten duen kasuetan, erabiltzaileak ordaindu beharreko prezioa ehuneko 90 izango da ospitalizazio-aldiaren lehenengo egunetik aldi hori amaitu arte, salbu eta etenaldiaren iraupen jarraitua 6 hilabetetik gorakoa denean, etenaldia gauzatzen den egunetik kontatzen hasita; muga horretatik aurrera, ospitaleratu aurretik erabiltzaile gisa zuen zerbitzua azkendu egingo da.

3. Ez da prezio publikoaren ordainketaren salbuespen partzialik aplikatuko, baldin eta, zerbitzuetara sartzeari buruzko araudiaren arabera, zerbitzua eteten bada Arratzua-Ubarrundiako Udalak eskatutako informazioa emateko eta dokumentazioa aurkezteko betebeharra berandu betetzeagatik edo prezio publikoa behin eta berriz ez ordaintzeagatik.

4. Atsedeen zerbitzuen esparruan, urte bakoitzeko lehenengo 15 egunetan ez dute prezio publikorik ordaindu beharko honako baldintza hauek betetzen dituzten erabiltzaileek:

a) Familia-ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa jasotzea.

b) Atsedeen-modalitate bakoitzerako berariaz ezarritakoak.

c) Dagokion urtean, ebazpen bidez, ez izatea emanda zerbitzuarekin lotutako prestazio ekonomiko bat, gutxienez 15 eguneko atsedeenaldian, zeina zerbitzuez baliatzeko erregelamenduan zehaztuko baita. Prestazio hori aldi laburrago baterako eman bada, ez dute prezio publikorik ordaindu beharko 15 egun osatu arte geratzen diren hurrengo atsedeen zerbitzuko egunek.

10. artikulua. Erabilera askeko zenbatekoak

1. Adinekoentzako eta eguneko arretarako Etxebizitza Komunitarioarentzat aurreikusitako ordainketaren geroratze partzialetan prezio publiko gisa ordaindu beharreko hileko zenbatekoa zehazterakoan, erabiltzailearen erabilera liberako ez da inola ere ondorengo muga hauek baino zenbateko txikiagorik geratuko:

a) 2.751,84 euro urtean, adinekoentzako etxebizitza komunitarioen kasuan.

b) 4.586,40 euro urtean, adinekoentzako etxebizitza komunitarioan eguneko arreta eskaintzen duten zerbitzu edo zentroen kasuan.

2. Artikulu honetan aipatutako erabilera askeko zenbatekoak bermatutzat joko dira, urteko zenbaketan errenta nahikorik ez badago ere, ondare konputagarria honako zenbateko hauek baino handiagoa den kasuetan:

a) 3.000 euro erraz gauzatzeko ondarean, etxebizitza komunitarioaren kasuan.

b) 15.000 euro erraz gauzatzeko ondarean, etxebizitza komunitarioko eguneko arreta-zerbitzuaren eta etxebizitza komunitarioko asteburuko eguneko arreta-modalitatearen kasuan.

3. artikulua honen aurreko paragrafoetan sartzen ez diren zerbitzuen kasuan, erabilera askeko zenbatekoak zerbitzu mota bakoitzari dagozkion hobariak zehazteko aplikatutako formulak bermatuko ditu, Ordenantza Fiskal honen III. Eranskinean ezarritakoak.

II. TITULUA. PREZIO PUBLIKOEN SORTZAPENA, ORDAINKETA ETA ORDAINKETAREN ATZERAPEN PARTZIALA

I. KAPITULUA. SORTZAPENA ETA ORDAINKETA

11. artikulua. Sortzapena

Araudi honetan araututako prezio publikoak ordaintzeko betebeharra 5.1 artikuluan zehaztutako edozein zerbitzu benetan ematen hasten den egunean sortuko da, eta data horren eta zerbitzuaren prestazioa behin betiko uzten den unearen arteko aldiari dagokionez sortuko da.

12. artikulua. Ordainketa

1. Esleitutako prezio publikoen ordainketa —osoak, hobaridunak edo partzialki salbuetsiak izan— dagokion ordainagiria kobratzeko aurkeztu den unean egingo da, banku-helbideratze bidez.

2. Erabiltzaileak, edo, hala badagokio, ordaintzeko betebeharra duenak, ez badu dagokion kuota ordaintzeko behar besteko ahalmen ekonomikorik, 6.2 artikuluan definitutako ordainketa subsidiarioki egin behar duten pertsonak daudenean, 7.3 artikuluan jasotako baldintzetan jardungo da.

3. Ordainketaren zati bat geroratu dezaketen zerbitzuen kasuan, ordainketa egin behar duen pertsonak gerorapen hori eskatzea erabakitzen duenean, eta aurreko paragrafoan aurreikusitako inguruabarrak gertatzen ez direnean, honela jokatu da:

a) Hileko bakoitzean eskatzekoa den prezioaren zatia ordaintzeko, dagokion ordainagiria banku-helbideratze bidez kobratzera aurkeztu beharko zaio ordaindu behar duenari.

b) Gainerako zatia, sortutako interesekin batera, zerbitzua uzten den unean ordainduko da, honako kasu hauetan izan ezik:

- Pertsonak ordainketa zati batean geroratu dakioken beste zerbitzu bat eskuratzeko zerbitzua erabiltzeari utzi eta geroratze hori aukeratzen badu; kasu horretan, lehen zerbitzuari aplikatutako geroratzeak sortutako zorra helburu-zerbitzuan sortzen den zorrari gehituko zaio, Ordenantza Fiskal honen 29. artikulua 4 c) atalean aurreikusitako moduan.
- Arratzua-Ubarrundiako Udalak ekitaldia baino lehen edo ondoren eskatuko dela zehazten badu, erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa aldatu egin dela dakielako, eta, betiere, 16.4 artikuluan aurreikusitako kasuan.

13. artikulua. Ordainketa-konpromisoa eta bermeak eratzea

1. Ordainketaren zati bat geroratu ezin den zerbitzuen kasuan, eska daitekeen prezio publikoa ordaintzeko konpromisoa zerbitzua erabiltzeagatik beragatik eman dela ulertuko da, hura esleitzen duen ebazpenaren ondoren.

2. Ordainketa zati batean geroratu ahal den zerbitzuen kasuan, ordainketa egiteko konpromisoaren inprimakia behar bezala beteta aurkeztu beharko da, ordainketa egin baino 7 egun balioudun lehenago gutxienez, Ordenantza Fiskal honen IV. Eranskinean jasotako ereduei jarraituz, kasu desberdinei erantzuten baitiete (geroratzea eskatzen den ala ez, edo formularioa aurkezten duenaren arabera). Ordainketa geroratzea eskatuz gero, Ordenantza Fiskal honen 16. artikuluan araututako zorra aitortzeko agiria ere bete beharko da, IV. Eranskinean jasotako ereduei jarraiki, formularioa aurkezten duen pertsonaren arabera.

3. Ordainketa zati batean geroratu daitezkeen zerbitzuen kasuan, geroratzea erabakitzen den ala ez alde batera utzita, Arratzua-Ubarrundiako Udalak egokitzen jotzen dituen bermeak eskatu ahal izango dizkie aldizkako errentarik ez duten pertsonari, baldin eta hileko zenbaketan eskatzen den prezio publikoaren zenbatekoa edo handiagoa badute.

4. Aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuetan, bermea eratzeko eskatu ahal izango da zuzenbidean onartutako moduetako edozeinetan, aitortutako zorra edo sor daitekeena ordainduko dela ziurtatzeko. Kasuaren inguruabarren arabera, Arratzua-Ubarrundiako Udalak egokitzen eta nahikotzat jotzen duen ordainketa bermatzeko edozein formula erabaki ahal izango da. Bermeak hartzen duen forma berariaz adierazi beharko da Ordenantza Fiskal honen IV. Eranskinari dagozkion ereduetan.

5. Geroratzea eskatzea erabakitzen denean eta bermea higiezinaren ondareak osatzen duenean, aipatutako ondarea identifikatzeko datu guztiak sartu beharko dira, haren erregistro-inskripzioan jasota dauden moduan, zorra aitortzeko dokumentuan agertu behar duen eskaintako berme-moduaren deskribapenean, aipatutako paragrafoan xedatutakoaren arabera. Kasu horietan, zorra Jabetza Erregistroan inskribatzea eta dagokion notario-eskritura eskatuko da.

6. Artikulu honen 4. eta 5. paragrafoetan aurreikusitako baldintzetan bermerik eratu ezin bada edo berme hori nahikoa ez bada, Arratzua-Ubarrundiako Udalak honako dokumentu hauek aurkezteko eskatu ahal izango dio erabiltzaileari edo ordaintzeko betebeharra duen pertsonari, Ordenantza Fiskal honen 6. artikuluan aurreikusitako baldintzetan: aurrezki

liburuxka arrunten mugimendu-orriak/epea eta/edo aurreko bost urteetako banku-erakundeen edo aurrezki-kutxen kontu korronteak. Halaber, edozein tituluren bidez titular edo titularkide den diruzko edozein ondasun mota adierazi beharko da.

Udalak aurkeztu dituen dokumentuei buruzko informazio argigarria eskatu ahal izango dio ordaintzera behartuta dagoen pertsonari, Ordenantza Fiskal honen 6. artikuluan aurreikusitako baldintzetan, artikulua honetan aurreikusitako ondorioetarako.

II. KAPITULUA. ORDAINKETA PARTZIALKI GERORATZEA ETA ZORRA AITORTZEA

14. artikulua. Ordainketaren gerorapen partziala aplikatzea

1. 6.1. artikuluan aurreikusitako terminoetan ordainketa egin behar duen pertsonak dagokion prezio publikoa ordaintzeko behar adinako ahalmen ekonomikorik ez duenean, Ordenantza Fiskal honen II. Eranskinaren 1. eta 2. paragrafoetan definitutako terminoetan, edo ahalmen hori izanik likidezia edo erraz egiteko ondare nahikorik ez duenean, aipatutako II. Eranskinaren 3. paragrafoan zehaztutako terminoetan, prezio publikoaren ordainketaren berariazko gerorapen partziala jaso ahal izango du, aldez aurretik aurreikusitako baldintzetan. Eskubideak eskaeraren datatik aurrera sortuko ditu ondorioak, eta eskaera zerbitzuan edo zentroan ingesatu edo sartu aurrekoa denean, sarrera edo sarrera horren datatik aurrera.

2. Ordainketaren zati bat geroratzea hauei aplikatuko zaie:

- a) Adinekoentzako etxebizitza komunitarioa.
- b) Eguneko arreta-zerbitzua etxebizitza komunitarioan eta asteburuko eguneko arreta-modalitatea etxebizitza komunitarioan.

Arestian aipatutako ordainketaren geroratze partziala ez zaie aplikatuko adierazitako zerbitzuetako atsedeen-zerbitzuari, ez eta zerbitzu osagarriei ere.

3. artikulua honetan aipatutako prezio publikoaren ordainketaren geroratze partziala honako irizpide hauen arabera aplikatuko da:

- a) Etxebizitza komunitarioaren zerbitzuaren kasuan, ordainketaren geroratze partziala prezio publiko osoaren eta Ordenantza Fiskal honen 15. artikuluan a) idatz-zatian aurreikusitako kalkuluaren ondoriozko zenbatekoaren arteko aldeari aplikatuko zaio.
- b) Artikulu honetako 2 b) idatz-zatian aipatutako etxebizitza komunitarioko eguneko arretaren kasuan, ordainketaren geroratze partziala aplikatuko da hobaridun prezioaren edo gaitasun ekonomikoaren arabera kalkulatu gabeko prezioaren eta Arratzua-Ubarrundiako Udaleko organo eskudunak ezarritako hileko zenbateko ordaingarriaren arteko diferentziaren gainean, urteko likideziazen arabera, erabilera libreko zenbatekoak bermatzen dituen Ordenantza Fiskal honetako Hobarien III. Eranskinean bermatutakoarekin bat etorriz.

4. Prezio publikoaren ordainketaren geroratze partziala ez zaie aplikatuko Ordenantza Fiskal honen 8. artikuluan aipatzen diren hobaridun zerbitzuei, artikuluan honen 2.b) paragrafoan xedatutakoa salbu.

5. Prezio publikoaren ordainketaren zati bat geroratzeak ekitaldi bakoitzean indarrean dagoen diruaren legezko interesa sortuko du.

